*Los tipos reducidos del IVA se encuentran en la Directiva 2006/112/CE del Consejo, de 28 de noviembre de 2006, relativa al sistema común del Impuesto sobre el Valor Añadido, en su artículo 98. Así, los Estados miembros pueden aplicar uno o dos tipos reducidos, que solo pueden aplicarse a las entregas de bienes y a las prestaciones de servicios de las categorías que figuran en su anexo III.*

*Espainian, BEZaren zerga tasa murriztuen artean, ez dira sartzen lehen aipaturiko eta BEZari buruzko Zuzentarauko III. eranskineko 19. atalean zerrendaturiko konponketa zerbitzu txikiak: bizikletak, oinetakoak eta larruzko gaiak, arropak eta arropa zuria (adabakiak ipintzea eta konponketak barne) konpontzea.*

*Entre los tipos impositivos reducidos del IVA en España, no se incluyen los pequeños servicios de reparación antes mencionados y relacionados en el número 19 del Anexo III de la Directiva del IVA: pequeños servicios de reparación de bicicletas, calzado y artículos de cuero, prendas de vestir y ropa blanca (incluidos los remiendos y arreglos).*

*Hala ere, BEZari buruzko Espainiako Legearen arabera, tasa murriztua dute eraikinetan edo etxebizitza erabilera duten eraikin zatietan egindako eraberritze eta konpontze lanek, hartzailea pertsona fisikoa edo auzo komunitatea bada, III. eranskineko 10 bis atalak jasotzen duen moduan.*

*Por el contrario, la Ley Española del IVA sí incluye en el tipo reducido las ejecuciones de obra de renovación y reparación realizadas en edificios o partes de los mismos destinados a viviendas, cuando el destinatario es persona física o una comunidad de vecinos, como recoge el número 10 bis del Anexo III.*

*Ziur asko, zenbait produkturen konponketarako BEZa murrizteak, neurri batean, lagunduko luke "erabili eta botatzearen" kulturari aurre egiten eta kontsumitzaileen jarrera aldatzen, hondakinak eta isurketak murrizten, edo enplegu maila handia duten etxeko konponketen zerbitzuen prestazioa sustatzen.*

*Seguramente, reducir el IVA de las reparaciones de ciertos productos podría contribuir en cierto sentido a hacer frente a la cultura de “usar y tirar” y fomentar un cambio de actitud en los consumidores, reducir la generación de residuos, reducir emisiones, o potenciar la prestación de servicios de*

*reparaciones domésticas intensivos en empleo.*

*Bestalde, Hiri Berdea 2030 "Donostiako Ingurumen Estrategia"ko Joko Garbia estrategiaren bigarren ildoaren helburua da "hondakinen prebentzioa bultzatzea eta kudeaketa hobetzea, herritarren erantzunkidetasuna sustatuz". Zentzu horretan, materialen bizitza erabilgarria luzatzea da hondakinen sorrera prebenitzeko modu bat, konponketa txiki bat egitea berri bat erostea baino garestiagoa ez den heinean. Horrela, gainera, Donostian hain beharrezkoak diren lanpostuak sor daitezke.*

*De hecho, la Línea 2 de la estrategia Joko Garbia de Hiri Berdea 2030 "Estrategia Ambiental Donostia / San Sebastián" tiene como objetivo "impulsar la prevención y mejorar la gestión de los residuos fomentando la corresponsabilidad de la ciudadanía". En ese sentido, una forma de prevenir la generación de los mismos es alargando la vida útil de los materiales, de manera que una pequeña reparación no sea más cara que la adquisición de uno nuevo. Lo que a su vez puede generar nuevos empleos tan necesarios en Donostia.*

*Espainiak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean, Zuzentarauko III. eranskineko 19. atalean zerrendaturiko konponketa zerbitzu txikiak sar ditzake tasa murriztua duten zerbitzuen prestazioen artean. Beste produktu batzuen konponketa zerbitzuak, etxetresna elektrikoak konpontzea adibidez, EBk hala erabakiz gero baino ezin daitezke zerrenda horretan sartu; izan ere, BEZa zeharkako zerga komuna da, eta hura arautzen duten zuzentarauek ezarritakoari jarraituz aplikatzen da gure herrialdean.*

*España puede incorporar en la Ley 37/1992 de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, a los pequeños servicios de reparación relacionados en el número 19 del Anexo III de la Directiva entre las prestaciones de servicios gravadas al tipo reducido. Ampliar la lista a otros servicios de reparación de productos, como electrodomésticos por ejemplo, solo podría hacerse si así lo acepta la UE, ya que el IVA es un impuesto indirecto de ámbito comunitario cuya aplicación en nuestro país se define por lo que establezcan las directivas que lo regulan.*

*Eta zeharkako zerga denez gero, definizioz, erregresiboa ere bada, kontsumitzaile guztiek berdin ordaintzen baitugu, gure ahalmen ekonomikoa edozein dela ere. Hori dela eta, gure ustez, positiboa da zuzeneko zergetara bideratzea zergen ordainketa, zergadunaren ahalmen ekonomikoa zergapetzen baitute, errenta edo ondarearen bitartez neurtuta. Gure administrazio publikoek diru gehiago bildu beharra dute, baina berdintasun eta progresibitate handiagoarekin.*

*Y como tributo indirecto que es, también es, por definición, regresivo, ya que los consumidores lo soportamos por igual independientemente de nuestra capacidad económica. Por eso entendemos que es positivo hacer bascular la tributación hacia los impuestos directos, que gravan la capacidad económica del contribuyente puesta de manifiesto a través de su renta o patrimonio. Nuestras administraciones públicas necesitan recaudar más, pero también hacerlo con mayor equidad y progresividad.*

*Halaber, 2012ko erreformaren ondorioz, kulturarako BEZa % 8tik % 21era aldatzeak kalte nabarmena ekarri dio kultur jarduerari, bai eta eduki berriak sortzeko ahalmena larri murriztea ekarri ere, hala, sektore hori hazteko aukerak itota geratu direlarik. Ondorioz, lanpostu ugari galtzeaz gain, ikusleak etengabe galduz doaz.*

*Así mismo, el aumento del IVA cultural del 8 al 21 % tras la reforma del 2012 ha provocado un claro deterioro de la actividad cultural y ha supuesto una drástica disminución de la capacidad de producir nuevos contenidos, de forma que ha ahogado las posibilidades del crecimiento de este sector. Se ha producido como consecuencia una pérdida importante de empleos y un descenso constante de público.*

*Herritar gehienei kultura eskuratzea galarazten die egoera horrek, sektorean ondorio txarrak izateaz gain, barne produktu gordinaren % 3 baino gehiago izan eta, zuzenean, miloi bat lanpostu baino gehiago sortu arren. Hortaz, noraezekoa da BEZ murriztua berreskuratzea sektore honentzat ere, Espainiako kultur ekoizpenari laguntzeko.*

*Esta circunstancia esta penalizando el acceso a la cultura de la gran mayoría de la ciudadanía y tiene un efecto negativo sobre el sector, que representa más de un 3 % del PIB y genera más de un millón de empleos directos. Es, por tanto,imprescindible la recuperación de un IVA reducido también en este sector para ayudar a la recuperación económica de la producción cultural en España.*

*BEZ orokor eta handi injustu horretaz jarduten, ez ditugu ahaztu behar beste salgai batzuk: emakumeen, haurren edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen higiene produktu intimoak eta preserbatiboak. Egun, konpresa, tanpoi eta preserbatiboek % 10 dute BEZa, eta, pixoihalek, % 21. Salgai horiek jo behar ditugu benetan diren modukotzat, hau da, behar-beharrezkotzat, eta, hala, ezin dute izan % 4tako BEZ supermurriztua baino txikiagorik. Preserbatiboei gagozkiela, antisorgailurik erabilienak dira Espainiako gizon eta emekumeen artean, eta, erakutsi duenez, eraginkorrena da bai sexu harremanen bidez kutsatzen diren gaixotasun eta infekzioak bai nahi izan gabeko haurdunaldiak prebenitzeko. Horien BEZak ere, hortaz, supermurriztua izan behar du.*

*Otros productos que no podemos olvidar al referirnos al injusto IVA de tipo general y elevado, es el de los productos íntimos de higiene femenina, infantil o de personas dependientes y los preservativos. Compresas, tampones o preservativos están gravados actualmente con un IVA de un 10% y los pañales con un 21 %. Estos productos deben considerarse como lo que son, bienes de primera necesidad y como tales no pueden seguir gravados con un IVA que no sea el superreducido del 4 %. En cuanto a los preservativos, éstos son el metodo anticonceptivo más usado en España entre la población de ambos sexos y se ha demostrado que es el más eficaz para prevenir todo tipo de enfermedades e infecciones de transmisión sexual o embarazos no deseados. Su IVA, por tanto, debe ser también de tipo superreducido.*

*Horiek horrela, Irabazi Donostia udal taldeak MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:*

*Por todo lo expuesto, el grupo municipal Irabazi Donostia presenta la siguiente:*

*MOZIO ARRUNTA*

*1. Donostiako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio % 10eko tasa murriztua aplika dezala BEZari buruzko Zuzentarauko III. eranskineko 19. atalean zerrendaturiko konponketa zerbitzu txikietan, horrek lagunduko bailuke Hiri Berdea 2030 "Donostiako Ingurumen Estrategia"ko Joko Garbiaren helburu hau lortzen: "hondakinen prebentzioa bultzatzea eta kudeaketa hobetzea, herritarren erantzunkidetasuna sustatuz".*

*2. Donostiako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bultza ditzala beharrezkoak diren erreformak, eskumena duten foro komunitarioetan, BEZaren % 10eko tasa murriztua aplikatu ahal izateko etxeko konponketa zerbitzuetan, hala nola etxetresna elektrikoen konponketan.*

*3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Espainiako Gobernuari % 10etako BEZ murriztua ezartzea mota guztietako kultur ikuskizunetara sartzeko eskubideari (antzerkiak, feriak, kontzertuak, museoak, zinemak eta 2006/112/CE Zuzentarauko III. eranskineko 7. puntuan jasotako guztiak), hala, kultur sektorearen ekonomia suspertzeari eragiteko.*

*4. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Espainiako Gobernuari % 4tako BEZ supermurriztua ezartzea osasuna zaindu eta prebenitzeko produktuei (esaterako, emakume, haur eta lagundu beharra duten pertsonenak), bai eta antisorgailuei zein konpresa, tanpoi, pixoihal eta 2006/112/CE Zuzentarauko III. eranskineko 3. puntuan jasotako guztiei ere". ===================================*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno del Estado a aplicar el tipo reducido del 10% a los pequeños servicios de reparación relacionados en el número 19 del Anexo III de la Directiva del IVA, lo que favorecería el objetivo de Joko Garbia de Hiri Berdea 2030 "Estrategia Ambiental Donostia / San Sebastián" de "impulsar la prevención y mejorar la gestión de los residuos fomentando la corresponsabilidad de la ciudadanía".*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno del Estado a impulsar, en los foros comunitarios competentes, las reformas necesarias que permitan aplicar el tipo reducido del 10% en el IVA a los servicios de reparaciones domésticas, como electrodomésticos.*

*3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno de España a aplicar el tipo reducido del IVA del 10 % al derecho de acceso a espectáculos culturales de todo tipo como teatros, ferias, conciertos, museos, salas cinematográficas y todos aquellos recogidos en el punto 7 del Anexo III de la Directiva 2006/112/CE para impulsar así la recuperación económica del sector cultural.*

*4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno de España a aplicar el tipo superreducido de IVA del 4 % a los productos para el cuidado de la salud y prevención como los de higiene femenina, infantil o de personas dependientes, así como de los contraconceptivos como compresas tampones, pañales, preservativos, y todos aquellos recogidos en el punto 3 del Anexo III de la Directiva 2006/112/CE". ===================================*

*Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamazazpiko otsailaren bian".*

*Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a dos de febrero de dos mil diecisiete".*

O. E. - Vº Bº :

ALKATEAK - EL ALCALDE,

Eneko Goia Laso.

---------------

**11. Mozio arrunta, IRABAZI Taldeak aurkeztua, isilpeko ehizari zigorrak ezartzeari buruzkoa.**

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre sanciones a la caza furtiva.**

**KENDUA.**

**RETIRADA.**

Loïc Alejandro jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen en este punto el señor D. Loïc Alejandro y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**12. Mozio arrunta, IRABAZI Taldeak aurkeztua, Argitu programa dela-eta.**

**12. Moción ordinaria, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre el programa Argitu.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Argitu programa dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre el Programa Argitu.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

2015eko martxoaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan dauka ARGITU programa, Gipuzkoako etxeetan argindarraren kontsumoa modu erraz eta sinple batean murriztea sustatzeko. Foru Aldundiko Ingurumen Sailak onartu duen bezala, energia noiz eta nola kontsumitzen dugun jakinda, %10eraino aurreztu dezakegu urteko faktura energetikoa. Programa hori Gipuzkoako etxe guztietara zabalduz gero, posible litzateke lurraldeko bideak eta bidegorriak hiru urtez argiztatzea.

Desde marzo de 2015 la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene en marcha el programa ARGITU, al objeto de impulsar la reducción del consumo de energía eléctrica de un modo fácil y sencillo en las viviendas del territorio. El propio departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral reconoce la importancia de conocer cuándo y cómo consumimos la energía ya que este hecho nos va permitir ahorrar hasta un 10% en nuestra factura energética anual. Si tal programa se extendiera a todos los hogares gipuzkoanos, sería posible iluminar las carreteras y bidegorris del territorio durante tres años.

Hauxe da programan erabilitako sistema: etxeko argindar kontsumoa neurtzeko gailu digital bat jartzen da, ARGITU programan izena eman dutenen etxebizitzetako kaxa elektrikoan. Neurgailu hori webgune bati lotuta dago; hala, erabiltzaileek beren etxeko kontsumoaren datuak kontsultatu eta alderatu ditzakete, baita kontsumo hori eragiten duten baldintzatzaileak eta beste datu batzuk ere. Hauek dira lortutako emaitzak: argindar kontsumoa % 5,87 murriztea eta 32,65 tona CO2 isurtzea saihestea.

El sistema utilizado por este programa es a través de la instalación en el cuadro eléctrico de las viviendas de los hogares apuntadas al programa ARGITU un medidor digital del consumo eléctrico del hogar. Este aparato está vinculado a una página web, de modo que el usuario puede consultar y comparar los datos de consumo de su vivienda, así como los condicionantes que determinan dicho consumo y otros datos. Los datos obtenidos han sido los siguientes: reducción energética de un 5,87% y que no se emitan 32,65 toneladas de CO2 .

Ekimen pilotu horretan, Gipuzkoako 50 udalerritako 400 familiak hartu dute parte. Ekimenari esker, kontsumitzen duen argindarraren berri izan dute denbora errealean, eta, hala, faktura elektrikoari buruzko informazio asko jaso ahal izan dute. Ondorioz, energia aurrezteko erabakiak hartu ahal izan dituzte familiek.

En esta iniciativa piloto han participado un total de 400 familias de 50 municipios gipuzkoanos gracias a la que han podido conocer su consumo de luz en tiempo real, lo que les ha permitido obtener la máxima información de la factura eléctrica de modo que este hecho les ha permitido poder tomar decisiones encaminadas al ahorro de energía.

Programaren bitartez, aurrezteaz gain, izena eman duten pertsonen etxeak eta egoerak aztertzeko aukera egon da. Eta hauxe da lortutako informazioa: fakturaren kostua murrizteko eman dute izena parte hartzaileen % 30ek. Era berean, ikusi dute etxebizitzen % 92k isolamendu eskasa dutela eta programan izena eman duten familien % 100ek dutela interesa energia berriztagarriak jartzeko.

El programa, además del ahorro señalado, ha permitido analizar los hogares y circunstancias de las personas que se han inscrito. Y así se ha podido extraer la siguiente información: un 30% de las personas se han inscrito al objeto de reducir el coste de la factura. Igualmente se ha observado que el 92% de las viviendas tienen un aislamiento deficiente y al 100% de los hogares inscritos en el programa estaría interesado en instalar energías

Energia eraginkortasuna hobetzeko beharraz jabetuta, Donostiako Udalak araudiak onartu ditu, eraikinetako eraginkortasun energetikoari eta ingurumen kalitateari buruzko Ordenantza kasu; eta udal eraikinetan neurriak ezarri ditu. Halaber, badaki herritar batzuek zailtasunak dituztela argindarraren fakturari aurre egiteko. Hori dela eta, 2016ko ekainaren 8an, hitzarmena egin zuen Iberdrolarekin, ez dezaten hornidura elektrikoa moztu arazo ekonomikoen ondorioz faktura ordaindu ezin duten familien etxeetan.

Horiek horrela, MOZIO ARRUNT hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio zabal dezala Argitu programa Donostiako etxe guztietara, baita Gipuzkoa osora ere, energia nabarmen aurrezteko.

2. Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio handitu ditzala udalei zuzendutako diru-laguntzak, eraikinak era efizientean birgaitzeko.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

renovables.

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, consciente de la necesidad de mejorar la eficiencia energética, ha ido aprobando tanto normativa al respecto, como por ejemplo la Ordenanza de eficiencia energética y calidad ambiental de los edificios, como instalando en sus propios edificios medidas que la propician. Asimismo, es consciente de las dificultades de una parte de la ciudadanía para hacer frente al pago de la factura de la luz, por lo que con fecha 08-06-2016 formalizó un convenio con Iberdrola para evitar el corte del suministro eléctrico a aquellos hogares que por problemas económicos no pueden pagarlo.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a extender el programa Argitu a todos los hogares de Donostia / San Sebastián, así como al resto de Gipuzkoa, para lograr un ahorro energético notable.

2. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a ampliar la línea de subvenciones a los ayuntamientos dedicadas a la rehabilitación de edificios para que sean energéticamente eficientes.

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y Sr. Secretario, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**EAJ-PNV TALDEAK ETA PSE-EE TALDEAK BATERA AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA IN VOCE ZUZENDUA: / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA CONJUNTAMENTE POR EL GRUPO EAJ-PNV Y POR EL GRUPO PSE-EE CORREGIDA IN VOCE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**12. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hogeita seian izan zuen osoko

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintiséis de

bilera ohikoan, mozio arrunt hau onartu zuen, IRABAZI DONOSTIA taldeak Argitu programaren gainean aurkeztutakoa, bi zuzenketa eginda. Bat EH BILDU taldeak aurkeztua, erabaki zatiko aurreneko puntua kendu eta haren tokian beste bat sartzea, eta bestea EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek elkarren artean aurkeztua, in voce zuzendua, erabaki zatiko bigarren puntua ordezkatzea. Horiek horrela, hauxe da azkenean onartutako testua:

enero de dos mil diecisiete, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el Programa Argitu, que incorpora dos enmiendas aprobadas, una del Grupo EH BILDU de sustitución del punto primero de la parte dispositiva y otra enmienda conjunta de los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, corregida in voce, de sustitución del punto segundo de la parte dispositiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“2015eko martxoaz geroztik, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan dauka ARGITU programa, Gipuzkoako etxeetan argindarraren kontsumoa modu erraz eta sinple batean murriztea sustatzeko. Foru Aldundiko Ingurumen Sailak onartu duen bezala, energia noiz eta nola kontsumitzen dugun jakinda, % 10eraino aurreztu dezakegu urteko faktura energetikoa. Programa hori Gipuzkoako etxe guztietara zabalduz gero, posible litzateke lurraldeko bideak eta bidegorriak hiru urtez argiztatzea.*

*“Desde marzo de 2015 la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene en marcha el programa ARGITU, al objeto de impulsar la reducción del consumo de energía eléctrica de un modo fácil y sencillo en las viviendas del territorio. El propio departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral reconoce la importancia de conocer cuándo y cómo consumimos la energía ya que este hecho nos va permitir ahorrar hasta un 10% en nuestra factura energética anual. Si tal programa se extendiera a todos los hogares gipuzkoanos, sería posible iluminar las carreteras y bidegorris del territorio durante tres años.*

*Hauxe da programan erabilitako sistema: etxeko argindar kontsumoa neurtzeko gailu digital bat jartzen da, ARGITU programan izena eman dutenen etxebizitzetako kaxa elektrikoan. Neurgailu hori webgune bati lotuta dago; hala, erabiltzaileek beren etxeko kontsumoaren datuak kontsultatu eta alderatu ditzakete, baita kontsumo hori eragiten duten baldintzatzaileak eta beste datu batzuk ere. Hauek dira lortutako emaitzak: argindar kontsumoa % 5,87 murriztea eta 32,65 tona CO2 isurtzea saihestea.*

*El sistema utilizado por este programa es a través de la instalación en el cuadro eléctrico de las viviendas de los hogares apuntadas al programa ARGITU un medidor digital del consumo eléctrico del hogar. Este aparato está vinculado a una página web, de modo que el usuario puede consultar y comparar los datos de consumo de su vivienda, así como los condicionantes que determinan dicho consumo y otros datos. Los datos obtenidos han sido los siguientes: reducción energética de un 5,87% y que no se emitan 32,65 toneladas de CO2 .*

*Ekimen pilotu horretan, Gipuzkoako 50 udalerritako 400 familiak hartu dute parte. Ekimenari esker, kontsumitzen duen argindarraren berri izan dute denbora*

*En esta iniciativa piloto han participado un total de 400 familias de 50 municipios gipuzkoanos gracias a la que han podido conocer su consumo de luz en tiempo real, lo*

*errealean, eta, hala, faktura elektrikoari buruzko informazio asko jaso ahal izan dute. Ondorioz, energia aurrezteko erabakiak hartu ahal izan dituzte familiek.*

*Programaren bitartez, aurrezteaz gain, izena eman duten pertsonen etxeak eta egoerak aztertzeko aukera egon da. Eta hauxe da lortutako informazioa: fakturaren kostua murrizteko eman dute izena parte hartzaileen % 30ek. Era berean, ikusi dute etxebizitzen % 92k isolamendu eskasa dutela eta programan izena eman duten familien % 100ek dutela interesa energia berriztagarriak jartzeko.*

*Energia eraginkortasuna hobetzeko beharraz jabetuta, Donostiako Udalak araudiak onartu ditu, eraikinetako eraginkortasun energetikoari eta ingurumen kalitateari buruzko Ordenantza kasu; eta udal eraikinetan neurriak ezarri ditu. Halaber, badaki herritar batzuek zailtasunak dituztela argindarraren fakturari aurre egiteko. Hori dela eta, 2016ko ekainaren 8an, hitzarmena egin zuen Iberdrolarekin, ez dezaten hornidura elektrikoa moztu arazo ekonomikoen ondorioz faktura ordaindu ezin duten familien etxeetan.*

*Horiek horrela, MOZIO ARRUNT hau aurkezten dugu:*

*MOZIO ARRUNTA*

*1.- Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio osagarritasuna eta bateragarritasuna bila ditzala Argitu programaren eta Donostiako etxeetako argindarraren kontsumoa murrizteko Udalaren programen artean, eta ahalik eta etxebizitza gehienetara zabal dezatela murrizketa helburu*

*que les ha permitido obtener la máxima información de la factura eléctrica de modo que este hecho les ha permitido poder tomar decisiones encaminadas al ahorro de energía.*

*El programa, además del ahorro señalado, ha permitido analizar los hogares y circunstancias de las personas que se han inscrito. Y así se ha podido extraer la siguiente información: un 30% de las personas se han inscrito al objeto de reducir el coste de la factura. Igualmente se ha observado que el 92% de las viviendas tienen un aislamiento deficiente y al 100% de los hogares inscritos en el programa estaría interesado en instalar energías renovables.*

*El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, consciente de la necesidad de mejorar la eficiencia energética, ha ido aprobando tanto normativa al respecto, como por ejemplo la Ordenanza de eficiencia energética y calidad ambiental de los edificios, como instalando en sus propios edificios medidas que la propician. Asimismo, es consciente de las dificultades de una parte de la ciudadanía para hacer frente al pago de la factura de la luz, por lo que con fecha 08-06-2016 formalizó un convenio con Iberdrola para evitar el corte del suministro eléctrico a aquellos hogares que por problemas económicos no pueden pagarlo.*

*Teniendo en cuenta todo lo anterior, presentamos la siguiente:*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- El Ayuntamiento de San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que busque la complementariedad y la compatibilidad entre el programa Argitu y los programas municipales para reducir el consumo eléctrico en los hogares de San Sebastián, y a que extiendan a la mayoría de los hogares este*

*duen ekimen hori.*

*2.- Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio beste programa bat bultzatzeko, Argitu programatik ateratako ikasgai praktikoak gipuzkoar guztiei erakusteko".*

===================================

*iniciativa que persigue reducir el consumo.*

*2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a impulsar un nuevo programa que dé a conocer al conjunto de la ciudadanía guipuzcoana las enseñanzas prácticas obtenidas del programa Argitu".*

===================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamazazpiko otsailaren bian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a dos de febrero de dos mil diecisiete.

O. E. - Vº Bº :

ALKATEAK - EL ALCALDE,

Eneko Goia Laso.

---------------

## KONTROL MOZIOAK

**13. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, etxeko olioaren bilketa dela eta.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetan OGASUNEKO BATZORDEAn Jaime Dominguez-Macaya jaunari egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Hondakinei buruzko batzordean, hiriko hondakinen kudeaketaren gaineko azterketa xehea egiten ari dira, defizit metatua murrizteko

## MOCIONES DE CONTROL

**13. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre la recogida selectiva del aceite doméstico.**

"Amaia Martin Garin, portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo del Reglamento Orgánico del Pleno, realiza la siguiente MOCIÓN DE CONTROL fruto de la interpelación a D. Jaime Dominguez-Macaya, en la COMISION DE HACIENDA de este mes.

JUSTIFICACION

Dentro de la comisión de residuos se está llevando a cabo un análisis pormenorizado de la gestión de los residuos en la ciudad al objeto de tratar de

asmoz. Landu beharreko gaien artean, deigarria iruditzen zaigu olioa tratatzeak ez ekartzea inongo diru-sarrerarik.

reducir el deficit acumulado. Entre los numerosos aspectos a tratar, nos llama la atención que el tratamiento del aceite no revierta ningún ingreso.

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen helburuetako bat da, 2020. urterako, etxeetan eta saltokietan sortutako hondakin guztien pisuaren % 50, gutxienez, osatzea paperak, metalek, beirak, plastikoak, biohondakinek edo birzikla daitezkeen beste hondakin batzuek. Ingurumen sostengagarritasunean aurrera egiteko, beharrezkoa da gehiago eta hobeto birziklatzeko neurriak garatzea. Beraz, beharrezkoa da gizartearen kontzientzia handitzea: sortzen ditugun hondakinen gaineko erantzukizun indibiduala eta kolektiboa izatea. Gaur egun birziklatzen den olio kopurua handitzeko neurriak behar dira. Mila litro ur kutsa daitezke litro bat oliorekin soilik.

La Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados ya recoge como objetivo que antes de 2020, la cantidad de residuos domésticos y comerciales destinados a la preparación para la reutilización y el reciclado para las fracciones de papel, metales, vidrio, plástico, biorresiduos u otras fracciones reciclables deberá alcanzar, en conjunto, como mínimo el 50% en peso. Al objeto de avanzar hacia un entorno medioambientalmente sostenible, es preciso desarrollar medidas que permitan reciclar más y mejor. Por tanto, es preciso aumentar la concienciación social: la responsabilidad individual y colectiva con los residuos que generamos. Son necesarias medidas que nos permitan aumentar la cantidad de aceite que se recicla actualmente. Con tal solo un litro de aceite se llegan a contaminar mil litros de agua.

Azaroaren 29an, Gobernu Batzarrak onartu zuen etxeko olio erabilia edukiontzietan bildu, eraman, birziklatu eta berrerabiltzeko kontratua luzatzea, Udalak ezer ordaindu gabe.

En la Junta de Gobierno Local celebrada el pasado 29 de noviembre se ha procedido a la aprobación de la prórroga del contrato de servicios de recogida selectiva mediante contenedores, transporte, reciclaje y valorización de aceite doméstico usado sin coste para el ayuntamiento.

Batzordean, gure taldeak aurkeztutako interpelazioaren bitartez, galdetu genuen ea badagoen aukerarik irabaziak lortzeko etxeko olio erabilia birziklatuta, hondakinen kudeaketan metatu den defizita murrizteko irtenbideak bilatu nahian. Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen ez dela irabazirik ateratzen etxeko olioaren kudeaketa eta tratamenduarekin, eta horregatik erabaki zutela enpresa esleipendunari kontratua luzatzea. Irabazi Donostiaren ustez, hain zuzen ere, irabaziak ematen dituelako kudea dezake eta kudeatzen du zerbitzua enpresa esleipendunak. Bestela, ez luke egingo. Bestalde, kontzientziazio programak garatuz gero, olio birziklatuaren bolumena handituko

En la comisión correspondiente a través de la interpelación formulada por nuestro grupo, preguntamos sobre las posibilidades de poder obtener beneficios por el reciclaje del aceite usado, al objeto de buscar soluciones que permitan reducir el deficit acumulado en la gestión de residuos. El concejal delegado respondió que no se consiguen beneficios en la gestión y tratamiento del aceite doméstico y es por ello que se había decidido la prórroga del contrato a la empresa adjudicataria. Desde Irabazi Donostia entendemos que si la adjudicataria puede gestionar y gestiona el servicio es porque éste le reporta beneficios. De lo contrario no lo llevaría a cabo. Igualmente desarrollar programas de

litzateke eta horrek, zalantzarik gabe, irabaziak ekarriko lituzke.

Hori dela eta, uste dugu garrantzitsua dela, hondakinei buruzko batzordean planteatu zen bezala, olioa birziklatuta irabaziak lortzea eta, formula hori aplikatuta, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuan dagoen defizita murriztea.

Gainera, gure ustez, funtsezkoa da begirada altxatzea etxeko olioaren kudeaketa eta tratamenduaren alorrean, eta ikustea beste hiri batzuetan hainbat alternatiba proposatu dituztela, ekonomian ez ezik, enplegu sorreran ere eragina dutenak. Zaragozan, adibidez, duela gutxi erabaki dute mota horretako edukiontzien kopurua bikoiztea hirian. Hortaz, apustu egin dute, alde batetik, birziklapena areagotzeko eta, beste alde batetik, enplegua sortzeko. Gainera, aniztasun funtzionala duten pertsonei zuzenduta dago enplegua, enplegu zentro berezi baten bitartez. Edukiontzien kopurua handituta, sei pertsona gehiago kontratatu daitezke.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio etxeko olioa birziklatzeko edukiontzi gehiago jar ditzala, etxeko olio birziklatuaren kopurua handitzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio egin dezala etxeko olio erabiliaren birziklapena zuzenean kudeatzeari buruzko azterketa bat, zuzenean enplegua sortzeko aukerak ikusi eta kudeaketa horretatik irabaziak lortzeko.

concienciación podrán permitir aumentar el volumen de aceite reciclado y sin duda esto podría reportar beneficios.

Por ello, consideramos importante tal y como se planteó en la comisión de residuos que a través del reciclaje del aceite se consigan beneficios y pueda ser ésta una de las fórmulas a implementar al objeto de reducir el déficit que el servicio de recogida y gestión de residuos actualmente existente.

Es más, consideramos fundamental poder ampliar la vista en la gestión y tratamiento del aceite doméstico y así ver como en otras ciudades se plantean distintas alternativas no sólo de tipo económico sino de creación de empleo como por ejemplo la recientemente adoptada en Zaragoza donde se ha duplicado el numero de contenedores de este tipo presentes en la ciudad como una apuesta por la necesidad de aumentar el reciclaje sino también en cuanto a la creación de empleo, un empleo además para personas con diversidad funcional a través de un centro especial de empleo. La ampliación va a permitir contratar a 6 personas más.

Por todo ello, planteamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a instalar nuevos contenedores de reciclaje de aceite doméstico al objeto de incrementar la cantidad de aceite doméstico reciclado.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a llevar a cabo un estudio sobre la gestion directa el reciclaje del aceite doméstico usado al objeto de plantearse la posibilidad de generar empleo directo y obtener beneficios por tal gestión.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio kanpainak egin ditzala, oro har, birziklatzearen inguruan eta, bereziki, etxeko olioa birziklatzearen inguruan kontzientziatzeko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a desarrollar campañas de concienciación sobre el reciclaje en general y el relativo al aceite doméstico en particular.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**13. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**13. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**13. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**14. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, autobus geltokian bizikletak aparkatzeko dagoen euskarriari buruzkoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi Donostia taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren indarreko . artikuluaren babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Atotxako autobus geltokian bizikletak aparkatzeko dagoen euskarriari buruz Pilar Arana Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari GUNE PUBLIKOAK, OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK BATZORDEAN eginiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urtebete beteko da Donostiako autobus geltoki berria inauguratu zenetik. Geltoki berriko zerbitzuen artean, geltokiaren barruan bizikletak aparkatzeko euskarri estali bat jartzea planteatu zen. Bizikletak aparkatzeko euskarri hori amaituta dago duela hilabete batzuetatik, baina oraindik ez da ireki, eta horrek ardura, jakin-mina eta zalantza eragin du herritarren artean.

Lehentasunezkoa da hirian garraio jasangarriaren aldeko apustuan aurrera jarraitzea. Bizikletaz mugitzea apustu irmoa da

**14. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI, relativa al aparcabicis de la estación de buses.**

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL fruto de la interpelación a Pilar Arana, Concejala Delegada de Movilidad, en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS relativa al aparcabicis de la estación de autobuses de Atotxa.

JUSTIFICACIÓN

Se va a cumplir un año de la inauguración de la nueva estación de autobuses de Donostia / San Sebastián. Entre los servicios de la nueva estación estaba planteado la existencia de un aparcabicis cubierto dentro de la misma estación. Dicho aparcabicis está terminado desde hace varios meses, pero aún no se ha abierto, provocando incomprensión, curiosidad y perplejidad en la población.

Es prioritario seguir avanzando en la apuesta por un transporte sostenible en la ciudad. La movilidad en bicicleta es una apuesta firme y por ello

eta, hori dela eta, eskura dugun baliabide kopuru handiena eman behar dugu, herritarrei garraiobide horren erabilera errazteko, beharrei erantzuten dien bidegorrien sarearen bidez eta garraiobide hori erabiltzeko bide ematen duten baliabide batzuen bitartez, besteak beste, bizikletak aparkatzeko euskarri estalien bidez. Aparkalekua autobus geltokian egotea intermodalitatearen aldeko apustu argia da, eta, hori dela eta, hura ahalik eta baldintzarik onenetan egin behar da, alegia, espazio estaliarekin, seguruarekin eta erabiltzaileentzako erosoarekin.

debemos de proporcionar el máximo número de recursos a nuestro alcance para facilitar a la ciudadanía el desarrollo de este medio de transporte con una red de bidegorris acordes a las necesidades y una serie de recursos que faciliten el uso de este medio de transporte, como pueden ser los aparcabicis cubiertos. Siendo el aparcamiento en la estación de autobuses una apuesta clara por la intermodalidad es preciso que la misma se haga en las mejores condiciones posibles, es decir, contando con un espacio cubierto, seguro y cómodo para los usuarios.

Gure taldeak autobus geltokian bizikletak aparkatzeko euskarria egitea txalotzen du, baina ikusten dugu denbora aurrera doala eta oraingoz bizikletak aparkatzeko euskarri horrek itxita jarraitzen duela. Dagokion batzordean, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak jakinarazi zigun bizikletak aparkatzeko euskarria ez zela ireki, oraindik ez zelako obra onartu. Muriasekin arazorik ote zegoen edo zailtasun judizialak eragin ditzakeen bestelako arazorik ote zegoen galdetzean, zinegotzi ordezkariak horrelako arazorik ez zegoela erantzun zuen.

Desde nuestro grupo aplaudimos la realización del aparcabicis de la estación de autobuses, pero hoy, sin embargo, vemos que pasa el tiempo y el citado aparcabicis sigue sin abrirse al público. En la comisión correspondiente la Concejala Delegada de Movilidad nos informó que el aparcabicis no se abría porque aun estaba sin recepcionar la obra. Cuando preguntamos si existía algún conflicto con Murias u otro problema que pueda provocar complicaciones de carácter judicial, la Concejala Delegada contestó que no había ningún problema de esas características.

Deigarria da geltokia martxan egotea erabat urtebetetik hona eta obra onartu ez izana oztopo ez izatea, eta, aldi berean, hura onartu ez delako ezin abian jartzea bizikletak aparkatzeko euskarria.

Resulta llamativo que la estación esté funcionando en su globalidad desde hace un año sin que la no recepción de la obra haya sido un obstáculo, y que al mismo tiempo por no haberse realizado esa recepción, no se pueda poner en marcha el aparcabicis.

Zinegotzi ordezkariak emandako azalpenak kontuan hartuta, ulertzen dugu ez dagoela oztopo garrantzitsurik obra onartzeko, eta prozesu horrek dagokion bidetik jarraitzen duela. Gure ustez lehentasuna eman behar zaio, bizikletak aparkatzeko euskarria ahalik eta lasterrena abian jartzeko.

Entendemos, por las explicaciones dadas por la Concejala Delegada, que no hay obstáculo importante para proceder a la recepción de la obra, y que ésta sigue su curso. Consideramos necesario otorgarle un carácter prioritario al objeto de poner en marcha el aparcabicis lo antes posible.

Hori guztia dela eta, honako hau aurkezten dugu:

Es por ello que presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaleko Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio Donostiako Autobus Geltokian jarri duten bizikleten aparkalekuaren obra ahalik eta lasterrena onartzeko, zerbitzu hori lehenbailehen eman ahal izateko herritarrei.

2. Donostiako Udaleko Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio herritarrei bizikletak aparkatzeko euskarri estalien hurrengo proiektuen berri emateko.

3. Donostiako Udaleko Udalbatzak gobernu taldeari eskatzen dio intermodalitatea sustatu ahal izateko formulak aztertzeko eta, horretarako, garraio publikoaren eraginkortasuna bizikletaren erabilera osasungarriarekin eta ekologikoarekin konbinatzeko, mugikortasun jasangarria lortze aldera.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a recepcionar la obra del aparcamiento de bicicletas cubierto de la Estación de Autobuses de San Sebastián a la mayor brevedad al objeto de poder dar este servicio a la ciudadanía lo antes posible.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a dar cuenta a la ciudadanía de los siguientes proyectos de aparcabicis cubiertos.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a estudiar fórmulas que permitan fomentar la intermodalidad, combinando la eficiencia del transporte público con el uso saludable y ecológico de la bicicleta, al objeto de conseguir una movilidad sostenible.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**15. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, Hipika pareko markesina dela-eta.**

**15. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI, sobre la marquesina situada a la altura de la Hípica.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 134. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, abenduko batzordean, Pilar Arana andreari, Mugikortasuneko eta Garraioetako zinegotziari, Hipika pareko markesinari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu genuen bezala, bai hedabideen bidez, bai Erregistro Nagusiaren bidez, kexa bat aurkeztu da, ez dagoelako markesinarik Hipika bideko geltokian. Amaratik abiatuta eskuinaldean dago, eta 26., 31. eta 41. lineetako geltokia da.

Gure interpelazioari erantzunez, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen markesina ez dela berriz ere jarri, geltoki horretan oso jende gutxi ibiltzen delako. Hala ere, gure talde politikoari deigarria egiten zaio horrelako erantzun bat ematea, lehentasuna ematen badiogu zerbitzu publikoak kalitatezkoak izateari. Lurraldearen garapenaren ardatz izanik, garraio sostengagarriaren alde egin daiteke soilik zerbitzuen kalitatearen aldeko apustu sendoa eginda. Eta oinarrizkoa da gure hirian dugun klima motatik babesteko markesinak edukitzea, jakina. Duela hilabete batzuk, antzeko ekimena aurkeztu genuen hiriko beste auzo batzuetarako. Leku horietako batzuetan markesinak jarri dituzte.

Kasu zehatz honetan, deigarria da geltoki horretan lehen markesina egon izana eta abuztuan hura kentzea erabaki izana. Hirian egiten duen eguraldia kontuan hartuta, gure iritziz nahitaezkoa da elementu hori berriz ere jartzea. Beharrezkoa da kalitatezko zerbitzu publiko baten alde lan egiten jarraitzea, eta,

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, realiza la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación a Dña Pilar Arana, concejala de Movilidad y Transportes en diciembre en comisión en relación a la marquesina situada a la altura de la Hipica.

JUSTIFICACION

Tal y como presentamos en la comisión correspondiente, tanto en medios de comunicación como a través del registro general se ha presentado una queja relativa a la ausencia de marquesina en la parada del camino de la Hipica, situada a la derecha desde Amara, y que sirve de parada para las líneas 26, 31 y 41.

Ante nuestra interpelación la concejala delegada informó que no se procedía a la reposición de la marquesina ya que era una parada muy poco transitada. Sin embargo, desde nuestro grupo político, nos llama la atención que se dé una respuesta de tal calibre máxime si consideramos prioritario que los servicios públicos sean de calidad. La apuesta por un transporte sostenible como eje de actuación en el desarrollo del territorio solamente es posible con una apuesta firme por la calidad de tales servicios y desde luego eliminar marquesinas que permiten resguardarse en una ciudad con un clima como el nuestro es básico. Hace unos meses presentamos una iniciativa similar para otras actuaciones en otros barrios de la ciudad. En algunos de esos puntos se ha procedido a colocar marquesinas.

En este caso concreto llama la atención que previamente ha habido marquesina en tal parada y se haya decidido quitar en el mes de agosto. Teniendo en cuenta la climatología de la ciudad, consideramos necesario que se proceda a reponer tal elemento. Es preciso seguir trabajando en la defensa de un servicio público de calidad, para lo

horretarako, are beharrezkoagoa da horrelako oinarrizko zerbitzu baten premiak asetzea. Era berean, nahitaezkoa da itxaronaldien inguruko informazio panelak jartzea geltokietan, erdigunean ez ezik, auzoetan ere bai.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio berriro jar dezala Hipika bideko geltokiko markesina, auzo horretako bizilagunei kalitatezko oinarrizko zerbitzua eskaintzeko.

2. Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio egin dezala azterketa bat markesinarik gabeko eta informazio panelik gabeko geltokien inguruan, geltoki guztietan ipintzeko elementu horiek kalitatezko zerbitzua eskaintze aldera.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

que es más que necesario atender a las necesidades que requiere un servicio básico como éste. Para ello igualmente es preciso implantar paneles informativos sobre tiempos de espera en las paradas, no sólo en el centro, también en los barrios.

Por todo ello, planteamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Equipo de Gobierno a reponer la marquesina de la parada del camino de la Hipica al objeto de ofrecer un servicio básico de calidad a los vecinos del barrio.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Equipo de Gobierno a realizar un estudio de las paradas sin marquesinas y sin paneles informativos al objeto de colocar en todos ellos tales elementos para dar un servicio de calidad.

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D. Jon Insausti Maisterrena y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**17. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Udalinfon aurkezturiko kexez egindako interpelazioaren ondorioz.**

“Talde Popularreko zinegotzi Jose Luis Arrue Pintok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2016ko abenduaren 12an izan zuen bileran Udalinfon aurkezturiko kexez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo ekainaren 7an, 8an eta 14an, kontsulta batzuk egin zituen herritar batek Uldainfo bidez (57336,573EE eta 5810A gakoak), erantzunik jaso gabe, gaia zelarik ekainaren 17an eta 18an gauez izan berbenek baimenik ba ote zuten jakiteko asmoz. Uztailaren 26an, Udalinfok ondokoa erantzun zion: “F agurgarria, eskerrik asko zure interesagatik. Laster batean erantzungo dizu festez arduratzen den atalak. Ondo segi”.

Urriaren 1ean, Udalinfo bidez (60EA2 gakoa) ohar bat aurkeztu du, eta “gure galdera datorren urterako gordeko dutela” dio.

Azkenik, azaroaren 15ean Udalinforen mezu bat jaso zuen, ondokoa: “F agurgarria. Uztailaren 26an igorri genizun zure kexari buruzko erantzuna”. Ez dago zertan besterik esan.

Batzordea elkartu baino egun batzuk arinago, Donostia Festak-en erantzuna jaso zuen herritarrak, hutsagatik barkatzea eskatu eta gaiari buruzko argibideak emanda. Halere, neurririk zertan harturik ez zegoela adierazi ziguten. Zinegotzi ordezkaria elkartu da

**17. Moción de control presentada por el Grupo PP, relativa a algunas quejas presentadas en Udalinfo.**

“D. José Luis Arrue Pintó, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 12 de Diciembre de 2016, relativa a algunas quejas presentadas en UDALINFO.

JUSTIFICACION

Un ciudadano presentó los días 7,8 y 14 de Junio de este año por medio de Udalinfo (claves 57336,573EE y 5810A ) unas consultas sin recibir respuesta alguna interesándose por la autorización o no de las verbenas en la Plaza de los Prebostes ( noches del 17 y 18 de Junio ). El día 26 de Julio recibe de Udalinfo el siguiente mensaje : “Estimado F. Gracias por su interés. La contestación a su pregunta la hará próximamente el Departamento de Festejos. Saludos.”

El día 1 de Octubre a través de Udalinfo ( clave 60EA2 ) presenta nota diciendo que guarden nuestra pregunta para el año próximo.

Finalmente, el pasado 15 de Noviembre recibe de Udalinfo un mensaje que dice: “Estimado F. La respuesta a sus quejas se le remitió el día 26 de Julio”. Sin comentarios.

Días antes de la comisión el ciudadano recibió la respuesta de Donostia Festak solicitándole disculpas por el error y facilitando información al respecto, sin embargo se nos dijo que no había lugar a adoptar medidas. El Concejal Delegado se ha reunido con el ciudadano.

herritarrekin.

Hori dela eta, Talde Popularrak honako MOZIO hau egin du:

Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari, kontua aztertu eta analizatu ondoren, beharrezko neurri teknikoak jartzea, halako gorabeherarik ez izateko herritarren kexa eta iradokizunak izapidetzean, hori guztia herritarrak artatzeko zerbitzua etengabe hobetzeko ariaren barruan.

Donostian, 2016ko abenduaren 15ean

José Luis Arrue Pintó,
Talde Popularreko zinegotzia".

Por cuanto antecede, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, tras el estudio y análisis oportuno, implemente las medidas técnicas necesarias para que en la tramitación de las quejas y sugerencias ciudadanas no se produzcan este tipo de disfunciones, todo ello dentro del proceso de mejora constante que necesita el servicio de atención ciudadana.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Diciembre de 2016

José Luis Arrue Pintó
Concejal del Grupo Popular".

Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**18. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, dBizi sistemari buruzkoa.**

"Alderdi Popularreko zinegotzi Jose Maria Murguiondo Casalek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak

**18. Moción de control presentada por el Grupo PP, relativa a Dbizi.**

"Doña José María Murguiondo Casal, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada

(Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko abenduaren 12an izan zuen bileran dBizi sistemari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Taldeak urte eta erdi darama jardunean. Udal arduradun berriak iritsi zirenetik, eta dBizi sistemaren kudeaketari helduz (gure hirian bizikleta elektrikoak alokatzeko sistema), jakinarazi digute hirian gainbehera zihoan sistema bat berpizten ahalegindu direla. Gogorarazi beharra dago, orain urtebete eskas, bandalismoak kalte handiak eragin zizkiela bai bizikletei eta bai horiek aparkatzeko erabiltzen ziren geltokiei ere. Bizikleten erdiak baino gehiago zaharkituta edo konpontzeko zeuden, eta horrexegatik erabiltzaileek ezin zituzten erabili. Zinegotzi Ordezkariak Batzordearen aurrean adierazi zuen Udal Gobernura arduradun berriak iritsi zirenean sistema hori egoera benetan larrian zegoela.

Hala, Gobernu Talde berriak finkatu zuen lehen helburua, hain hondatua zegoen bizikleta alokairu publikoaren sistema hura herritarrentzat eskuragarri egon zedila bermatzea izan zen eta, horretarako, ainguratze sistema berri sendoagoak prestatu zituzten, eta zenbait geltoki ere berritu zituzten. Hala eta guztiz ere, sistema horrek berezkoak zituen beste arazo batzuk konpontzeko zeuden oraindik, eta Gobernu Taldeak horiei helduko ziela hitzeman zuen.

Talde politiko honek zenbait aldiz galdetu izan du herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuari buruz, baita erabilitako sistemari berari buruz ere. Urtearen hasieran, Mugikortasuneko Departamentuak adierazi zigun 2016. urte osoko epea hartuko zutela erabakitzeko zer neurri hartuko zituzten bizikleten eta geltokien ezarpena hobetzeko, eta era berean, hiriaren goialdeko auzoetara zerbitzu publikoa eskaintzeko, horietara ere iritsi behar dutelako, jakina; izan ere, zerbaitetarako ditugu hirian

ante la Comisión de Espacio Público. Obras Y Servicios Urbanos, celebrada el día 12 de Diciembre de 2016, relativa a dBizi.

JUSTIFICACION

El Equipo de Gobierno lleva ya en sus funciones un año y medio. Desde que llegaron los nuevos responsables municipales, y en relación a la gestión de dBizi (sistema de alquiler de bicicletas eléctricas en nuestra ciudad), nos cuentan que se han encargado de reflotar un sistema que estaba de capa caída en nuestra ciudad. Hay que recordar que, hace apenas un año, el vandalismo se cebaba con las bicis y con las estaciones donde se aparcan. Más de la mitad de las bicicletas estaban en desuso o en reparación, por lo que no estaban disponibles para los usuarios. La Concejal Delegada afirmó en Comisión que cuando llegaron los nuevos responsables al Gobierno Municipal la situación del sistema era límite.

El objetivo marcado por el nuevo Equipo de Gobierno fue, en primer lugar, garantizar el acceso de la ciudadanía al sistema de alquiler público de bicicleta tan deteriorado y, para ello, se acondicionaron nuevos sistemas de anclaje, más robustos, y se renovaron algunas estaciones. Sin embargo, quedaron pendientes de resolver otras cuestiones propias del sistema, y que el Equipo de Gobierno prometió poner en marcha.

Este Grupo político ha inquirido, en varias ocasiones, sobre el servicio que se presta a los ciudadanos y sobre el sistema en sí. A comienzos de año, se nos dijo que el Departamento de Movilidad se iba a dar de plazo todo el año 2016 para decidir qué medidas adoptar de cara a mejorar la implementación de bicis y estaciones, y de ofrecer servicio público a los barrios altos de la ciudad, a los que deben llegar, también; pues para algo contamos con bicis eléctricas en nuestra ciudad. Estos eran, en esta materia, los

bizikleta elektrikoak. Horri begira, Gobernu Taldeak bere garaian honako konpromiso hauek hartu zituen: Erantzukizunez jokatu dugu eta ezarritako hausnarketa aldia errespetatu dugu.

compromisos adoptados en su día por el Equipo de Gobierno. Hemos obrado con responsabilidad y respetado el período de reflexión establecido.

Gainean dugu urtearen amaiera eta iritsi da dBizi sistemaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa prozesu luze honen emaitza azaltzeko ordua. Eta halere, jakinarazi digute –hedabideen bitartez, nola ez– erabakiak hartzea urtebete gehiago atzeratuko dela 2017. urtearen amaiera aldera arte. Alegia, bi urte eta erdiko hausnarketa egingo du Gobernu Taldeak, eta guri, behinik-behin, denbora tarte luzeegia iruditzen zaigu horrelako gai bati buruzko erabakiak hartzeko, batez ere Donostiakoa bezalako Udal batean.

Llega el final de año y es el momento de explicar el resultado de este largo proceso de reflexión sobre el funcionamiento de dBizi. Y, sin embargo, se nos anuncia –cómo no, a través de los medios de comunicación- que la toma de decisiones se aplaza un año más, hasta finales de 2017. Esto es, dos años y medio de reflexión por parte del Equipo de Gobierno, un plazo de tiempo que parece excesivo para la toma de decisiones sobre un asunto de este tipo por parte de todo un Ayuntamiento de San Sebastián.

Baina bien bitartean, bizikletaren sistema publikoa maiztasun batez erabiltzen duten edo erabili nahi duten erabiltzaileei oztopoak jartzen zaizkie, horretaz baliatzeko orduan zailtasun handiak topatzen dituztelako. Eta aurreikuspenek ez diote egoera hobetuko denik. Are gehiago, kontuan hartzen badugu ez dela proposamenik egiten 2017. urte osoan barrena bizikletaren zerbitzu publikoa eskaintzeko eta goialdeko auzoetara iristeko.

Pero, mientras tanto, se está penalizando a los usuarios que usan o que quieren hacer uso del sistema público de bicicleta de una manera asidua, pero que se encuentran con notables dificultades para hacerlo. Y las previsiones no auguran una mejora del panorama. Más aún, cuando se nos anuncia que no se plantean ofrecer servicio público de bicicleta y cubrir los barrios altos durante todo el año 2017.

Zinegotzi Ordezkariak azken Batzordean adierazi zuen sistema honi buruz joan den agintaldian sinatutako kontratua “kontratu irreal” bat zela, eta sistema hori jasangarria izatea erdiesten ez bada neurri zorrotzagoak hartuko dituztela. Dirudien bezala, Mugikortasuneko Departamentuak eta Gobernu Taldeak arazoa zertan datzan baldin badakite, ezin dugu ulertu urtebete gehiago behar izatea halako erabakiak hartzeko. Eta ezin dugu ulertu, halaber, profesional batek “Udalaren premietatik haratago” doan ikerketa lan bat egin arte zain egon beharra ere, Zinegotzi Ordezkariak adierazi zuen moduan.

La Concejal Delegada dijo en la última Comisión que el contrato que se firmó durante el anterior mandato sobre el sistema es un “contrato irreal”, y que si no se consigue que el sistema sea sostenible se tomarán medidas más drásticas. Si, como parece, el Departamento de Movilidad y el Equipo de Gobierno tienen detectado el problema, no se entiende que sea necesario un año más para tomar decisiones. Ni esperar al trabajo de investigación de un profesional cuyo estudio va “más allá de las necesidades del Ayuntamiento”, como señaló la Concejal Delegada.

Talde Politiko honen iritziz, ezin da urtebete

Este Grupo Político entiende que no se puede

gehiago atzeratu hiri osoari zerbitzu bat eskaini nahi dion eta kutsadurarik eragiten ez duen eta Ingurumenarekin begirunetsuagoa den garraiobide bat erabil dadila sustatu nahi duen zerbitzu publiko honi buruzko erabakiak hartzea. Gogoratu beharra dago aurten gure hiria Europar Batasuneko Kulturaren Hiriburu izan dela, eta Hiriburutzaren ibilgailu “ofiziala” bizikleta izan dela zabaldu dugula lau haizeetara. Urtearen amaieran balioetsi egin beharko dugu alderdi horretan ere nahikoa maila eman dugun.

Erabakiak hartzea gehiago ez atzeratzearren eta herritarrei kalte egiten ez jarraitzearren, Talde Popularrak ondorengo MOZIO hau aurkeztu nahi du:

Donostiako Udal Batzarrak Alkateari eta Gobernu Taldeari eskatu nahi die, 2017ko lehen hiruhilekoan, Donostiako bizikleta sistema publikoari (dBizi) buruzko proposamen benetako eta iraunkor bat aurkeztu diezaietela Talde Politikoei, herritarrei eta bisitatzen gaituztenei zerbitzu on bat eman diezaiegun, eta zerbitzu hori goialdeko auzoetara ere hedatu dadin beharrezkoak diren aurreikuspenak ere gehitu ditzatela.

Donostian, 2016ko abenduaren 15ean

José María Murguiondo Casal
Talde Popularreko zinegotzia”.

demorar un año más la toma de decisiones sobre un servicio público que trata de dar servicio al conjunto de la ciudad, y fomentar el uso de un medio de transporte no contaminante y más respetuoso con el Medio Ambiente. Hay que recordar que este año nuestra ciudad ha sido Capital de la Cultura en la Unión Europea, y que hemos vendido que el vehículo “oficial” de la Capitalidad ha sido la bicicleta. Habrá que valorar al final de año si, también en este aspecto, se ha estado a la altura.

En aras de no eludir más la toma de decisiones, y no seguir perjudicando a la ciudadanía, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, en el primer trimestre de 2017, presenten a los Grupos Políticos un planteamiento real y sostenible sobre el sistema público de bicicleta en San Sebastián (dBizi) para que dé un buen servicio a la ciudadanía y a quienes nos visitan, e incluyendo las previsiones necesarias para implementar el servicio, también, en los barrios altos.

En Donostia/ San Sebastián, a 15 de Diciembre de 2016

José María Murguiondo Casal
Concejal del Grupo Popular”.

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**AHO BATEZ.**

**UNANIMIDAD.**

--------------

**19. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, Itsasargi Pasealekuko begiratokiaren proiektua dela eta.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan batzordean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 11n, Erregistro Nagusiaren bitartez, alkateari zuzendutako idatzi bat aurkeztu zuen Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak (Elkartuk), Itsasargi pasealekuko 44. zenbaki pareko begiratokiaren proiektuarekin ados ez dela adierazteko. Proiektuaren asmoa da sartzeko maila bat eta azalera guztian soropila jartzea.

Hainbat hedabidetan azaldu den infografian aurkeztutako zoruak eta barandak ez diete eskaintzen ez irisgarritasun ez ikuspegi egokirik gurpildun aulkien erabiltzaileei.

Era berean, eskatzen dute gorde dezatela, gutxienez, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku plaza bat begiratoki ingurutik gertu.

Hil honetako batzordean, gobernua interpelatu genuen galdetuz zergatik ez den aurkeztu pertsona guztien irisgarritasuna bermatzen duen proiektu bat. Bestalde, galdetu genuen ea badagoen aukerarik proiektua aldatzeko, irisgarritasun hori bermatze aldera.

**19. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI, sobre el proyecto de mirador del Paseo del Faro.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 11 de noviembre a través del Registro General la Federación coordinadora de Personas con discapacidad física de Gipuzkoa (Elkartu), presentó un escrito dirigido al Alcalde al objeto de mostrar su disconformidad por el proyecto de mirador frente al paseo del Faro nº 44 presentado. Tal proyecto pretende incorporar un escalón de acceso y cesped en toda la superficie.

Este tipo de pavimento junto con la barandilla presentada en la infografía que ha aparecido en distintos medios no permiten ni la accesibilidad ni una visión adecuada a las personas usuarias de silla de ruedas.

Igualmente solicitan que se tenga en cuenta la necesidad de reservar al menos de una plaza de aparcamiento reservada para personas con discapacidad próxima a la zona del mirador.

En la comisión de este mes interpelamos al gobierno por el motivo por el que no se había presentado un proyecto que permitiera la accesibilidad de todas las personas. Por otra parte, preguntábamos por la posibilidad de modificar el proyecto al objeto de permitir tal

accesibilidad.

Erantzunak harrigarriak izan ziren oso. Alde batetik, esan ziguten horrelako proiekturik ez dagoela eginda eta komunikabideetara helarazitakoa zirriborro bat baino ez zela, ez zela zertan izan proiektuaren azken bertsioa.

Las respuestas fueron ciertamente sorprendentes, ya que se nos dijo por un lado que no existía un proyecto como tal hecho y que lo que se había facilitado a la prensa era un boceto que no tenía por que tener necesariamente la forma final del proyecto.

Beste alde batetik, azaldu ziguten oraindik Ondare Atalak argitu behar zuela proiektua kokatuko litzatekeen lurren titularra zein den, eta agian horietako batzuk titulartasun pribatuak direla.

Por otro lado, se nos comentó que quedaba por aclarar por parte de la sección de Patrimonio la titularidad de los terrenos donde se ubicaría el proyecto y que cabía la posibilidad de que algunos de ellos fueran de titularidad privada.

Logikoa denez, Elkartu koordinatzaileak, bere interes legitimoak babestuz, kexa bat aurkeztu zuen "proiektuaren" irisgarritasun faltagatik, hedabideetan agertu zen informazioa aintzat hartuta.

Como es lógico, velando por sus legítimos intereses la coordinadora Elkartu presentó una queja sobre las falta de accesibilidad de tal “proyecto” atendiendo a las informaciones que habían aparecido en prensa.

Gure ustez, komenigarria litzateke bestelako praxia izatea udal gobernuaren komunikazio politiketan, hirira begira proposatzen dituen proiektuak aurkeztean. Halaber, hiriko gune publikoetan irisgarritasun unibertsala bermatu beharko litzateke, jakina.

Nos parece que es deseable otra praxis en las políticas de comunicación del gobierno municipal con los proyectos que plantea para la ciudad, así como evidentemente procurar la accesibilidad universal de los espacios públicos de la ciudad.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernuari eskatzen dio irisgarritasun unibertsala berma dezala Itsasargiko begiratokiaren proiektuan.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernuari eskatzen dio gorde ditzala aparkaleku plazak desgaitasuna duten pertsonentzat.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a que en el proyecto del mirador del faro garantice la accesibilidad universal.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno a procurar la disponibilidad de plazas de aparcamiento reservadas a personas con discapacidad.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**20. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, herritarrek egindako dokumentazio eskaerei emandako erantzunaren gainekoa.**

“Loïc Alejandrok, Irabazi Donostiako zinegotziak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren indarreko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, LURRALDEAREN GARAPENEKO ETA PLANGINTZAKO BATZORDEAK, 2013-12-12an, Atotxa-Errekako lurren gaineko idatzi bati erantzunik ez eman izanaren gaineko interpelazioaren ondoriozkoa.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko ekainaren 14an, 199/12741 erregistro zenbakidun informazio eta dokumentazio eskaera erregistratu zen, alkateari zuzendua. Atotxa-Erreka proiektuko urbanizazio lanetan ateratako lurrekin zer egiten den argitzea zen eskaeraren xedea.

Eskaera egin zuen pertsonak ez du erantzunik jaso. Gardentasun Legeko (https://is.gd/1qClrN) 33. artikuluak arautzen du hilabete eta erdiko gehieneko epean erantzun behar zaiola herritarrari. Hala ere, 6 hilabete igaro ondoren, eskatzaileak ez du ezer ere jaso.

**20. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI, sobre la contestación a las peticiones de documentación por parte de la ciudadanía.**

“Loïc Alejandro, concejal de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación sobre la no contestación a un escrito relativo a las tierras de Atotxa-Erreka en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del día 12-12-2016.

JUSTIFICACIÓN

El 14 de junio 2016, se registró una solicitud de información y documentación con número de registro 199/12741, dirigida al Alcalde, sobre el destino de las tierras provenientes de las obras de urbanización del proyecto Atotxa-Erreka.

La persona autora de la solicitud no ha recibido respuesta alguna. Según el artículo 33 de la Ley de Transparencia (https://is.gd/1qClrN), se debe contestar al ciudadano en un plazo máximo de 1 mes y medio. No obstante, 6 meses después, el solicitante no ha recibido nada.

Udal gobernuak, 2015-2019 eperako gobernu programan, adierazten du gardentasuna eta herritarrekiko komunikazioa izango direla “gobernantza berritzaile” deritzon horren bi ardatz garrantzitsu. Hala ere, hainbat herritarrek ez dute erantzunik jasotzen, eta beste askok epez kanpo jasotzen dute erantzuna. Ez diegu teknikariei egotzi nahi horren errua, beti egiten baitute ahal dutena eskura duten denborarekin, baina agerikoa da udal gobernuak ez dituela gehitzen legea betetzeko eta herritarrei garaiz eta egoki erantzuteko behar diren baliabideak. Jarrera hori ez dator bat gobernu programan esaten denarekin.

El Gobierno Municipal, en su programa de gobierno 2015-2019, hace de la transparencia y de la comunicación con la ciudadanía dos ejes importantes de su auto-calificada “gobernanza innovadora”. No obstante, numerosos son los casos de ciudadanos y ciudadanas que no reciben respuesta alguna o reciben respuestas fuera de plazo. No queremos culpar al personal técnico, que siempre hace lo que puede con el tiempo del que dispone, pero constatamos que el Gobierno Municipal no pone los medios adicionales necesarios para cumplir con la Ley y contestar a los ciudadanos en tiempo y forma. Una actitud contradictoria con su propio programa de gobierno.

Batzordean, Atotxa-Erreka proiektuko urbanizazio lanen lurrak nora botatzen diren azaldu zuen zinegotzi ordezkariak. Eskertzekoa da, baina bi ekimen abiarazi behar izan genituen bata bestearen atzetik, zinegotzi ordezkari horrek informazio pixka bat eman zezan.

En comisión, el Concejal Delegado dio información sobre el vertido de tierras provenientes de las obras de urbanización del proyecto Atotxa-Erreka. Es de agradecer, aunque tuvimos que hacer dos iniciativas seguidas para poder obtener algo de información de parte del Concejal Delegado.

Zinegotzi horrek azaldu zuen, era berean, zaila dela herritarren eskaera guztiei erantzutea, asko egiten direlako eta nahiko ohikoa dela erantzunak berandutzea. Eta esan zuen ezin zuela ziurtatu erantzungo zitzaionik. Horrek asko harritu gintuenez, hitz egiteko bigarren txandan zinegotzi ordezkariari eskatu genion bere gain hartzeko 199/12741 eskaeraren egileari erantzun bat ematearen konpromisoa. Eskaera horri erantzun zion ezin zuela ziurtatu erantzungo zitzaionik.

Asimismo, explicó que es difícil contestar a todas las peticiones de ciudadanos y ciudadanas porque hay muchas, y que es bastante habitual que se retrasen las contestaciones. Y dijo que no podía garantizar que se le contestaría, algo que nos sorprendió mucho, motivo por el cual, en el segundo turno de palabra, pedimos el compromiso de parte del Concejal Delegado de que se contestaría al autor de la solicitud 199/12741. A eso, respondió que no aseguraba que se le contestaría.

Erantzun hori onartezina da ikuspuntu orotatik. Erantzun hori emanda, udal gobernuak hirigintzaren alorrean duen ordezkariak iseka egiten dio bere gobernu programari, Legeari, herritarrei eta gardentasunaren kontzeptuari berari. Gobernu honentzat, paperean dotore ageri diren kontzeptuak dira gardentasuna eta herritarrekiko komunikazio arina, baina, interesik ez duenean, ez ditu betetzen. Egoera hori bizi

Bajo cualquier punto de vista, esa respuesta es inadmisible. Con esa contestación el representante del Gobierno Municipal en materia de urbanismo se burla de su propio programa de gobierno, de la Ley, de la ciudadanía, y del concepto de transparencia. Para este Gobierno la transparencia y la comunicación fluida con la ciudadanía son conceptos que quedan muy bien en el papel, pero que no se ponen en aplicación

dugu oposizioko alderdiek, herritarrek eta hainbat taldek (hala nola, Naturkon, Ancora, AntenarikEz, Zorraren Herri Auditoria egiteko Plataforma, etab.).

cuando no interesa. Es algo que vivimos los grupos de la oposición, y que viven ciudadanos y ciudadanas o colectivos como Naturkon, Ancora, AntenarikEz, la Plataforma para una Auditoria Ciudadana de la Deuda, ...

Are gehiago. Erantzunik eza justifikatzeko, zinegotzi ordezkariak esan zuen eskatzaileak ez zituela gogoko izan ordura arte jaso zituen erantzunak. Zein da asmoa, orduan, hura zigortzea? Gobernuarekin otzan diren herritarrei soilik erantzuten al zaie? Gure ustez, herritarren batek agiriren bat edo informazioa eskatzen baldin badu, erantzun egin behar zaio, eta kito.

Es más. El Concejal Delegado llegó a justificar la falta de contestación alegando que al solicitante no le había gustado las respuestas que había tenido hasta ahora. ¿La idea es entonces castigarle? ¿Se contesta sólo a los y las ciudadanas que se portan bien con el Gobierno? Creemos que si un ciudadano o una ciudadana solicita documentos o información, se le debe contestar y punto.

Horregatik guztiagatik, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Es por todo ello, que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Legeak agintzen duena bete eta herritarrek egiten dituzten dokumentazio eta informazio eskaera guztiak erantzuteko eskatzen dio Donostiako Udaleko udalbatzak gobernu taldeari, eta eskatzen dio, era berean, beti bermatzeko erantzuna, baita ezarritako epeak betetzea, izatez, ezinezkoa denean ere.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a contestar a todas las solicitudes de documentos o información formuladas por la ciudadanía, tal y como lo marca la Ley, y a garantizar que se contestará incluso cuando sea materialmente imposible cumplir con los plazos establecidos.

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Enrique Ramos Vispo y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**21. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, “2016ko Kultura Saria” dela eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa, batzordean, Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotzi ordezkariari "2016ko Kultura sariari" buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Pasa den ostiralean, azaroak 25, Donostiako Udalak "2016ko Kultura saria" eman zion toreatzaile bati. Hedabideek jaso zuten bezalaxe, sari berezia da, 2016ak bat egiten duelako Donostiako kultur hiriburutzarekin.

Gainera, sari horrek kultur hiriburutzaren logoa edukitzeak zeharo harritu gaitu, deigarria baita pertsona batzuen gozamen hutserako zezenak hiltzea nabarmentzeko modukoa izatea kulturaren inguruko urtean. Gure iritziz, zalantzarik gabe, onartezina da 2016ren legatuan animaliei emandako tratu txarrak ametitzea.

Batzordean aurkeztu genuen interpelazioari erantzunez, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen zezenketak kultura direla defendatzen duela gobernuak, alde batera utzita praktika horretan

**21. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI, sobre el “Trofeo Cultural 2016”.**

“Amaia Martin Garin, portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, realiza la siguiente MOCIÓN DE CONTROL fruto de la interpelación realizada en la comisión correspondiente al concejal delegado de Impulso económico, Comercio, Hostelería y Turismo en relación al “Trofeo Cultural 2016”.

JUSTIFICACION

El pasado viernes 25 de noviembre el ayuntamiento de Donostia concedía el “Trofeo Cultural 2016” a un torero, premio que, como recogen los distintos medios de comunicación, tiene un caracter excepcional por coincidir 2016 con la capitalidad cultural de la ciudad.

Tal trofeo cuenta además con el logo de la capitalidad cultural, hecho que no deja de asombrarnos ya que resulta llamativo que el sacrificio de toros para el mero disfrute de una serie de personas pueda suponer un elemento a destacar dentro del año relativo a la cultura. Desde luego, que en el legado de 2016, en nuestra opinión, resulta inadmisible que se de cabida al maltrato animal.

Ante la interpelación formulada en comisión, el concejal delegado argumentó que este gobierno defiende que la práctica del toreo sea cultura, obviando el hecho de que tal práctica implica el

animaliei tratu txarrak eman eta hil egiten dituztela. Eta horregatik defendatzen dute animaliak torturatzen eta hiltzen jarduten den bati eman izana saria.

Onartezina da animaliak torturatzen eta hiltzen jarduten den bati ematea 2016ko Kultura saria, sari aparta aurten Europako kultur hiriburu izateak dakarren berezitasunagatik. Hiriburutzaren zuzendaritzak adierazi duen bezala, kultur hiriburutzatik zerbait nabarmentzekotan, hori legatuak utziko duen bizikidetza da. Beraz, harrigarria da saria honako hauek eragiten dituen jarduera bati ematea: lehenik, tratu txarrak eta animalien hilketa; eta, bigarrenik, herritarren arbuioa, izan ere, milaka herritarrek galdeketa egitea eskatu dute, ez baitute ulertzen nola egin eta susta daitezkeen era horretako jarduerak.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio ez diezaiela saririk eman animaliei emandako tratu txarrekin zerikusirik duten pertsonei.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

maltrato y la muerte de animales. Y por ello defienden que se haya concedido este premio a alguien que se dedica a torturar y matar animales.

Es inadmisible que el premio cultural de 2016, un premio excepcional por la singularidad que ha supuesto ser capital cultural europea este año, haya sido concedido a alguien que se dedica al maltrato y muerte de animales. Si algo debe de trascender de la capitalidad cultural, tal y como, ha marcado la propia dirección de la capitalidad es que podamos tener como legado para futuro la convivencia. Por tanto, resulta chocante que se otorgue un premio a una actividad que genera: primero, el maltrato y muerte a animales; y segundo, tanto rechazo en la ciudad y sobre la que miles de ciudadanas han reclamado una consulta ya que no entienden que se den y promocionen prácticas de este tipo.

Por este motivo, planteamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a no conceder premios o distinciones a personas vinculadas con el maltrato animal.

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**22. Kontrol mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, Osoko Bilkuran egindako grabazioa dela eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, 2016ko azaroaren 14an, osoko bilkuran egindako grabazioari buruz bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Igaro den urriaren 27an Anoeta Kiroldegia SAren akziodunen batzar nagusiaren bilkura izan zen. Bilkura horretan, udal gobernuak Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandro bota zuen sozietatearen administrazio kontseilutik.

Kanporatzearen gaineko eztabaidan zehar, udaltzainek bi alditan kargu hartu zieten udal taldeko langile batzuei ez grabatzeko esanez, grabatzen segitzekotan kamera konfiskatuko zietela eta, beste azalpenik eman gabe.

Ekitaldi publiko hori, era berean, tokiko telebista bat ari zen grabatzen eta udal webgunetik beretik zuzenean ematen ari zen, beste komunikabide batzuk eta jendea ere bertan zirela.

**22. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI, sobre grabación en el Pleno.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz de Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación sobre la grabación en Pleno en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS del día 14-11-2016.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 27 de octubre se celebró la Junta General de Accionistas de Anoeta Kiroldegia, S.A., en la que el Gobierno municipal expulsó al concejal de Irabazi Donostia, Loïc Alejandro, del Consejo de Administración de la misma.

Durante el debate de dicha expulsión, personal del Grupo municipal fue amonestado en dos ocasiones por la Guardia municipal al objeto de no grabar la citada sesión, con la amenaza de incautar la cámara en caso de seguir haciéndolo, y sin mediar explicaciones al respecto.

Se trata de un acto público que a su vez estaba siendo grabado por una televisión local y retransmitido en directo desde la propia web municipal, con presencia además de otros medios de comunicación y de público en general.

Ez dakigu zer dela eta eragotzi ziguten osoko bilkuran grabatzea; alkate jaunaren hitzen, berak ez zuen horrelako jarraibiderik eman. Herri Segurtasuneko zinegotzi ordezkariari, Ibabe jaunari, ere galdetu diogu, baina ez dugu erantzunik jaso. Edozein kasutan ere, batzordean azaldu ziguten txosten bat eskatu zutela eta, beraz, zain gaude horren berri izateko.

Bien bitartean, uste dugu bermatu egin behar dela osoko bilkura grabatu nahi duenak horretarako aukera izatea, gaur egun ez baitago hori eragozten duen araurik.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio berma dezala nahi duenak Udalaren osoko bilkurak grabatzeko aukera izatea.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

No hay constancia del motivo por el que se nos había impedido grabar en el propio Pleno, El Sr. Alcalde afirma no haber dado ninguna instrucción en ese sentido. El concejal delegado de Seguridad Ciudadana, Sr. Ibabe ha sido preguntado al respecto pero tampoco hemos recibido respuesta alguna. En todo caso, en comisión se nos informó que se había encargado un informe y estamos a la espera de poder conocerlo.

Entretanto consideramos que se debe garantizar que aquellas personas que quieran grabar el pleno puedan hacerlo, puesto que no hay norma a dia de hoy que lo impida.

Es por todo ello, que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a garantizar que las personas que así lo deseen puedan grabar vídeos de las sesiones plenarias de este Ayuntamiento.

Fdo: Amaia Martin Garin
Portavoz grupo municipal Irabazi Donostia”.

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**23. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Amara Berriko hiru plazen irisgarritasunaren ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko abenduaren 12an Gune Publikoetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Maiatzetik ikusi dugu Udal Gobernuak hainbat komunikabidetan adierazi duela Amara Berriko Merkatari, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazetan goitik beherako aldaketak egin behar zituela, plazen egoera hobetzeko eta erabilgarriagoak izateko. Dirudienez, 800.000 euro gastatu dira plazen konponketan.

Urrian eta azaroan, auzora egin ditugun bisitetan hainbat kexa jaso ditugu bizilagunen aldetik, plazak ez baitira irisgarriak. Nahiz eta hainbat konponketa egin diren irisgarritasuna bermatzeko, konpoketa horiek ez dira nahikoak izan eta, abenduko batzordeetan aurkeztu ditugun argazkietan ikus daitekeen bezala, espaloi jakin batzuetara mugatu dira.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak aitortu zuen plazak ez direla irisgarriak eta kexa ugari jaso direla bizilagunen aldetik. Alde batetik, adierazi zuen aurrekontua agortzeko beldurra zutela eta 650.000 gastatu direnez, oraindik ere konpoketa gehiago egiteko aukera dagoela mahai gainean. Bestetik, hirurogei bat esku-hartze aztertzen ari direla azaldu zigun eta Udal Gobernuak hiru plazak 2017rako irisgarriak izatea espero duela.

**23. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la accesibilidad de tres plazas de Amara Berri.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en la Sesión Plenaria. La moción deriva de la interpelación presentada el 12 de diciembre de 2016 en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

Desde mayo el Gobierno Municipal ha manifestado en diversos medios de comunicación que iba a realizar modificaciones de importancia en las plazas de Mercaderes, los Etxeberri y Cofradías Donostiarras, con objeto de mejorar el estado de las plazas y para que sean más utilizables. Al parecer, se han gastado 800.000 euros en las reparaciones de las plazas.

En octubre y noviembre, en las visitas que hemos realizado al barrio, hemos recogido diferentes quejas por parte del vecindario, ya que las plazas no son accesibles. A pesar de que se hayan hecho diversas reparaciones para garantizar la accesibilidad, las obras no han sido suficientes y, tal como se puede observar en las fotos que hemos presentado en las comisiones de diciembre, las obras se han limitado a unas aceras.

En la comisión, el concejal delegado reconoció que las plazas no son accesibles y que han recibido muchas quejas por parte del vecindario. Por un lado, manifestó que tenían miedo de agotar el presupuesto y, que, debido a que se han gastado 650.000 euros, todavía quedaba margen para realizar más reparaciones. Por otro, nos expuso que están analizando sesenta intervenciones y que el Gobierno Municipal espera que las tres plazas sean accesibles para el año 2017.

Gure taldeak nahasmena ikusten du zinegotzi ordezkariaren erantzunean; ezin dugu ulertu irisgarritasun falta aurrekontuarekin nahastea eta ez da ondo adierazi nola egingo diren 2017ko esku-hartzeak (proiektu berri batekin egingo diren, lehengo proiektua zabalduko den, zeintzuk diren 60 esku-hartze horiek eta abar).

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Amara Berriko Merkatari, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak irisgarriak izan daitezen, planteamendu zehatz bat egin dezala eta kexak helarazi dituzten eragile zein norbanakoei proiektuaren berri eman diezaiela.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Amara Berriko Merkatari, Etxeberritarren eta Donostiako Kofradien plazak irisgarriak izan daitezen, beharrezkoak diren konponketak egin ditzala 2017an, 2016an hasitako konponketei amaiera egokia emanez.

Donostian, 2016ko abenduaren 15an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Nuestro grupo percibe cierta confusión en la respuesta del concejal delegado; no entendemos que se mezcle la falta de accesibilidad con el presupuesto y no se ha expuesto bien cómo se van a realizar las intervenciones de 2017 (si se harán por medio de un nuevo proyecto, si se prolongará el primer proyecto, cuáles serán esas 60 intervenciones, etc.).

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta esta MOCIÓN:

1. El Pleno solicita al Gobierno Municipal que, para que las plazas de Mercaderes, los Etxeberri y Cofradías Donostiarras sean accesibles, haga un planteamiento concreto y que se dé conocimiento del proyecto tanto a las y los agentes como a las personas que han hecho llegar sus quejas.

2. El Pleno solicita al Gobierno Municipal que, para que las plazas de Mercaderes, los Etxeberri y Cofradías Donostiarras sean accesibles, realice las reparaciones que sean necesarias en el año 2017, y que termine, a su vez, de manera adecuada las iniciadas en 2016.

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**24. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, kirol txartelaren eta Altzako kiroldegiaren ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Kirol Txartelaren eta Altzako kiroldegiaren ingurukoa, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoko Batzordean abenduaren 12an egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken udalbatzarrean Kirol Txartelaren prezioa % 5 igo zen (helduen, familien eta federatuen kasuan). Udal Gobernuaren proposamenak ez zuen kontuan hartzen Altzako kiroldegiaren itxiera. Badakigu kirol taldeak beste kiroldegi batzuetan birkokatu egin dituztela, baina gure kezka Altzako Kirol Txartelaren erabiltzaileen egoera da. Hau da, Kirol Txartela edukitzeagatik gehiago ordaindu beharko dute, eta gainera, beste udal kiroldegi batera joan beharko dute. Donostia Kirola Udal Patronatuak, bestalde, itxiera dela-eta, gastu arruntean aurrezpen nabarmena izan eta izango du. Horregatik, garraio edo deskontu plangintza bat falta da, itxierak erabiltzaileei ekar diezaiekeen kaltea nolabait arintzeko. Batzordean, zinegotzi ordezkariak kiroldegiaren itxiera dela-eta egindako lana azaldu zuen, baina proposatuko plangintzari ez zion heldu. Helburua da neurriak hartzea, Altzako kiroldegia itxi dela-eta, inork ez diezaion horregatik kirola egiteari utzi.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

**24. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU, en torno a la kirol txartela y el polideportivo de Altza.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta esta MOCIÓN DE CONTROL en torno a la “Kirol Txartela” y el polideportivo de Altza, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción deriva de la interpelación realizada el 12 de diciembre en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

En el último Pleno el precio de la “Kirol Txartela” aumentó un 5% (en el caso de adultos, familias y federados). La propuesta del gobierno municipal no tenía en cuenta el cierre del polideportivo de Altza. Somos conscientes de que se ha recolocado a los equipos deportivos en otros polideportivos, pero nuestra inquietud se centra en la situación de los usuarios de la “Kirol Txartela” de Altza. Es decir, tendrán que pagar más por tener la “Kirol Txartela” y, además, deberán acudir a otro polideportivo municipal. El Patronato Municipal Donostia Kirola, por otra parte, ha tenido y tendrá un ahorro notable en los gastos debido a su cierre. Por ello, falta una planificación relativa al transporte o a los descuentos, para aliviar de alguna manera el perjuicio que pueda producir el cierre a las y los usuarios. En la comisión el concejal delegado expuso el trabajo realizado en torno al cierre del polideportivo, pero no trató sobre la planificación propuesta. El objetivo de la misma consiste en adoptar medidas para que el cierre del polideportivo de Altza no lleve a nadie a dejar de practicar deporte.

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Altzako kiroldegiak erabiltzaileei ekar diezaiekeen kaltea arintzeko, garraio edota deskontu plangintza bat egin dezala haientzat.

El Pleno solicita al Gobierno Municipal que realice una planificación relativa al transporte o a los descuentos para aliviar el perjuicio que el cierre del polideportivo de Altza pueda producir en las y los usuarios.

Donostian 2016ko abenduaren 15ean

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Josu Ruiz Martín, D. Martin Ibabe Eceiza, D. Loïc Alejandro y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**25. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, bidegorri azpiegiturak eta sarea direla-eta.**

"Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioen ondorioa da.

**25. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU, acerca de las infraestructuras y la red de bidegorris.**

"Axier Jaka Goikoetxea, concejal de grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en Sesión Plenaria. La moción es consecuencia de las interpelaciones tratadas en la Comisión de

Espacios Públicos del pasado 12 de diciembre de 2016.

JUSTIFIKAZIOA

Bizikleta da donostiarrek duten garraiobide merke, ekologiko eta osasungarriena. Halaber, hiriko trafiko-pilaketak, zarata-kutsadura eta BEG isurketak murrizten laguntzeko egungo eta etorkizuneko alternatiba da. Zentzu honetan, Donostiako 2016 Kultur Hiriburutzak ibilgailu ofizial izendatu izana erabaki eredugarria iruditu zitzaigun, baina errealitateak, tamalez, ez dio apustu horri justizia egin.

Urte osoan zehar, dBizi sistema zertxobait egonkortzea lortu da eta bizikletaren bizikidetza eta erabileraren aldeko kanpainak egin dira. Baina sarearen zabalpenari dagokionez, soilik aurreko legegintzalditik zetorren Añorga Txikiko adarra osatu du Udalak, nahiz eta hainbat proiektutarako aurrekontu zabala izan (30 guneak, bereiziak). Bizikleta-azpiegiturei dagokienez, Carlos I.eko pasabideko proiektua lurperatu da, lurrazpiko udal parking-etako batzuk egiteke daude (Cervantes plz.) eta Atotxako geltoki intermodalekoa oraindik ere martxan jarri gabe dago, nahiz eta dagoeneko 8 hilabete igaro diren geltokia definitiboki ireki zenetik. Horrez gain, neurri gutxi ezarri dira bidegorri-sarea egonkortzeko, seinaletika propioa, informazio-bitartekoak edo itxaron-gune aurreratu gehiago izan daitezkeen bezala.

Horregatik, guretzat ez da urte emankorra izan mugikortasun ziklistarako. Gauza bera adierazi du eremu honetan Donostian erreferente den Kalapie elkarteak, Udalak aurten ez duela bizikletaren aldeko apustu irmorik egin salatu du-eta. Aurreko legegintzaldietatik zetorren bizikletaren aldeko apustua berreskuratu behar

JUSTIFICACIÓN

La bicicleta es el medio de transporte más barato, ecológico y saludable que poseen las y los donostiarras. Asimismo, hoy en día y de cara al futuro, constituye la mejor alternativa para ayudar a reducir la congestión del tráfico, la contaminación acústica y la emisión de gases de efecto invernadero. En este sentido, nos parece ejemplar que la Capitalidad Cultural de 2016 nombrase la bicicleta como medio de transporte oficial; pero la realidad, por desgracia, no ha hecho justicia a dicha apuesta.

Durante este año 2016 se ha conseguido estabilizar en cierta medida el sistema dBizi, y se han realizado campañas de convivencia y uso de las bicicletas. Pero en lo que respecta a la ampliación de la red, el Ayuntamiento solo ha completado el ramal de Añorga Txiki planteado en la legislatura anterior, a pesar de contar con un amplio presupuesto para varios proyectos (30 puntos diferenciados). En cuanto a las infraestructuras para bicicletas, el proyecto del pasadizo de Carlos I se ha enterrado, algunos de los aparcamientos municipales subterráneos están por hacer (Plaza Cervantes) y el proyecto de la estación intermodal de Atotxa todavía no se ha puesto en marcha, 8 meses después de la apertura definitiva de la misma. Además, se han establecidos pocas medidas para la estabilización de la red de bidegorris, y las señales propias, los medios de información y los puntos de espera son aún insuficientes.

Por todo ello, consideramos que no ha sido un año fructífero para la movilidad ciclista. La asociación Kalapie, referente donostiarra en este ámbito, es de la misma opinión, y ha denunciado que este año el Ayuntamiento no ha realizado una apuesta firme a favor de la bicicleta. Consideramos necesario recuperar la apuesta por la bicicleta de

dugula uste dugu, ez soilik garraiobide propio gisa, baizik eta ikuspegi intermodal batez, beste garraiobide batzuetara hurbildu edo haietatik helburu-puntura iristeko bide bezala.

la legislatura anterior, no solo como medio de transporte propio, sino también desde un punto de vista intermodal, para acceder a otros medios de transporte o para llegar de estos últimos a nuestro punto de destino.

Honenbestez, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Donostiako bizikletaren erabilera intermodalaren adierazgarri nagusi gisa, ahalik eta eperik motzenean akordio batera ailegatu dadila Atotxako geltokiko esleipendunarekin eta zerbitzuaren kudeaketa eredua definitu dezala, herritarrek geltokiko bizikleta aparkaleku berria behingoz erabilgarri izan dezaten.

1.- El pleno insta al Gobierno Municipal, como máximo exponente del uso intermodal de la bicicleta en San Sebastián, a que llegue a un acuerdo para definir el modelo de gestión con la empresa adjudicataria de la estación de Atotxa lo antes posible, para que la ciudadanía pueda disfrutar de una vez por todas del nuevo aparcamiento para bicicletas.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017an apustu egin dezala bizikletaren alde: urte honetako aurrekontuaren mugikortasun ziklistarako kontu-sailak bizikleta proiektuetarako (eta ez beste proiektu batzuetarako) exekutatu ditzala eta ez diezaiola uko egin bidegorri-sarea egonkortu, zabaldu eta bizikleta-azpiegiturak handitzeari.

2.- El pleno insta al Gobierno Municipal a que realice una apuesta firme por la bicicleta el próximo año 2017: que emplee las partidas presupuestarias para la movilidad ciclista en proyectos relacionados con la bicicleta (y no en otros proyectos) y que no renuncie al objetivo de estabilización y ampliación de la red e infraestructuras ciclistas.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, gutxienez, aintzat hartu eta azter ditzala Udalbatzako talde politikook eta mugikortasun iraunkorreko elkarteek bizikleta eta mugikortasun ziklista sustatzeko proposatzen ditugun proiektuak.

3.- El pleno insta al Gobierno Municipal a que, por lo menos, analice y tenga en cuenta los proyectos relacionados con la promoción de la bicicleta y la movilidad ciclista presentados por los grupos políticos y las asociaciones de movilidad sostenible.

Donostian, 2016ko abenduaren 15a

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu.".

Axier Jaka Goikoetxeak jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**26. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Pasaiako badia biziberritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren planetik Donostiako Udala kanpoan utzi izanari buruzkoa.**

"Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Pasaiako badia biziberritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiren planetik Donostiako Udala kanpoan utzi izana dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko abenduaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Egun hauetan, komunikabideei esker, Pasaiako Badia biziberritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak bi milioi euroko dirulaguntzak banatuko dituela jakin dugu. Laguntza hauen hartzaileak badian zerikusia duten udalak dira, Donostiakoa izan ezik. Gure harridurarako, Donostiako Udala plangintza honetatik kanpo geratu da. Pasaiako Badian beharrak handiak dira, eta Europatik Foru Aldundiak jaso duen porrotaren ondoren (diru-laguntza eza), hauek areagotu egingo dira: Donostia albo batera uzteak ez du sustatzen instituzio guztien elkarlana. Pasaiako badiaren biziberritzeak denon apustua izan beharko luke.

**26. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el hecho de haber dejado al Ayuntamiento de San Sebastián fuera del Plan de Regeneración de la Bahía de Pasajes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

"Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN sobre el hecho de haber dejado al Ayuntamiento de San Sebastián fuera del Plan de Regeneración de la Bahía de Pasajes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para que se analice en la próxima sesión del Pleno. Esta moción deriva de la interpelación presentada en la Comisión de Servicio a las Personas el 12 de diciembre de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En estos días hemos sabido, a través de los medios de comunicación, que la Diputación Foral de Gipuzkoa ofrecerá subvenciones por valor de dos millones de euros para la regeneración de la Bahía de Pasajes. Los receptores de dichas ayudas serán los consistorios que tengan relación con la bahía, excepto el de San Sebastián. Para nuestro asombro, el Ayuntamiento de San Sebastián quedará fuera de dicho plan. La Bahía de Pasajes tiene muchas necesidades, y tras el fracaso de las propuestas de la Diputación Foral en Europa (no ha recibido subvención alguna), esas necesidades no han hecho más que

aumentar: El hecho de apartar a San Sebastián no promueve la colaboración entre todas las instituciones. El plan de regeneración de la Bahía de Pasajes debería ser una apuesta de todos y todas.

Alkateak batzordean aitzakiak erabili zituen erantzuteko (" Komunikabideek diru-laguntzei buruz atera duten notizia ez da berria..."). Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako mozio hau aurkezten du.

El alcalde respondió con evasivas en la comisión (“La noticia difundida por los medios de comunicación sobre las subvenciones no es nueva…"). Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, eragile guztiekin batera, Pasaiako badia biziberritzeko prozesuan era aktiboan lan egin dezala, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia dagokion neurrian kontuan izan dezan.

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián pide al Gobierno Municipal trabajar de forma activa y en colaboración con los demás agentes en el proceso de regeneración de la Bahía de Pasajes, para que la Diputación Foral de Gipuzkoa tenga en cuenta a San Sebastián en la medida que le corresponde.

Donostian 2016ko abenduaren 15an

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**27. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, indarkeria pairatzen duten emakumeekin esku hartzeko protokoloa**

**27. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el protocolo de intervención con las mujeres víctimas de violencia**

**dela-eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren12an Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014-2018 Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planeko hirugarren lan lerroko 5. helburu gisa honako hau jaso zen: indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei kalitatezko arreta eskaintzea. Eta bertan, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloaren aplikazioa bermatzea. Hala nola, premia zehatzei loturiko baliabide eta zerbitzu gehiago eskaintzea, indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak ahalduntzea indartuko duen arreta eskaintzea eta Udal Gobernuaren jarduera egokia bermatzea, eraso eta hilketa sexisten kasuetan.

2015. urtean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeekin esku hartzeko protokoloa onartzera eraman aurreko azken errebisioa gauzatzen ari zen eta lanketa egokia egiteko zenbait dekalogo ere prestatu ziren.

2016. urtea amaitu da eta Donostiako Udalak indarkeria pairatzen duten emakumeekin esku hartzeko protokoloa hiriko talde eta eragileekin kontrastatu eta onartu gabe jarraitzen du.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal

**machista.**

“Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas de 12 de diciembre de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Como 5º objetivo de la tercera línea de trabajo del III. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de San Sebastián (2014-2018) se estableció lo siguiente: ofrecer una atención de calidad a las mujeres víctimas de violencia machista. Y en el mismo punto se recogió el objetivo de garantizar la aplicación del protocolo de intervención con mujeres víctimas de violencia machista, así como ofrecer más recursos y servicios adaptados a las necesidades específicas, proporcionar a las mujeres que sufren violencia machista una atención que contribuya a su empoderamiento y garantizar la actuación adecuada del Gobierno Municipal en los casos de agresiones y asesinatos sexistas.

En el año 2015 se procedió a realizar la última revisión antes de la aprobación del protocolo para la intervención con mujeres víctimas de violencia machista y se prepararon varios decálogos para garantizar que el procedimiento fuera el adecuado.

El año 2016 prácticamente ha llegado a su fin y el Ayuntamiento de San Sebastián sigue sin aprobar ni contrastar el protocolo con los grupos y agentes de la ciudad.

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que

Gobernuari arduraz har dezala indarkeria pairatzen duten emakumeekin esku hartzeko protokoloaren onarpena, eta koordinatu dezala Udaleko sailen arteko lanketa eta hiriko eragileekin partekatzea, ahalik eta azkarren onarpena eman ahal izateko.

aborde de manera responsable la tarea de aprobar el protocolo para la intervención con mujeres víctimas de violencia machista, y a que coordine el trabajo con los departamentos del Ayuntamiento y comparta el protocolo con los agentes de la ciudad para que pueda procederse a su aprobación lo antes posible.

Donostian, 2016ko abenduaren 15a

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Naiara Sampedro Perez
EHBildu udal taldeko zinegotzia".

Naiara Sampedro Perez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Naiara Sampedro Perez, Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**28. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuen inguruko akordioak bete ez izana dela-eta.**

**28. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU, acerca del incumplimiento de los acuerdos sobre la política conjunta de lucha contra el racismo y la xenofobia.**

"Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du,

"Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Órgano Municipal del Pleno, presenta la siguiente

Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an, Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko apirilaren 27ko udalbatzarrean, aho batez, bi puntu onartu genituen. Alde batetik, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako salaketa lana, sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak hirian ugaritzea, talde politiko eta hiriko eragile zein herritarren arteko bateratasuna eta haien parte hartzea bermatuz. Eta bestalde, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ahalegin berezia egitea hiriko eragile eta talde politikoekin adostasunak bilatzeko eta herritarrak gonbidatuko diren adierazpen instituzionalaren onarpena eta irakurketa publikoa egiteko.

Aldiz, elkarbizitzarako eta gizarte eraldaketarako irmotasunez errotik hartu beharreko arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuen akordioa betetzen ez zela-eta, 2016ko ekainean, Udal Gobernua berriro interpelatu behar izan genuen.

Ekainean bertan, Kultur Aniztasun Bulegotik kudeatzen ari den jardueren berri emateko bilera batera deitu gintuzten. Talde politiko guztiak ordezkaturik ginen eta solasaldi interesgarriak suertatu ziren. Zenbait deialdi zehazteko eta informazioa bidaltzeko konpromisoa ere hartu zen baino gaur arte ez da horrekin bete. Azken sei hilabeteetan, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako elkarlana ez da bideratzen ari.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal

moción, para que se analice en la sesión plenaria. Esta moción deriva de la interpelación analizada en la Comisión de Servicio a las Personas el 12 de diciembre de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En el pleno de 27 de abril de 2016 se aprobaron dos puntos por unanimidad. Por un lado, la multiplicación de las actividades de denuncia, las campañas de sensibilización y las iniciativas contra el racismo y la xenofobia, garantizando la convergencia y la participación de los grupos políticos, los agentes de la ciudad y la ciudadanía misma. Y, por otro, realizar un esfuerzo adicional el día Internacional Contra el Racismo y la Xenofobia para buscar acuerdos entre agentes y grupos políticos de la ciudad, y para aprobar y realizar la lectura pública de la declaración institucional con presencia de la ciudadanía.

No obstante, viendo que el acuerdo sobre la lucha contra el racismo y la xenofobia –imprescindible para la convivencia y el cambio social– no se cumplía, en junio de 2016 tuvimos que volver a interpelar al Gobierno Municipal.

En junio nos convocaron a una reunión para informarnos sobre las actividades que se están promoviendo desde el Negociado de Diversidad Cultural. Todos los grupos políticos estuvieron representados y surgieron debates interesantes. También se estableció el compromiso de fijar varias convocatorias y enviar información, pero hasta hoy no se ha cumplido. En los últimos seis meses, la colaboración en la lucha contra el racismo y la xenofobia no se está llevando a cabo.

Así las cosas, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que

Gobernuari beharrezkoak diren baliabideak jar ditzala, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politiken alde Udalbatza honek hartzen dituen erabakiak betetzeko.

Donostian, 2016ko abenduaren 15ean

Naiara Sampedro Perez
EHBildu udal taldeko zinegotzia".

proporciones los recursos necesarios para poder cumplir con las decisiones adoptadas por este Pleno en relación con las políticas contra el racismo y la xenofobia.

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Naiara Sampedro Perez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/las Dª. Naiara Sampedro Perez, Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, Dª. Amaia Martín Garín y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**29. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, sindikatuek "Donostiako Turismo Uholde Handiko Eremua" gaiari buruz iritzia emateko eskubidea dela eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urriaren 17an, Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**29. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el derecho que tienen los sindicatos a opinar sobre el tema "Zona de gran afluencia turística de San Sebastián".**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que se trate en el Pleno. La moción deriva de la interpelación tratada en la Comisión de Espacios Públicos el pasado 17 de octubre de 2016.

JUSTIFIKAZIOA

Hiritarren Parte Hartzearen Araudi Organikoak 18. artikuluan dio donostiar zein elkarteek aukera dutela Udalari zuzendutako eskaerak edo kexak dagokion batzorde edo udalbatzarrean ahoz azaltzeko.

2016ko uztailaren 26an, ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen ordezkariek Udal Gobernuari eta talde politikoei zuzendutako eskaera erregistratu zuten urriko udalbatzarreko galdera-eskarien txandan Donostiako Turismo Uholde Handiko Eremuaren inguruko beren proposamena azaltzeko. Inongo erantzunik jaso ez zutenez, iraileko batzordeetan talde honek gaiaz itaundu zuen eta, harriduraz, Udal Gobernutik jaso genuen azalpena: Udal Gobernuak ez zituen eginiko galderak erantzuten, bestelako asmoren berri emanez. Hain zuzen ere erantzun ezak motibatu zuen 2016ko irailaren 28an lau sindikatuek erregistroz azaroko batzorde eta udalbatzarrean hitza hartzea berretsi behar izatea.

2016ko urriaren 14ean, herri-partaidetzako zinegotzi ordezkariak erantzun zien, ordea, hobeto ikusten zuela sindikatuen eskaria Merkataritza Batzordean azaltzea. Eta sindikatuek, esplizituki, urriko udalbatzarrean hitza hartzeko asmoa agertu arren, erantzun zien azaroko batzordeetan zerrendatzeko eskaera, zegokion presidenteari bideratuko ziola. Hala urriko udalbatzarrera eskaerari zegokion gaia ez zen zerrendatu; ez batzordeetan, ez, ondorioz, Udalbatzan, iragarri bezala. Alabaina, azaroko batzordeetan gaia zerrendatu gabe geratu zenez, talde honek kexua agertu zuen Bozeramaile Batzordean eta, behingoz, egin beharreko prozedurei eutsi eta gai-zerrendatik kanpo izan bazen ere, hiriko

JUSTIFICACIÓN

El artículo 18 del Reglamento Orgánico sobre Participación Ciudadana dice que tanto la ciudadanía como las asociaciones donostiarras tienen la posibilidad de exponer oralmente en las comisiones pertinentes o en el Pleno las peticiones o quejas que dirijan al ayuntamiento.

El 26 de julio de 2016, los representantes de los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT registraron una petición dirigida al Gobierno Municipal y a los grupos políticos en el turno de ruegos y preguntas del pleno de octubre, con objeto de exponer su propuesta en torno a la Zona de Gran Afluencia Turística de San Sebastián. Como no recibieron respuesta, este grupo preguntó, en las comisiones de septiembre, sobre el tema y, sorprendentemente, esta fue la explicación que recibimos del Gobierno Municipal: el Gobierno Municipal no respondía a las preguntas realizadas, dando cuenta de otras intenciones. Precisamente, la ausencia de respuesta motivó que el 28 de septiembre de 2016 los cuatro sindicatos introdujeran vía registro que se ratificara que se pudiera tomar la palabra en las comisiones y el pleno.

Sin embargo, el 14 de octubre de 2016, el concejal delegado de participación ciudadana les respondió que veía con mejores ojos que la petición se expusiera en la Comisión de Comercio. Y a pesar de que los sindicatos, explícitamente, mostraran su intención de tomar la palabra en el pleno de octubre, les respondió que haría llegar al presidente correspondiente la petición para introducirlo en el orden del día de la comisiones de noviembre. Así, el tema que correspondía al pleno de octubre no entró en el orden del día ni de las comisiones, ni, por consiguiente, del Pleno, tal como se anunció. Sin embargo, debido a que el tema no se introdujo en el orden del día de las comisiones de noviembre, este grupo presentó una queja en la Junta de Portavoces y, por fin,

sindikatu nagusiek eginiko eskaera bideratu zen azaroaren 14ko Pertsonentzako Batzordean.

Beraz, 2016ko azaroaren 14ko Batzordean sindikatuek eginiko azalpenetatik, eta bertan izaniko elkarrizketari zein elkarrizketaren garapenari so eginez, ondorio desberdinak atera ditzakegu:

- Udaleko partaidetza sistemak dituen gabeziak ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Udalbatzan bertan hitza hartzeko eskaera zehatza egin zuten duela ia urte erdia, eta oraindik ez da bideratu. Honek argi utzi du Udal Gobernuak herritarren eta eragileen parte hartzeari eman dakiokeen espazioa, egun indarrean dagoen prozedurak guztiz baldintzatzen duela eta ez duela bat ere errazten elkarrizketa publiko aktiboa, demokraziaren zutabeetako bat izan arren.

- elkarrizketa aktiboaren eta eraginkorraren falta Udal Gobernuaren aldetik. Hain zuzen ere adibide argia izan baita ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Udalbatzan galdera egiteko eskaera zehatza, iaztik galdezka izan arren gai zehatz bati zegokionean (Turisten Uholde Handiko Zonaldea delakoari buruzko elkarrizketari bide ematea), azaroa bitartean, Udal Gobernua ez dela gai izan eztabaida bideratzeko, batzordetik pasa ondoren zinegotzi ordezkariarekin biltzeko eguna jarri zutenean eta oraindik ez zaie hitza eman Merkataritza Kontseiluan.

Udal-gobernuaren 2015-2019 Gobernu programak dio “beste era batera gobernatzeko konpromisoa hartzen dutela, hots... gardenago, irekiago... Eredu berri honek kontuan hartuko duela donostiarren ahotsa, parte-hartzailegoa izan dadin eta komunikatzeko bide berriak izan

manteniendo los procedimientos pertinentes y a pesar de que se hizo fuera del orden del día, la petición realizada por los sindicatos principales de la ciudad se trató en la Comisión de Servicios a las Personas de 14 de noviembre.

Por tanto, teniendo en cuenta la exposición realizada por los sindicatos en la comisión del 14 de noviembre de 2016 y atendiendo a la conversación y al desarrollo de la misma que tuvo lugar, podemos extraer diferentes conclusiones:

- Las carencias que tiene el sistema de participación del ayuntamiento, teniendo en cuenta que ha transcurrido casi medio año desde que los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT hicieran una petición concreta, que todavía no ha tenido cauce. Eso ha dejado claro que el espacio que le pueda dar el Gobierno Municipal a la participación ciudadana y de las y los agentes está condicionado por el procedimiento vigente y que no facilita nada el diálogo público activo, a pesar de que sea uno de los pilares de la democracia.

- La falta de diálogo activo y efectivo por parte del Gobierno Municipal. De hecho, la petición expresa realizada por los sindicatos ELA, LAB, CCO y UGT para realizar una pregunta en el Pleno ha sido un ejemplo claro de ello; a pesar de haber preguntando desde el año pasado sobre un tema concreto (que tenga lugar el diálogo sobre la llamada Zona de Gran Afluencia Turística), durante noviembre, el Gobierno Municipal no ha sido capaz de llevar a cabo el debate, una vez se fijara el día para la reunión con el concejal delegado después de que se celebrara la comisión, y todavía no se les ha dado la palabra en el Consejo de Comercio.

El programa de gobierno 2015-2019 del Gobierno Municipal dice que “adopta el compromiso de gobernar de otra manera, es decir... de manera más transparente, más abierta... Ese nuevo modelo tendrá en cuenta la voz de las y los donostiarras, para que sea más participativo y

ditzan.”. Errealitateak erakutsi du ordea, Udal-gobernuak aurkako noranzkoan jokatzen duela.

para que cuente con nuevas vías para la comunicación.". Sin embargo, la realidad ha mostrado que el Gobierno Municipal actúa de manera contraria.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

Así, el grupo EH Bildu presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eta Alkateari, Udalbatzaren presidente bezala ere, Herri Partaidetzarako Arau Organikoak xedatutako eskubide eta aukerak baliatuz, aurtengo uztailaren 26an ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek eginiko eskaera kontuan izan dezaten, eta, beren eskaerari eutsiz gero, dagokien eskubidea halakotzat hartu eta Turisten Uholde Handiko Zonaldea delakoari buruzko gaia Udalbatzarraren gai-zerrendan sar dezaten, eta dagokion unean, hitza hartzeko aukera eman diezaieten.

1.- El Pleno solicita encarecidamente al Gobierno Municipal y al Alcalde, que, en calidad de presidente del Pleno, al amparo de los derechos y posibilidades que ofrece el Reglamento Orgánico dispone para la Participación Ciudadana, tomen en cuenta la petición realizada por los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT y que, de mantener estos su petición, respeten el derecho que les asiste y que introduzcan en el orden del día la cuestión referente a la Zona de Gran Afluencia Turística y que les concedan la posibilidad de tomar la palabra en el momento correspondiente.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari Turisten Uholde Handiko Zonaldea delakoari buruzko elkarrizketa pluralari bide eman deiazion, eta ez dezala bere definizioa egin eragileen iritzia, sindikatuena eta Merkataritza Kontseiluko kideena, kontuan izan gabe.

2.- El Pleno solicita encarecidamente al Gobierno Municipal que dé cauce al diálogo plural sobre la llamada Zona de Gran Afluencia Turística y que no haga su definición sin tener en cuenta la opinión de las y los agentes, de los sindicatos y de los miembros del Consejo de Comercio.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari aurkez dezala Herritarren Partaidetzarako Arau Organikoaren 18. artikuluaren egokitzapenerako arautze-proposamen bat, Donostiako hiritar eta elkarteen ordezkariek, batzorde zein udalbatzarretan eskaera eta kexak zentzuzko epeetan aurkezteko eta erantzuna jasotzeko eskubide subjektiboa izan dezaten.

3.- El Pleno solicita encarecidamente al Gobierno Municipal que presente una propuesta normativa para la adaptación del artículo 18 del Reglamento Orgánico para la Participación Ciudadana, con objeto de que las y los representantes de la ciudadanía donostiarra y de las asociaciones presenten sus solicitudes y quejas en plazos razonables en las comisiones y en el Pleno, y gocen del derecho subjetivo de recibir una respuesta.

Donostian, 2016ko abenduaren 15a

En San Sebastián, a 15 de diciembre de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/las Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Amaia Martín Garín y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

## BESTE KONTROL MOZIO BATZUK

## OTRAS MOCIONES DE CONTROL

**30.1. Kontrol mozioa, PP Taldeak egina, Ondarreta hondartzako hariak direla eta.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendia naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen didan babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkezten diot Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko urtarrilaren 16an izan zuen bileran Ondarreta hondartzako hariak direla eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak azterketa bat agindu du, laginketa bitartez Ondarretako harrien bolumena ezagutzeko. Azterketaren helburua da harrien arazoari neurria hartzea; izan ere, aspaldiko problema honek arazo ugari eragiten dizkie

**30.1. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a las piedras en la playa de Ondarreta.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras Y Servicios Urbanos, celebrada el día 16 de Enero de 2016, relativa a las piedras en la playa de Ondarreta.

JUSTIFICACION

El Ayuntamiento de San Sebastián ha encargado un estudio para conocer el volumen de las piedras de Ondarreta mediante la técnica de calicatas con el objetivo de concretar y definir la dimensión del problema de las piedras que aparecen en este

hondartzaren erabiltzaileei.

Laginketa teknika erabilita, 30 zundaketa gune egin dira: 6 metro sakon dira hondartzaren goialdean, eta 1,5 metrora arte itsasertzean. Gobernu Taldearen asmoa da harriak eskuz ez erretiratu behar izatea, iazko udan egin behar izan zen moduan.

Laginketa bitartez egindako azterketen emaitzei esker, egon daitezkeen irtenbideak zehaztu ahal izango dira, uda sasoian Ondarreta hondartzan harriak agertuz gero.

Gune Publikoen Batzordearen (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azken bilkuran horri buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak adierazi zuenez, hondartzako harriak nolakoak diren eta nondik datozen argitzea da Antiguako hondarretan agindutako lanen helburua, udaldean agertzen direnez gero, erabiltzaile eta bainuzaleei eragozpenak eragiten baitizkiete. Espero dutenez, bi edo hiru aste barru emango diete arazoaren helmena eta hartu beharreko neurriak zehazteko txostena, erantsi beharrekoa delako Kostaldeen Zuzendaritzaren Lurralde Ordezkaritzan baimena eskatu ahal izateko, hondartza denboraldia datorren ekainaren 1ean hasiko bada

Donostiarrak nahiz bisitariak Donostiako hondartza guztiez behar bezala gozatzea galaraz dezaketen egoerak saihesteko, Talde Popularrak ondoko MOZIOA egin du:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu taldeari, Ondarretako harrien ezaugarriei buruzko ezinbesteko txostena jaso ondoren, beharrezko lanak egiteko izapide egokiak hastea, Donostiako hondartzak prest egoteko, hondartza denboraldi ofiziala

arenal desde hace muchos años, y que origina numerosos problemas a los usuarios de la playa.

Con la técnica de las calicatas se ha  realizado 30 puntos de sondeo, que alcanzaban los seis metros de profundidad en la parte alta de la playa y hasta metro y medio en la orilla. La idea del Equipo de Gobierno es la de no tener que realizar una intervención como la retirada de piedras de forma manual, como se tuvo que hacer el verano pasado.

Los resultados de los análisis realizados mediante calicatas permitirán determinar las posibles soluciones ante la aparición de las piedras en el arenal de Ondarreta en época estival.

Preguntado al respecto el Gobierno Municipal en la última Comisión de Espacio Público, el Concejal Delegado contestó que los trabajos encargados en el arenal del Antiguo tratan de identificar la naturaleza y origen de las piedras que están en la playa, y que aparecen en época estival, con las consiguientes molestias a los usuarios y bañistas. Se espera que, en dos o tres semanas, estará entregado el informe que detemine la magnitud del problema y las posibles medidas a adoptar, y que será necesario adjuntar a la solicitud del correspondiente permiso a la Delegación Territorial de Costas de cara al inicio de la temporada de playas el próximo de 1 de junio.

Para evitar situaciones no deseadas que impidan el pleno disfrute del conjunto de los arenales de la ciudad en la temporada de playas por parte de los donostiarras y visitantes, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, una vez reciban el preceptivo informe sobre la caracterización de las piedras de Ondarreta, inicien las gestiones oportunas para comenzar los trabajos necesarios y que las playas de nuestra

hasten denerako (ekainaren 1a), donostiarrak eta bisitariak haietaz oztoporik gabe gozatu ahal izateko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu taldeari azaltzea talde politiko guztiei zein neurri abiaraziko duen udan Ondarretako hondartzan harriak agertzeak sortzen dituena arazoak bideratzeko.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

ciudad estén dispuestas para el pleno disfrute de donostiarras y visitantes cuando comience, oficialmente, la temporada de playas (el 1 de junio).

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que explique al conjunto de los Grupos políticos las medidas a adoptar para dar solución a los problemas que origina la aparición de piedras en la playa de Ondarreta en época estival.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Enero de 2016

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose María Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**30.1. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 30.1.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (5) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**30.2. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 30.2.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.2. Kontrol mozioa, PP Taldeak egina, Gabon Zaharrean Villa Alegria eraikinean izandako after jai baten inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.**

“Talde Popularreko zinegotzi naizen Jose Luis Arrue Pintok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartuta, MOZIO hau aurkezten diot Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak 2017ko urtarrilaren 16an izan zuen bileran Gabon Zaharrean Villa Alegria eraikinean izandako after jai baten inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udal honetan kexak jaso dituzte ospakizun hori egin delako gaztetxe gisa utzitako udalaren lokal horretan. Salatutako gertaeren artean, antza, jokabide asko daude salatzaileek desegokitzat jotzen dituztenak 2013an lagatako udal ekipamendu baterako. Badakigu urtarrilaren 1eko 05:00etatik 12:30era arte zabalik egon zela.

Ordutegi horrek argi eta garbi urratzen du egungo gobernu taldeak lagatzeko erabakia berritzean —lagapena aurreko agintaldian du jatorria— baimendu zituen ordutegiak.

Bizilagun batek baino gehiagok deitu zuten Udaltzaingora eta lehenengo aldia ez dela gehitzen dute.

Zinegotzi ordezkariak batzordean onartu bezala,

**30.2. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a la la celebración de un “after” en Villa Alegría en Nochevieja .**

“D. José Luis Arrue Pintó, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas , celebrada el día 16 de Enero de 2017 relativa a la la celebración de un “after” en Villa Alegría en Nochevieja .

JUSTIFICACION

Este Ayuntamiento ha recibido quejas por esta celebración en este local propiedad municipal cedido como gaztetxe. Los hechos denunciados, al parecer, abarcan muchas comportamientos que por los denunciantes se consideran impropios de un equipamiento municipal cedido en 2013. Sabemos que se abrió desde las 05:00 horas hasta las 12:30 horas del pasado día 1 de Enero.

Este horario incumple claramente los autorizados por el actual Equipo de Gobierno en la renovación del acuerdo de cesión que tiene origen en el anterior mandato.

Se llamó por varios vecinos a la Guardia Municipal, que añaden que no es la primera vez.

En comisión el Concejal-Delegado reconoció que

ez zituzten errespetatu ordutegiak, ezta inolako baimenik eskatu ere. Gehitu zuenez, negatibotzat jotzen zuen gertaera, eta harremanetan daude arduradunekin, ekitaldia aztertu eta legezko neurriak hartzeko.

no se habían respetado los horarios y que tampoco se había solicitado permiso alguno. Añadió que hacían una valoración negativa de lo ocurrido y que están en contacto con los responsables para analizarlo y adoptar las medidas pertinentes

Hori dela eta, Talde Popularrak honako MOZIO hau egiten du:

Es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari talde guztiei eta auzotarrei argibideak ematea etorkizunean Villa Alegria eraikinean horrelakorik ez gertatzeko hartzen dituen neurriez, lagatako jabego hori behar bezala erabiltzea nahiz udal ordenantzak betetzea bermatzeko.

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que informe a todos los Grupos y a los vecinos de las medidas a adoptar para que este tipo de hechos no se puedan producir en el futuro en Villa Alegría garantizando tanto el buen uso de esta propiedad cedida como el cumplimiento de las vigentes ordenanzas municipales.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

En Donostia/San Sebastián, a 19 de Enero de 2017

Jose Luis Arrue Pintó,
Talde Popularreko zinegotzia”.

José Luis Arrue Pintó
Concejal del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. José Luis Arrúe Pinto, D. Martin Ibabe Eceiza, Dª. Amaia Martín Garin, Dª. Naiara Sampedro Perez y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

--------------

**30.3. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, lur mugimendu batzuetatik ateratako materiala Herrera aldean lizentziarik gabe bota eta edukitzea dela eta.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau egin nahi dio Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari, lur mugimendu batzuetatik ateratako materiala Herrera aldean lizentziarik gabe bota eta edukitzea dela eta, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio BatzordeaK urtarrilaren 16an izan zuen bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den abenduan, Herrera inguruko bizilagunen kezkaren berri eman genuen, inguru hartan behin-behingoz utzitako materiala gero eta gehiago dela. Gobernu Taldeari galdetu genion horri buruz.

Material hori Pasaiako portuaren lurretan uzten ari dira, zehazkiago lehen hainbat pabiloi zeuden tokian. Egia da materialaren zati bat baino ez direla uzten ari Donostiako udalerrian, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak berak berretsi zigunez. Baina egia da, orobat, gure udal taldeak egindako galderetatik jakin zuela material hori han uzten ari zirela.

Auzotarren kezka, funtsean, behin-behingoz han uztearen legezkotasunak eta kontrolak eragin dute, bai eta material horren jatorriak eta kalitateak ere. Izan ere, susmoa dabil materiala ez ote datorren Pasaiako zentral termikoa zegoen lurretatik; eta lur horiek, jarduera hura dela kausa, kutsaduraren bat izan lezakete.

**30.3. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el vertido y depósito en la zona de la Herrera.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL sobre el vertido y depósito en la zona de la Herrera, sin licencia previa, de material procedente de movimientos de tierra. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 16 de enero.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de diciembre, haciéndonos eco de la preocupación de distintas vecinas y vecinos de la zona por el creciente depósito provisional de material en la zona de la Herrera, preguntamos al equipo de gobierno sobre el mismo.

El citado material se está depositando dentro de los terrenos del Puerto de Pasajes, más concretamente donde antiguamente había distintos pabellones. Es cierto que sólo una parte del mismo se está haciendo, según nos corroboró el propio delegado de Urbanismo Sostenible, en el término municipal de Donostia. Pero también es cierto que conoció la existencia del mismo a partir de las preguntas formuladas por nuestro grupo municipal.

La preocupación de las vecinas y vecinos, viene motivada fundamentalmente por la legalidad y el control del citado depósito provisional; así cómo por la procedencia del citado material y de la calidad del mismo, ante la sospecha de que el mismo proceda de los terrenos donde estaba instalada la antigua central térmica de Pasaia,

Kezka hori ez da joan.

terrenos que por la actividad que soportaba la misma puedan tener algún tipo de contaminación. Dicha preocupación no ha cesado.

Izan ere, azken 45 urtean, Pasaiako udalerrian —Pasaia Donibanen, zehazki, baina Pasaiako portuaren jabetza eta agindupeko lurretan— Iberdrolaren zentral termiko bat izan da.

Y es que durante 45 años, en el término municipal de Pasaia, pero dentro de las propiedades y dominios del Puerto de Pasajes, estuvo en funcionamiento la central térmica de Iberdrola (en Pasai Donibane).

Hala, zentral termikoa bota eta haren eskonbroak atera ondoren, ezeren eraikin gabe garatu da orubea. Orain, berriz, hondeaketa eta lur mugimendu batzuk egiten ari dira zentral termikoa izan zen orubean, eta Herreran botatzen ari dira handik ateratako lurrak, Donostiako udalerrian —lehen esan dugun bezala— batzu-batzuk.

Demolidas las instalaciones de la central térmica, y retirados los escombros de la misma, ha quedado el solar expedito de edificaciones. En la actualidad se está procediendo a una excavación-movimiento de tierras sobre la superficie donde estuvo la citada central térmica; al tiempo que se está procediendo a un depósito de tierras en la zona de La Herrera, una parte del cuál se está realizando dentro del término municipal de Donostia.

Benetako kezka eragiten du han botatzen ari diren lurraren kalitateak eta kontrolak. Izan ere, era bateko edo besteko kutsadurarik baldin badu, lur hori aurrez tratatu egin behar litzateke, lur horren agente kutsatzailearen arabera.

Existe una inquietud real por la calidad y el control del suelo que se está depositando. Y es que, en el caso de tener algún tipo de contaminación, el mismo debería ser previamente tratado, en función del agente contaminante que soportase o contuviese.

Udal Gobernuak ezeren berririk ematen ez zuela eta, interpelazio bat egin beharrean izan ginen. Hala, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi eskuordedunak esan zigun, guk iazko abenduaren hasieran egin genuen salaketa egiaztatu eta gero, lurrak botatzeari uzteko agindu zutela 2016ko abenduaren 12an, zer gerta ere, eta abenduaren 13an, berriz, zigor espediente bati ekitea erabaki zutela, hutsegite larriagatik.

Ante la ausencia de noticias por parte del Gobierno Municipal, nos vimos en la obligación de interpelar al respecto. El concejal delegado de Urbanismo Sostenible nos informó de que, tras verificar la veracidad de nuestra denuncia de primeros de diciembre, se ordenó el 12 de diciembre de 2016 la suspensión cautelar del vertido; y el 13 de diciembre se acordó iniciar expediente sancionador por falta grave.

Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi eskuordedunak ez zuen esan, ordea, ez botatzen ari ziren materiala nondik zetorren eta ezta material hura zer klasetakoa zen ere. Gu harrituta geratu ginen bi gauza horien gainean ezer ere ez zekielako edo, erantzunean bederen, ezer ere esan ez zuelako zinegotzi

Sin embargo, nada dijo el delegado de Urbanismo Sostenible sobre la procedencia de origen del material vertido, ni sobre la calidad del citado material. En este caso es preciso destacar que nos sorprendió su respuesta con respecto a la ignorancia sobre ambos aspectos; máxime teniendo en cuenta que ya desde el primer

eskuordedunak. Eta oraindik eta gehiago guk hasiera-hasieratik jakinarazi geniolako Udal Gobernuari —abenduaren hasieran bertan— inguru hartako bizilagunek susmoa zutela Iberdrolak Pasai Donibanen zuen zentral termikotik ote zetozen —kutsatuta izan zitekeen orube batetik— han botatzen ari ziren lurrak.

Horiek horrela direla, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio ahalik eta azkarren ekiteko Herrera aldean, udal barrutian, bototako lurrak zer motatakoak diren aztertzeko eta, batez ere, lur horiek zerbaiten elementu kutsagarririk ote duten ikusteko prozedurari.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lur horiek nondik etorri diren ikerrarazteko, eta lege aldetik egin daitezkeen guztiak egiteko horien gainean.

3.- Era berean, Udalari eskatzen dio egindako ikerketen emaitzen berri emateko publikoki, nola izan den edo izan diren arau-hausteen gaineko emaitzenak, hala botatako lur edo materialaren kalitatearen gaineko emaitzenak.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an.

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia.".

momento, a primeros de diciembre, transmitimos al Gobierno Municipal la sospecha de vecinos y vecinas del entorno de que los mismos podían venir de un suelo potencialmente contaminado como es el de la antigua central térmica de Iberdrola en Pasai Donibane.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia solicita al Gobierno Municipal que ponga en marcha el procedimiento necesario para que, con la mayor celeridad, se analicen las características de los vertidos realizados dentro del termino municipal, en la zona de La Herrera, así como para determinar especialmente si los mismos presentan algún tipo de elemento contaminante.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que ordene investigar la procedencia de los citados vertidos; acordando el ejercicio de cuántas acciones legales fuesen posibles en relación a los mismos.

3.- Así mismo se insta al Ayuntamiento a dar explicaciones públicas sobre los resultados de las labores de investigación realizados; tanto respecto a la infracción o infracciones cometidas, como con respecto a la calidad del suelo o material vertido.

En Donostia, a 19 de enero de 2017

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del grupo municipal de EH BILDU ".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**13:56AN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:00AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 13:56 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:00 H.**

---------------

**30.4. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Gabonetako Merkatu Handia dela eta.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, "Gabonetako Merkatu Handiari" buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urtarrilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ernesto Gasco zinegotzi ordezkariak Donostian “Gabonetako Merkatu Handi” bat egingo zela iragarri zuen abendu hasieran; Europako beste hiriburu batzuen antzera, eta egia esan, merkatua “saltzeko”, ez zion inongo mugarik jarri adjektibo kalifikatzaileen erabilerari: adjektibo guztiak, positiboak, noski. Komunikabideek donostiarrei “merkatu handia” horrela helarazi zieten.

“Gabonetako Merkatu Handia” ireki zenean,

**30.4. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el Gran Mercado de Navidad.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete a la consideración del Pleno la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre las oficinas de turismo de San Sebastián. Esta moción es consecuencia de la interpelación sustanciada el 16 de enero de 2017 ante la Comisión de Servicio a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El concejal delegado, Ernesto Gasco anunció a comienzos de diciembre la celebración de un “Gran mercado navideño”, tal y como se hace en otras capitales europeas, y no reparó en calificativos —todos ellos positivos— a la hora de “vender” este mercado. Asimismo, los medios de comunicación también calificaron como “gran mercado” el acontecimiento.

Una vez abierto el “Gran mercado navideño, las y

donostiarrak ilusioz gainezka ikustera joan ziren, eta orduan errealitatea beste bat zela konturatu ziren. Batek baino gehiagok "urte hasieran 2016ko inaugurazioa zela-eta, ikuskizuna ikustera etorri nintzen hona eta ia leku berean ederki bukatu dugu urtea... Zubien errua izango omen da" adierazi zuen.

Udal Gobernuak, jakinda huts nabarmena egin zuela, denboraren premia argudiatu du, aitzakia moduan. Nahiz eta, orain arte behintzat, gabonen datak berberak izan diren urtero. Gainera, artisauen merkatua, beti bezala, Koldo Mitxelena eraikuntzaren aurrean egin da. Beraz “Gabonetako Merkatu Handiaren” parte ez da izan. Donostiako merkatari askok ere ez zuten merkatuaren berri.

Zinegotzi ordezkariak merkatari elkarteekin hitz egin zuela, baina ez zutela ezer gauzatu adierazi zuen.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, datorren urteko Gabonetako Merkatu Handia aurrera eramatekotan, bertako merkatariekin eta Koldo Mitxelenaren aurrean jarri ohi den artisau feriarekin akordia itxi dezala, haiek ere gabonetako merkatuaren parte izan daitezen.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, aurreko puntuan aipatutako eragileekin akordioa itxiko ez balu, haien eginkizuna susta dezala.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

los donostiarras acudieron con gran ilusión a visitarlo, pero enseguida se dieron cuenta de que la realidad era otra. Más de una persona decía: “Comencé el 2016 acudiendo a presenciar el acto inaugural de la Capitalidad, y he finalizado el año estupendamente casi en el mismo sitio… Será culpa de los puentes.”

El Gobierno Municipal, consciente de haber cometido un error evidente, ha argumentado la premura de tiempo como excusa. A pesar de que, al menos hasta la hoy, las fechas navideñas son siempre las mismas. Además, el mercado de artesanía se ha celebrado, como siempre, delante del centro cultural Koldo Mitxelena. por lo que no ha formado parte del “Gran mercado navideño. Numerosos comerciantes donostiarras tampoco han tenido conocimiento de la celebración de este mercado navideño.

Según manifestó la Concejalía Delegada, se entrevistaron con las asociaciones de comerciantes, pero no concretaron nada.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que en caso de sacar adelante el Gran Mercado Navideño cierre un acuerdo con el comercio local y con la feria de artesanía que habitualmente se emplaza ante el Koldo Mitxelena, para que también formen parte del mercado navideño.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que si no cerrase un acuerdo con los agentes mencionados en el punto anterior promocione su labor.

En San Sebastián, a 19 de enero de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak, Idazkari jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, Dª. Amaia Martín Garín, D. Ernesto Gasco Gonzalo, Sr. Secretario y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Uliako Plan Berezia dela-eta.**

“Axier Jaka Goikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko abenduaren 12an Lurralde Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2010ean Udalbatzan onartutako Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (HAPO) agintzen zuen Landa Parke (F.20) gisa definitutako “Uliako Parkea” barrutiaren Plan Berezia 2012rako egin behar zela, gutxi-gora-behera 3,45 Km2-ko azalera barnebiltzen duena. Zentzu honetan, aurreko legegintzalditik, Ingurumen eta Hirigintza departamenduek, bai teknikoki, bai politikoki, eskuz esku Plan Bereziaren idazketari ekin zioten.

Legegintzaldi honetan, udal taldeek

**30.5. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el Plan Especial de Ulia.**

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada el 12 de diciembre de 2016 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), aprobado por el Pleno Municipal en 2010, establece que el Plan Especial del Parque de Ulía, definido como Parque Rural (F.20) y con una superficie aproximada de 3,45 km2, debía estar elaborado para el 2012. En la legislatura anterior, los departamentos de Medioambiente y Urbanismo abordaron de forma conjunta, tanto en el plano técnico como en el político, la labor de redacción del Plan Especial.

Posteriormente, ya en la presente legislatura, los

batzordeetan hamaika aldiz galdetu eta interpelatu dugu plan berezi honen onarpenaren inguruan. Udal Gobernutik hasieratik erantzun zitzaigun prestutasuna zuela Uliaren ordenazio eta babeserako dokumentu honen idazketa amaitzeko.

grupos municipales hemos presentado, en numerosas ocasiones, diversas preguntas e interpelaciones sobre la aprobación de este plan especial. Desde el principio, el Gobierno Municipal nos respondió que estaba dispuesto a acabar de redactar este documento para la ordenación y protección de Ulía.

Horiek horrela, 2016ko uztaileko udalbatzarrean, Ekologiako zinegotziak esan zuen plan berezi honen onarpena iraila-urrirako izango zela. Epe hori pasatu ondoren, azaroko batzordeetan adierazi zitzaigun Donostialdeko Lurralde Zatitako Planaren onarpena dela-eta, Uliako Plan Berezia baldintzatuta gelditzen zela eta agian Pasaiako Udalarekin Pasaiako itsasadar edo bokaren ordenazioa adostu beharko zela, horrek eragin zezakeen atzerapenarekin. Zentzu honetan, azaldu zen barne kontsulta juridiko bat abiatua zuela Udal Gobernuak zalantza hori argitzeko. 2016ko abenduan adierazi zitzaigun kontsulta juridikoa Udalean argitu beharrean, Eusko Jaurlaritzari bideratuko zitzaiola, aste horretan bertan, Plan Berezia praktikoki amaituta zegoela adieraziz eta erantzuna jaso bezain laster informatuko zitzaigula. 2017ko urtarrileko batzordeetan galdera eginda, ordea, erantzun zaigu Eusko Jaurlaritzari ez zaiola inolako kontsultarik luzatu eta Udalean barne desadostasunak daudela plan hau onartzeko; argitu ez zaigun arren zein motatako desadostasunak diren.

En el pleno de julio de 2016, el concejal de Ecología nos comunicó que el plan se aprobaría en septiembre u octubre. Transcurrido dicho plazo, en las comisiones de noviembre, se nos dijo que, debido a la aprobación del Plan Parcial Territorial de Donostialdea, el Plan Especial de Ulía quedaba condicionado y que quizá debería llegarse a un acuerdo con el Ayuntamiento de Pasajes sobre la ordenación de la boca de la ría situada en esa localidad, con la demora que eso podría conllevar. En este sentido, se nos explicó que el Gobierno Municipal había puesto en marcha una consulta jurídica interna para aclarar esta cuestión. En diciembre de 2016, se nos informó de que la consulta jurídica, en lugar de dilucidarla en el Ayuntamiento, se haría llegar al Gobierno Vasco esa misma semana; que el Plan Especial estaba prácticamente terminado, y que nos informarían en cuanto recibieran alguna respuesta. Sin embargo, cuando preguntamos en las comisiones de enero de 2017, se nos respondió que no se había hecho ninguna consulta al Gobierno Vasco y que, dentro del Ayuntamiento, existen desacuerdos internos con respecto a la aprobación de este plan, aunque no se nos ha explicado qué tipo de desacuerdos son.

Horiek horrela, gardentasun ikuspegitik, Udal Gobernuak Udalbatzako taldeekin ez duela garbi jokatu eta ez zaigula zintzotasunez informatu uste dugu. Eta kudeaketa ikuspegitik, Udal Gobernu hau, planaren idazketa oso aurreratuta jaso zuen arren, urte eta erdiko epean ez da plan berezi honen idazketa amaitzeko gai izan, eta hori kudeaketa txar baten seinale da. Gainera, gogorarazi behar dugu 2010eko H.A.P.O.ak Uliako Plan Berezia natur-babes

Así, pues, creemos que el Gobierno Municipal no ha actuado de forma clara y transparente con los grupos que formamos el Pleno Municipal y que no nos ha informado del modo debido. Además, desde el punto de vista de la gestión, tampoco ha actuado adecuadamente ya que, aunque la redacción del plan estaba muy avanzada cuando este gobierno municipal asumió sus funciones, no ha sido capaz de finalizarla en año y medio. Además, no podemos olvidar que el PGOU de

helburuekin onartzea behartzen duela; Ulia 2013tik Kontserbazio Bereziko Eremua (ZEC) izendatua izan dela Europar Batasuna eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik, eta udal taldeek 2015eko azaroan, 2016ko uztailean eta urte bereko azaroan ere, kontrol mozien bidez, babes eta ordenazio dokumentuaren onarpena eskatu dugula udalbatzarrean.

2010 obliga a aprobar el Plan Especial de Ulía teniendo en cuenta el objetivo de protección de la naturaleza; que Ulía fue designada en 2013 como Zona Especial de Conservación, por la Unión Europea y por el Gobierno Vasco, y que los grupos municipales, en noviembre de 2015, en julio de 2016 y en noviembre del mismo año, hemos pedido en el Pleno, mediante varias mociones, la aprobación del documento de protección y ordenación.

Horregatik guztiagatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen konpon ditzala barne desadostasunak Uliako Parkea barrutiaren Plan Bereziaren idazketa amaitzeko; Europaren aldetik Kontserbazio Bereziko Eremu izendatua izan den hiriko gune berde honek dagokion babesa izan dezan eta Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak agindutakoa bete dadin.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que resuelva inmediatamente sus desacuerdos internos para poder finalizar la redacción del Plan Especial del Parque de Ulía; que esta zona verde de la ciudad, designada por Europa como Zona de Especial Conservación, cuente con la protección que le corresponde y que se cumpla lo dispuesto en el Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19a

San Sebastián, 19 de enero de 2017

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, Klima Estrategia 2050i buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa, 2017ko urtarrilaren 16ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean, Alfonso Gurpegi Ruiz zinegotzi ordezkariari KLIMA ESTRATEGIA 2050i buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Parisen egindako klimaren gailurraren ondoren, Donostiako Udalak klima aldaketaren estrategia egokitu behar du 2030era eta 2050era begira, baita jarduera ildo nagusiak zehaztu ere. Herritarren partaidetzarekin, Klima Estrategia 2050 garatzen ari dira.

Klima aldaketaren aurkako borroka premiazkoa eta lehen mailako kontua da. Horren erakusgarri da atmosferan CO2aren kontzentrazioak duela gutxi izan duen bilakaera kezkagarria. 2013an, lehen aldiz gainditu zuen CO2ren kontzentrazioak 400 parte milioiko muga atmosferan. 2015ean, hilabete oso batez gainditu zen balio hori. Eta, 2016an, urte osoan egon gara kopuru horretatik gora. Lurrean, azken aldiz, duela milioi bat urte baino gehiago izan zuen CO2k 400 parte milioiko kontzentrazioa, oraindik gizakirik ez zenean.

Nazioarteko komunitateak gero eta konpromiso handiagoa erakusten du borroka horrekiko, eta hiriak nabarmentzen ari dira borroka horretan duten egitekizun funtsezkoagatik; hala erakusten dute "Compact of Mayors" bezalako nazioarteko

**30.6. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la Estrategia Klima 2050.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre LA ESTRATEGIA KLIMA 2050 al concejal delegado Alfonso Gurpegi Ruiz en la comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del 16/01/2017.

JUSTIFICACIÓN

Tras la Cumbre del Clima de París, el Ayuntamiento de Donostia debe adecuar su estrategia para el cambio climático de cara a 2030 y 2050, y definir las principales líneas de actuación. Se está trabajando, contando con la participación ciudadana, en la elaboración de la Estrategia Klima 2050.

La lucha contra el cambio climático es un asunto urgente y de primer orden. Prueba de ello es la reciente y alarmante evolución de la concentración de CO2 en la atmósfera. En 2013 se sobrepasó por primera vez el límite de 400 partes por millón (ppm) de CO2 en la atmósfera. En 2015 se estuvo todo un mes por encima de este valor. Y en 2016 hemos estado todo el año por encima de esa cifra. La ultima vez que la tierra tenía 400 ppm de CO2 en la atmósfera, fue hace más de un millón de años, cuando los humanos todavía no existíamos.

La comunidad internacional muestra cada vez más su compromiso con esa lucha, y las ciudades destacan por su papel primordial en ella, como lo demuestran algunas iniciativas internacionales como la denominada “Compact of Mayors”.

ekimenek.

Behar-beharrezkoa da klima aldaketaren ondorioak arintzeko lan egitea, baina aldaketa horretara egokitzeko lan egitea ere beharrezkoa da; izan ere, haren kausa guztiak gaur bertan ezabatuta ere, hain da larria egoera, urte luzez jasango ditugu haren eraginak.

Trabajar para mitigar el cambio climático es una urgencia, pero igualmente urgente es trabajar para adaptarnos a él, ya que incluso eliminando hoy mismo todas las causas del mismo, la situación es tal que sufriremos sus efectos durante muchos años.

Kantabriako Hidraulika Institutuak 2015ean egindako azterketa baten arabera, Euskadin denboraleak areagotu egingo dira klima aldaketaren eraginez, eta ohartarazi du gure kostaldean itsas maila igotzeak izan ditzakeen eraginez. Era berean, gaur egungo joerari eutsiz gero, 2040an Gipuzkoako herritarren % 2-3k jasango ditu uholde iraunkorrak. Ibaia duen kostaldeko hiri bat gara, eta sobera dakigu zenbat kostatzen duten denborale suntsitzaileek. Denboraleak, gainera, 10 urterik behin gertatu ordez, urtero gertatuko dira.

A este respecto, el estudio elaborado por el Instituto de Hidráulica ambiental de Cantabria en 2015 afirma que el cambio climático causará en Euskadi un aumento en la frecuencia de temporales y advierte sobre los efectos de la subida del nivel del mar en nuestras costas. Así mismo, si se mantiene la actual tendencia, en el año 2040 las personas afectadas por inundación permanente estarán en torno al 2-3% de la población total de Gipuzkoa. Somos una ciudad costera con rio, y conocemos de sobra lo que cuestan los temporales destructores que, en lugar de ocurrir cada 10 años, ocurrirán cada año.

Kontu garrantzitsua da klima aldaketaren aurkako borroka, maila pertsonalean zein Udalaren organoetan herritarren partaidetza behar izateko bestekoa. Klima 2050 ekimena begi onez ikusten dugu eta, ahal dugun guztietan, modu konstruktiboan parte hartzen saiatzen gara. Zoritxarrez, ikusi dugu prozesuak ez duela aurrera egiten behar besteko sakontasun eta abiadan:

La lucha contra el cambio climático es una asunto suficientemente importante como para necesitar una amplia implicación de la ciudadanía tanto a nivel individual y como en los órganos que la representan en el Ayuntamiento. Vemos positivamente la iniciativa Klima 2050 e intentamos participar constructivamente en ella cada vez que nos es posible. Desgraciadamente observamos que el proceso no avanza con la profundidad y el ritmo adecuados:

- Zinegotzi ordezkariak batzordean azaldu digunez, helburuen adierazpena hilabeteko atzerapenarekin onartuko da.
- Halaber, adierazi digu 2017an egingo dela ekintza plana, zehaztapen gehiago eman gabe.
- Ingurumeneko Kontseilu Sektorialean Klima Estrategia 2050en aurkezpena baino ez zen egin, eta kontseilu sektorial horrek proiektuan eginkizun

- El Concejal Delegado nos ha explicado en comisión que la aprobación de la declaración de los objetivos se hará con un mes de retraso;
- También explicó que el plan de acción se elaborará en 2017, pero sin dar más concreción.
- En el Consejo Sectorial de Medio Ambiente solo se hizo una presentación de la Estrategia Klima 2050, cuando este debería tener un papel más importante en

garrantzitsuagoa izan beharko luke.

- Klima Estrategia 2050en webgunean azaltzen denez, laugarren foroa (amaiera eta ondorioak) abenduan zen egitekoa, baina gaur egun lehen foroaren ondorioak baizik ez daude ikusgai.
- Agendan ez du ezer jartzen, beste orri batzuek ez dute eduki propiorik, eta ezin dira parte hartzaileek egindako ekarpenak ikusi dagokion fitxan.
- Herritarrek modu boluntarioan eta bat-batean parte hartzeko mugak daude.

Garrantzitsua da bide orri argi bat izatea eta herritarren parte hartzea sustatzea, Klima Estrategia 2050i merezi duen inportantzia emateko.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio eguneratu eta eguneratuta eduki dezala Klima Estrategia 2050en webgunea, informazio osoa emateko herritarrek honako hauek egin ahal izateko:

- ✗ prozesuaren jarraipen zehatza egitea,
- ✗ beste herritar edo erakunde batzuek egindako proposamenak kontsultatzea,
- ✗ Elkarlanean eta bete-betean parte hartzea.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio handitu dezala Klima Estrategia 2050 prozesuaren komunikazioa, herritarren parte hartzea sustatze aldera.

el proyecto.

- La web de la Estrategia Klima 2050 indica que el cuarto foro («cierre y conclusiones») se tenía que realizar en diciembre, pero solo están disponibles al día de hoy las conclusiones del primer foro.
- La agenda no indica nada, muchas de las otras paginas no tienen contenido propio, y no se pueden ver las aportaciones de los y las participantes en la pestaña correspondiente.
- Los cauces para la participación voluntaria y espontánea de la ciudadanía son limitados.

Tener una hoja de ruta clara y potenciar la participación ciudadana son elementos importantes para otorgarle el peso que merece a la Estrategia Klima 2050.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a renovar o actualizar, y mantener actualizada, la web de la Estrategía Klima 2050 con el fin de proporcionar toda la información necesaria para que la ciudadanía pueda:

- ✗ hacer un seguimiento fino del proceso,
- ✗ consultar las propuestas elaboradas por otros y otras ciudadanas o entidades,
- ✗ participar en ello plenamente y de forma colaborativa.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a incrementar la comunicación del proceso de elaboración de la Estrategia Klima 2050 con el fin de potenciar la participación ciudadana en tal proceso.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio gehiago zehatz dezala noiz bukatu eta aurkeztuko den Klima Estrategia 2050.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a definir con más concreción cuando se finalizará y presentará la Estrategia Klima 2050.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Axier Jaka Goikoetxea jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y D. Axier Jaka Goikoetxea, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.7. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, gazteentzako zuzkidura bizitokiak direla eta.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, GAZTEENTZAKO ZUZKIDURA BIZITOKIAK direla eta, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa urtarrilaren 16ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 16ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean azaldu genuen bezala,

**30.7. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los apartamentos dotacionales para personas jóvenes.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre APARTAMENTOS DOTACIONALES PARA PERSONAS JOVENES fruto de la interpelación correspondiente en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio de 16 de enero.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como explicamos en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del pasado

urriaren 29an, Donostiako Udalak gazteei bideratutako zuzkidura bizitegi batean bizi den donostiar gazte baten egoera ezagutu genuen. Pertsona horrek apartamentua utzi egin behar du, dagoeneko bost urte —etxebizitza mota horretarako araudian aurreikusten den epea— igaro dituelako bertan.

día 16, el pasado 29 de octubre tuvimos conocimiento de la situación de un joven donostiarra residente en un apartamento dotacional para personas jóvenes del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián. Esta persona debe abandonar el apartamento en el que reside ya que han transcurrido los cinco años previstos en la normativa para este tipo de vivienda.

Gazteak adierazi duenez, haren egoera pertsonal eta ekonomikoa eta hiriko etxebizitza merkatuaren egoera direla medio (alokairuko etxebizitza gutxi arrazoizko prezioetan, erroldatzeko zailtasunak logela bat alokatuz gero), arazoak ditu zuzkidura bizitegia uzteko. Etxebizitza uztearen ondorioz, erroldatzea gal dezake, baita une honetan jasotzen dituen beste laguntza sozial batzuk ere.

El joven ha manifestado que debido a su situación personal y económica, y a la realidad del mercado de la vivienda en la ciudad (escasez de vivienda el alquiler a precios asequibles, dificultades de empadronamiento en caso de alquilar una habitación), tiene problemas para abandonar el apartamento dotacional, lo que podría suponer la pérdida del empadronamiento y a su vez la de otro tipo de ayudas sociales que recibe en este momento.

Irabazi Donostiak badaki zein diren bizitegi mota horren ezaugarriak: emantzipatzeko aldi baterako aukera bat dira, ez behin betiko bizitegiak, eta horrek bizilagunak txandakatzeko bidea ematen du. Halaber, badakigu zer-nolako itxaron zerrenda dagoen apartamentu horietan sartzeko. Horrek erakusten du egoera ekonomikoak ez duela hobera egin pertsona asko eta askorentzat, ezta etxebizitza merkatuak ere, espekulaziorako gai baita berriz ere. Horrek guztiak arazo larriak eragiten dizkie etxebizitza bat eskuratzeko edo logela bat alokatzeko baliabide nahikorik ez duten hainbat herritarri.

Desde Irabazi Donostia somos conscientes de las características de este tipo de alojamientos, pensados como una alternativa temporal de emancipación, y no como una residencia definitiva, lo que propicia la rotación en los mismos. También de la lista de espera que hay para acceder a estos apartamentos, lo que da una idea de que la situación económica no ha mejorado para muchísimas personas, ni tampoco el mercado de la vivienda, que sigue siendo objeto de especulación. Todo ello, provoca verdaderos problemas para una parte importante de la población que no tiene recursos suficientes para acceder a una vivienda, a veces ni siquiera al alquiler de una habitación.

Beste etxebizitza aukerarik gabe, pertsona batek zuzkidura bizitegia utzi behar izateak zaurgarritasun handiagoko egoerak ekar ditzake. Erakunde publikoek kosta ahala kosta saihestu behar dituzte halako egoerak, pertsona horientzat latzagoak izan daitezkeen ondorioei aurre egin behar ez izateko. Gainera, Donostiako Udalak konpromisoa azaldu du

El hecho de que una persona tenga que dejar un apartamento dotacional municipal sin tener una alternativa de vivienda, puede desencadenar situaciones de mayor vulnerabilidad, algo que desde las instituciones públicas se debe evitar a toda costa, para no tener que hacer frente a consecuencias aún peores para esas personas. Además, el Ayuntamiento de Donostia ha

Donostia etxegabetzerik gabeko hiria izan dadin, eta banku erakundeekin gestioak egin ditu donostiarrak etxetik bota ez ditzaten. Horrenbestez, Udalaren inplikazioak handiagoa izan behar du etxegabetzea udal apartamentu batean gertatzen denean, zaurgarritasun handiko egoerak —konpontzeko zailak direnak— ekidin nahi badira behintzat.

Ildo horretan, irailaren 6an, Donostiako Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Elkar-EKIN 2016-2020 Gipuzkoako Gizarteratze Planean lankidetzan aritzeko. Planean, 2016 eta 2017 bitartean egin beharreko ekintzen artean, 1.3 puntuak (Bazterketa egoeran dauden pertsonentzat egoitza baliabide berriak, eta eguneko nahiz gaueko arretakoak sortu eta berrantolatzea) egoitza bat, Housing First kasu, edukitzeko beharrizanean egiten du azpimarra.

Era berean, gogoratu beharra dago 29an gure udal taldeak aurkeztutako kontrol mozioa aho batez onartu zuela Udalbatzak. Bertan, Udal Gobernuak konpromisoa hartu zuen, 2016 amaitu baino lehen, txosten bat aurkezteko, Housing First ekimena abian jartzera bideratuko ziren baliabideak zehaztuz, baita hura garatzeko kronograma ere. Hala ere, oraindik ez dugu horren berririk izan.

Behin eta berriro diogu Donostian etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak daudela, eta horrek ondorio latzak dakartzala pertsonen bizitzan; izan ere, bizitzeko toki bat izatea da bizitza duin bat lortzeko lehen urratsa. Nolanahi ere, etxebizitza espekulaziorako gaia da, eta erakunde publikoek indarrak batu behar lituzkete hori izateari utz diezaion. Tamalez, horren partez, sozietate espezifikoak sortzen dituzte, hala nola Higiezinen Merkatuan Inbertitzeko Sozietate Anonimo Kotizatuak. Horien helburu bakarra da etxebizitzen kontura dirua egitea, etxebizitza negozio ona den tokietan, Donostian

mostrado su compromiso porque Donostia sea una ciudad libre de desahucios, y ya ha realizado gestiones con entidades bancarias pera evitar desahucios de donostiarras. Por lo tanto, su implicación en aquellos casos en los que el desalojo sea de un apartamento municipal debe ser aún mayor, si se quiere evitar situaciones de mayor vulnerabilidad más difíciles de resolver.

En este sentido, el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián firmó el 6 de septiembre pasado, un convenio con la Diputación Foral de Gipuzkoa para colaborar con el Plan foral de Inclusión Social 2016-2020 Elkar-EKIN. Entre las acciones a llevar a cabo por el citado Plan entre 2016 y 2017, el punto 1.3 “Creación y reordenación de nuevos recursos residenciales y de atención diurna y nocturna para atender a personas en situación de exclusión”, pone el foco en la necesidad de tener una residencia, entre otras el Housing First.

Igualmente, cabe recordar también que la moción de control presentada por nuestro Grupo municipal el 29 de aprobada por unanimidad por el Pleno. En ella el Gobierno municipal se comprometió a presentar, antes de que finalizara 2016, un informe que detallara los medios que se iban a destinar para la puesta en marcha de la iniciativa Housing First, así como el cronograma en el que se desarrollaría, pero a día de hoy no hemos tenido noticia alguna al respecto.

Insistimos en las dificultades de acceso a una vivienda en Donostia, con las graves consecuencias que ello tiene en la vida de las personas, ya que tener un lugar en el que vivir es el primer paso para tener una vida digna. No obstante, la vivienda sigue siendo objeto de especualción, y las administraciones públicas deberían centrar sus esfuerzos en que deje de serlo. Lamentablemente, en lugar de eso, se crean sociedades específicas como las Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión Inmobiliaria (SOCIMI), cuyo único fin es hacer dinero con la vivienda allí donde es un buen negocio, como por

adibidez.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio aurkez dezala Udalaren zuzkidura bizitokien araudia aldatzeko proposamen bat Etxegintzaren administrazio kontseiluan; hala, jarduketak aurreikusi ahal izango dira bizitokiak uzteak eragin ditzakeen zaurgarritasun egoera larriak saiheste aldera.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, sei hilabeteko epean, aurkez dezala plan bat etxebizitza parke publiko batez hornitzeko, zaurgarritasun egoeran egoteagatik etxebizitzaren merkatu pribatuan sar ezin daitezkeen pertsonen etxebizitza premiak asetzeko.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bete dezala Housing Firsti buruzko mozioa, 2016ko irailaren 29an Udalbatzak aho batez onartua.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

ejemplo en Donostia.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que presente en el Consejo de Administración de Etxegintza una propuesta de modificación de los reglamentos de los apartamentos dotacionales municipales, de manera que se prevean actuaciones para evitar que la salida de los mismos pueda provocar situaciones de vulnerabilidad graves para quienes deben abandonarlos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que presente, en el plazo de seis meses, un plan para dotarse de un parque público de vivienda suficiente para atender las necesidades de vivienda de aquellas personas que por su situación de vulnerabilidad no pueden acceder al mercado privado de vivienda.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a cumplir la moción sobre Housing First aprobada por unanimidad por el Pleno municipal el 29.09.2016

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**30.7. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 30.7.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**30.7. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 30.7.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**30.7. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 30.7.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.8. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, hiri barruko merkantzia garraioaren foroari buruzkoa.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILKURAN azter

**30.8. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el Foro de distribución urbana de mercancías.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU

dadin. Mozioa, 2017ko urtarrilaren 16ko Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Pilar Arana zinegotzi ordezkariari HIRI BARRUKO MERKANTZIA GARRAIOAREN FOROARI buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación sobre EL FORO DE DISTRIBUCIÓN URBANA DE MERCANCÍAS a la concejala delegada Pilar Arana en la comisión de Espacio Publico, Obras y Servicios Urbanos del 16/01/2017.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Azaroan, Donostiako Udalak, Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren laguntzaz, Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroa jarri zuen martxan.

El pasado mes de noviembre el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián con el apoyo del Cluster de Movilidad y Logística de Euskadi puso en marcha el Foro de Distribución Urbana de Mercancías.

Antolatzaileen arabera, foroaren helburuak dira jarduera berritzaileak identifikatzea, aztertzea, proposatzea, garatzea eta abian jartzea, merkantzia modu eraginkor, sostengagarri eta garbiago baten kudeatzeko; eta Donostia "hiri logistika sostengagarrian erreferentzia" izatea.

El objetivo del Foro es, según sus proponentes, el de identificar, analizar, proponer, desarrollar y poner en marcha actuaciones innovadoras que contribuyan a una gestión de mercancías más eficiente, sostenible y limpia, y convertir a Donostia en un “referente en logística urbana sostenible”.

Hala ere, foroko kideen artean, ingurumen arloan lan egiten duten erakundeak falta dira. Batzordean erakunde horiek zergatik falta diren galdetuta, zinegotzi ordezkariak erantzun zigun foro hori sortzeko beste hiri batzuetako foroak hartu zirela eredutzat, eta, horietan ingurumen arloko erakundeek ez dutenez parte hartzen, ez zuten baloratu aukera hori. Hala ere, ingurumen arloko erakundeek foroan parte hartzearen alde agertu zen.

Sin embargo, entre los componentes del Foro se da una ausencia de organizaciones que trabajan en el ámbito del medio ambiente. En comisión preguntamos el motivo de esa ausencia, y la Concejala Delegada respondio que se para crear ese foro se había tomado como ejemplo otros foros que se hacen en otras ciudades y que como esos mismos no incluyen organizaciones medio-ambientalistas, no se valoró la ideoneidad de hacerlo aqui. No obstante, se mostró abierta a que organizaciones medioambientales puedan participar en el foro.

Gure ustez, oso interesgarria eta aberasgarria izango litzateke, bai merkantzia garraioaren sektoreko enpresentzat, bai ingurumen arloko erakundeentzat. Hala, sektore desberdinen arteko topaketei esker, kontzeptu eta praktika berriak sor daitezke.

Creemos que sería algo efectivamente interesante y enriquecedor tanto para las empresas del sector del transporte de mercancías, como para las organizaciones medioambientales. Ese tipo de encuentro entre sectores diferentes puede favorecer el surgimiento de conceptos y prácticas nuevas.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio, Ingurumeneko Aholku Batzordearekin elkarlanean, erraztasunak eman ditzala ingurumen arloko erakundeek hiri barruko merkantzia garraioaren foroan parte hartzeko.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno, en colaboración con el Consejo Asesor de Medio Ambiente, a facilitar la participación de organizaciones medioambientales en el foro de distribución urbana de mercancías.

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.9. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, udalaren kontratazio publikoan gizarte eta ingurumen irizpideak txertatzeari buruzkoa.**

"Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, UDALAREN KONTRATAZIO PUBLIKOAN GIZARTE ETA INGURUMEN IRIZPIDEAK TXERTATZEARI buruzko MOZIO hau aurkeztu nahi du, OSOKO BILKURAN azter dadin. Mozioa, hil honetako Ogasun Batzordean, Jaime Dominguez-Macaya zinegotzi ordezkariari egindako interpelazioaren ondorio da.

**30.9. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre inclusión de criterios sociales y medioambientales en la contratación pública de este Ayuntamiento.**

"Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre INCLUSION DE CRITERIOS SOCIALES Y MEDIOAMBIENTALES EN LA CONTRATACION PUBLICA DE ESTE AYUNTAMIENTO fruto de la interpelación correspondiente al concejal delegado Jaime Dominguez-Macaya en la comisión de Hacienda de este mes.

JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio publikoa da administrazio publikoek duten mekanismo nagusietako bat herritarren ongizatea lortzeko. Espainiako estatuan, haren pisu ekonomikoa BPGn % 15 baino handiagoa da.

Ikusiz gero, Donostiako Udalean, 2016an, aurrekontuetan zenbat diru bideratu den enpresa pribatuek egindako lanetara edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten udal enpresentzako diru laguntzetara, konturatuko ginateke, hainbaten, udal gastu publikoaren zati handi bat litzatekeela.

Kontratazio publikoa botere publikoen zerbitzura dagoen tresna juridikoa izan daiteke, beren helburu eta oinarrizko balioak betetzeko: gizarte kohesioa, aberastasunaren birbanaketa, berdintasuna, justizia... edo guztiz kontrakoa. Ekidin egin behar da, administrazio ugaritan gertatzen ari den bezala eta hemen ere hala gertatzen da kasu askotan, kontratuak esleitzeko kontuan hartzen diren irizpideen artean, prezioak haztapen handiagoa izateak modu negatiboan eragitea lan merkatuan, eta, ondorioz, enplegua suntsitzea edo behargininen lan baldintzak eta eskubideak prekarizatzea edo okerragotzea.

Gure iritziz, kontratazio publiko estrategikoa, sostengagarria eta gizartearekiko arduratsua lortzea izan behar dute helburu udal administrazioek, zerbitzuak eskaintzean eta erosketa publikoak egitean kalitatea, eraginkortasuna eta ingurumen sostengagarritasuna ez ezik, lan zerbitzua emateko baldintzetan edo enpleguan modu negatiboan ez eragiteko beharra ere kontuan hartuta. "Ekonomikoki" eskaintzarik onena ez da zertan prezio merkeenarekin bat etorri.

JUSTIFICACIÓN

La contratación pública es uno de los principales mecanismos con los que cuentan las administraciones públicas para conseguir el bienestar de los ciudadanos y ciudadanas. Su peso económico se cifra en más de un 15% en el PIB del Estado Español.

Si nos preguntáramos sobre el dinero presupuestado en nuestro Ayuntamiento para el 2016 para trabajos que desarrollaran empresas privadas o para subvenciones a empresas municipales que prestan servicios públicos, nos daríamos cuenta de que posiblemente estaríamos hablando de una cantidad muy importante del gasto público municipal.

La contratación pública puede ser una herramienta jurídica al servicio de los poderes públicos para el cumplimiento de sus fines y valores fundamentales: cohesión social, redistribución de la riqueza, igualdad, justicia…o todo lo contrario. Se debe evitar, como viene ocurriendo en muchas administraciones y en esta también en muchos casos, que la mayor ponderación del criterio precio, entre los tenidos en cuenta para adjudicar los contratos, incida negativamente en el mercado laboral, destruyendo empleo o empeorando y precarizando directamente las condiciones y los derechos laborales de los trabajadores y trabajadoras.

Desde nuestro punto de vista los objetivos de las administraciones municipales en este ámbito deben estar dirigidos a la consecución de una contratación pública estratégica, sostenible y socialmente responsable que tenga en cuenta no solo la calidad, eficacia y sostenibilidad medioambiental en la prestación de servicios y en las compras públicas, sino también la necesidad de no incidir negativamente sobre las condiciones en las que se desarrolla la prestación laboral o sobre el propio empleo. La oferta “económicamente” más ventajosa no tiene por qué

identificarse con la del precio más bajo.

Kontratazio publikoaren araudi esparrua aldatu egin da kontratazio publikoari buruzko Zuzentarau berria (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua) onartzearekin bat. Zuzentarau horrek azpimarra egiten du beste esleipen irizpide batzuetan, hala nola gizarte, ingurumen edo berrikuntza irizpideetan. Gainera, horiek beharrezkoak dira Europa 2020 Estrategiaren bitartez lortu nahi den hazkunde adimentsu, sostengagarri eta integratzailea izateko, eta bertan giltzarria da kontratazio publikoak duen eginkizuna.

El marco normativo de la contratación pública se ha visto modificado con la aprobación de una nueva Directiva sobre Contratación Pública (Directiva 2014/24/UE del Parlamento Europeo y del Consejo de 26 de febrero de 2014) que incide en la aplicación de otros criterios de adjudicación, como los criterios sociales, medioambientales, o de innovación, prioritarios también en aras a un crecimiento inteligente, sostenible e integrador que persigue la Estrategia Europea 2020, y en la que la contratación pública desempeña un papel clave.

Zuzentarauko 90. kontuan hartuzkoan adierazitakoari jarraituz, kontratuen esleipenak irizpide objektiboak hartu behar ditu oinarri, hain zuzen ere, gardentasun, bazterkeria eza eta tratu berdintasunaren printzipioak errespetatzen direla bermatzen duten irizpideak. Hala, lizitatzaileen balio erlatiboa modu objektiboan konpara daiteke, eta zehatz daiteke ekonomikoki zein den eskaintzarik onena, benetako lehia baldintzetan.

De acuerdo con lo dispuesto en el Considerando 90 de la Directiva, la adjudicación de los contratos debe basarse en criterios objetivos que garanticen el respeto a los principios de transparencia, no discriminación e igualdad de trato con el fin de garantizar una comparación objetiva del valor relativo de los licitadores que permita determinar, en condiciones de competencia efectiva, que oferta es la económicamente más ventajosa.

Bestalde, kontratazio publikoari buruzko 2014/24 Europako Zuzentarauak azaltzen duen moduan, osasun edo gizarte arloan herritarrei eskaintzen zaizkien prestazioak kontratatzean, beharrezkoa da merkatuari urrutiagotik jarraitzea; izan ere, ase beharreko premiak estrategikoak dira, eta, horregatik, kalitatea da kontuan hartu beharrekoa.

Por otro lado, tal  y como reconoce la Directiva Europea sobre contratación pública 24/2014, para contratos de prestaciones directas a ciudadanos en el ámbito sanitario o social resulta necesario un tratamiento más alejado del mercado, dado el carácter estratégico de las necesidades a satisfacer y , por ello, deben ser prestados desde una estricta perspectiva de calidad.

Beraz, funtsezkoa da zerbitzu publikoen prestazioa eta erosketa publikoak kalitatezkoak, estrategikoak, sostengagarriak eta gizartearekiko arduratsuak izatea. Halaber, balorazio irizpide bat baino gehiago dagoenean, nahitaezko izateari utzi behar dio enpresa aukeratzeko preziorik merkeenari erreparatzeak. Hala, lehen aipatu bezala, kontratazio publikoak lan esparruan modu negatiboan eragitea ekidin

Es fundamental por tanto conseguir que la prestación de servicios públicos y las compras públicas sean de calidad, estratégicas, sostenibles y socialmente responsables, y que deje de tener efecto la obligatoriedad de que el precio más bajo sea el que determine la elección de la empresa cuando se utilice más de un criterio de valoración. De este modo podrá evitarse, como se ha señalado antes, que la contratación pública incida

ahal izango da.

Aintzat hartu behar da, eskulanaren kostua prezioaren osagai nagusia den kontratuetan, esleipena egitean prezioaren irizpideak haztapen handiagoa izateak modu negatiboan eragin dezakeela lan merkatuan, eta zeharka edo zuzenean erabilia izan daitekeela enplegua suntsitu edota langileen lan baldintzak okerragotzen dituzten hainbat ekintza justifikatzeko.

Gure taldeak behin baino sarriagotan egin du apustu zerbitzu publikoen prestazioa eta erosketa publikoak hobetzearen alde. Gure apustu nagusia zerbitzu publikoak udalekotzea da. Dena den, azpikontratatzen jarraitzen den bitartean, beharrezkoa da zerbitzuen prestazio eta erosketa publiko kalitatezkoak bermatzea, eta, horretarako, nahitaezkoa da gizarte irizpideak txertatzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea.

Hori dela eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalak Gobernu Taldeari eskatzen dio aurrerapausoak eman ditzala kontratazio publikoan gizarte eta ingurumen klausulak txertatzeko (era honetako irizpideak sartuta: lan baldintzen kalitatea, integratzeko zailtasunak dituzten kolektiboen gizarteratzea eta laneratzea, aniztasun funtzionala eta genero, ingurumen eta bidezko merkataritza arloko politikak), eta irizpide horiek puntuazio osoaren % 60 izateko.

2. Donostiako Udalak Gobernu Taldeari eskatzen dio, kontratazio organoek irizpide bat baino gehiago erabiltzen dutenean

de forma negativa en el ámbito laboral.

Ha de tenerse en cuenta que en aquellos contratos en los que el componente económico fundamental viene constituido por el coste de la mano de obra, la mayor ponderación del criterio precio entre los tenidos en cuenta para su adjudicación puede incidir negativamente en el mercado laboral y ser utilizado de forma indirecta o directa para justificar numerosas actuaciones que acaban destruyendo empleo y/o empeorando las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras.

Viene siendo reiterada la apuesta de este grupo por profundizar en la mejora de la prestación de los servicios públicos y las compras públicas. Nuestra principal apuesta es por la remunicipalización de los servicios públicos. Si bien es cierto que mientras se siga subcontratando es fundamental que se asegure una prestación del servicio y una compra pública de calidad para lo cual es preciso seguir avanzando en la introducción de criterios sociales.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián insta al equipo de gobierno a avanzar en la introducción de clausulas sociales y medioambientales (con criterios como la calidad de las condiciones de empleo, la inserción sociolaboral de colectivos con especiales dificultades de integración, la diversidad funcional, políticas de género, medioambientales y de comercio justo) en la contratación pública y hacer que dichos criterios tiendan a valorarse en un máximo del 60% sobre la puntuación total.

2. El Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián insta al equipo de gobierno a que en aquellos supuestos en que los órganos de contratación

proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onena zein den zehazteko, txerta ditzala kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena aurkezten duen eskaintza identifikatzeko irizpideak —besteak beste, kalitatea, irisgarritasuna, gizarte, ingurumen eta berrikuntza arloko ezaugarriak—, betiere kontratuaren xedearekin lotuta badaude eta modu objektiboan azalduta badaude, berdintasun, bazterkeria eza, gardentasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatuz.

3. Donostiako Udalak Gobernu Taldeari eskatzen dio ez ditzala luzatu indarrean dauden kontratuak gizarte eta ingurumen klausulak txertatuta eduki ezean, eta idatz ditzala beste baldintza orri batzuk klausula horiek barne, kontratu bakoitza amaitzen denean.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

utilicen más de un criterio para la valoración de las proposiciones y la determinación de la oferta más ventajosa, deberán incluirse criterios que permitan identificar la oferta que presente la mejor relación calidad/precio, tales como la calidad, accesibilidad, características sociales, medioambientales o innovadoras, entre otros, siempre que estén vinculados estos conceptos al objeto del contrato y formulados de forma objetiva con pleno respeto a los principios de igualdad, no discriminación, transparencia y proporcionalidad.

3. El Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián insta al equipo de gobierno a no prorrogar los contratos vigentes que no contengan clausulas sociales y medioambientales, y redacte cuando expire cada uno de ellos un nuevo pliego que incorpore tales cláusulas.

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**30.9. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 30.9.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7)**

PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

**30.9. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 30.9.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**30.9. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 30.9.:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**30.10. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, ikastetxeetako berogailu sistemari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, hil honetako PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN, 2016ko, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Miren Azkarateri ikastetxeetako berogailu sistemari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Energia eraginkortasunaren alorrean hainbat

**30.10. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el sistema de producción de calor de los centros escolares.**

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, realiza la siguiente MOCION DE CONTROL fruto de la interpelación en la comisión de COMISION DE SERVICIOS A LAS PERSONAS a este mes a Dña Miren Azkarate, Concejala Delegada de 2016, Cultura, Euskera y Educación, en relación al sistema de calefacción de los centros escolares.

JUSTIFICACION

Gracias a los numerosos avances que se vienen

aurrerabide egon dira, eta berogailu sistema alternatiboak bilatu dituzte ingurumenaren kutsadura murrizteko. Hori dela eta, udal instalazioetan egokitzapenak egiten ari dira eta, horri esker, energiaren kostuan nahikoa aurreztu daiteke.

produciendo en materia de eficiencia energética y la búsqueda de sistemas alternativos de calefacción que permitan reducir la contaminación ambiental, se están llevando a cabo diferentes adecuaciones en instalaciones municipales, que pueden suponer un ahorro del coste de la energía bastante significativo.

Ez dugu ahantzi behar Donostiako Udalak 2015-2022 urteetarako ekintza plana duela, Hiri Berdea 2030 Ingurumen Estrategiaren barruan. Aipatutako erronken artean, planteatzen da nola egin behar dion hiriak aurre klima aldaketari. Klima aldaketa garai honetako arazo larrietako bat izanik, Udalak konpromisoa hartu zuen energia kontsumoa eta berotegi efektuko gasen isurketa murrizteko, 2010eko Alkateen Ituna sinatuta. Era berean, konpromisoa hartu zuen energia berriztagarriak ugaritzeko. Konpromiso horiek guztiak Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean jaso ziren. Plan hori, gaur egun, Tokiko Agenda 21eko III. Ekintza Planean (2015-2022) dago sartuta, hain zuzen ere 6. ildoan: energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrien bulkadan tokiko ekintzak indartzea eta klima aldaketara egokitzeko jardunean aurrera egitea.

No debemos olvidar que el ayuntamiento de Donostia se ha dotado de un plan de acción entre los años 2015 y 2022 recogidos en la Estrategia Ambiental Hiri Berdea 2030. De este modo, entre los retos marcados, se plantea la actuación de la ciudad frente al cambio climático. Siendo éste uno de los grandes problemas de nuestro tiempo, el ayuntamiento se comprometió con su adhesión al Pacto de Alcaldes de 2010 a la reducción del consumo energético y de las emisiones de gases de efecto invernadero. Igualmente, adquirió el compromiso del incremento de la contribución de las energías renovables. Todos estos compromisos se recogieron en el Plan de Acción para la Energía Sostenible; plan que en la actualidad está integrado en el III Plan de Acción de la Agenda Local 21 para los años 2015-2022, concretamente en la Línea 6, correspondiente a reforzar la acción local en eficiencia energética e impulso de las energías renovable y avanzar en la adaptación al cambio climático.

Ildo horren barruan, energia berriztagarrien ezarpena sustatzeari begira, ekimenak proposatu behar ditugu jarritako helburuetan aurrera egin ahal izateko. Helburua ipinita dago: 2007arekin alderatuta, 2020rako energia kontsumoa eta berotegi efektuko gasen isurketa % 20 murriztea; eta 2030erako, berriz, % 30. Aldi berean, konpromisoa hartuta dago 2020rako energia berriztagarriak % 20raino ugaritzeko. Erronka horrek hau dakar berarekin: energia kontsumo txikiko eta isurketetan neutroa den ekonomia eraginkorra bultzatzea, energiaren mende egotea murriztea tokiko energiak eta energia berriztagarriak erabilita, klima aldaketara egokitzeko estrategia bat

Es dentro de esta línea, con el impulso de la implantación de energías renovables, donde debemos plantear iniciativas que permitan seguir avanzando en los retos marcados. El objetivo está marcado: para el año 2020 reducir el consumo energético y las emisiones de gases efecto invernadero en un 20% respecto a 2007 y de un 30% ya para 2030. Paralelamente, se compromete a incrementar la presencia de energías renovables hasta un 20% para el año 2020. Este reto va a implicar la necesidad de favorecer una economía efeciente con bajo consumo energético y neutra en emisiones, reducir la dependencia energética aprovechando fuentes de energía locales y renovables, realizar una estrategia de adaptación

garatzea eta pobrezia energetikoari aurre egitea.

al cambio climático y luchar contra la pobreza energética.

Horregatik, abenduan eta urtarrilean, hainbat galdera eta interpelazio bat aurkeztu ditugu berogailu sistemen egoeraren eta energia berriztagarrien inguruan, besteak beste, hiriko ikastetxeetan eguzki energia erabiltzearen inguruan. Horren helburua ahalik eta informazio gehien jasotzea da, ingurumen estrategiaren barruan hiriak jarri dituen erronka guztiak betetzeko aukera energetikoak proposatu ahal izateko. Zinegotzi ordezkariak zehaztu zigun bi ikastetxetako galdarak gasoliozkoak direla, beste hiru elektrikoak eta gainerakoak gas naturalekoak. Halaber, adierazi zigun udal gobernuak lehen biak ordezkatzeko asmoa zuela legealdian zehar, guztiak gas naturalekoak izan daitezen.

Es por este motivo por el que tanto el pasado mes de Diciembre como en este de Enero hemos trasladado una serie de preguntas e interpelación relativas a la situación de los sistemas de calefacción y la implantación de renovables, tales como la energía solar en los diferentes centros escolares de la ciudad. El objetivo de todo ello es recabar toda la información posible para plantear alternativas energéticas que permitan cumplir con los retos que esta ciudad se ha marcado de cara a los próximos años dentro de su estrategia ambiental. La concejala delegada nos informó que las calderas de dos centros eran de gasoleo, otras tres eléctricas y el resto de gas natural. Igualmente nos indicó que la intención del gobierno municipal era la de sustituir durante la legislatura los primeros al objeto de que todas pudieran ser de gas natural.

Hala ere, gure taldeak gogorarazi nahi du, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean (EIEP) jasotako neurri nagusien artean, hainbat neurri daudela bero kontsumo handiko zentroetan mikrosorkuntza sistemak instalatzeko beharrarekin lotuta: ahal dela, biomasa sistemak eta tenperatura txikiko eguzki energia jasotzeko eta gordetzeko sistemak jartzea ur bero sanitariorako, besteak beste.

Sin embargo, desde este grupo municipal queremos recordar que, entre las principales medidas recogidas en el Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES), hay varias que hacen referencia a la necesidad de instalar sistemas de microcogeneración en centros con elevado consumo térmico, preferiblemente con sistemas de biomasa, la incorporación de sistemas de captación y almacenamiento de energía solar de baja temperatura para demanda de agua caliente sanitaria, entre otras.

Irabazi Donostia udal taldean, uste dugu oraindik urrats asko eman behar direla eta beharrezkoa dela energia eredu sostengagarriago baterako trantsizioan sakontzea.

Desde el grupo municipal Irabazi Donostia consideramos que son muchos los pasos que aún quedan por dar y que es preciso seguir profundizando en la transición hacia otro modelo energético más sostenible.

Hori dela eta, kontrol mozio hau aurkezten dugu:

Es por ello que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San

Taldeari eskatzen dio aurkez dezala, sei hilabeteko epean, kronograma bat legealdi amaierara arte aurreikusten diren ekintza guztiekin, energia fosiletan (gasolioa, gasa, % 100 berriztagarria ez den elektrizitatea...) oinarritzen ez diren berogailu sistemak jartzeko hiriko ikastetxe publikoetan, gaur egun dauden sistemen ordez.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio aurkez dezala, sei hilabeteko epean, kronograma bat legealdi amaierara arte aurreikusten diren ekintza guztiekin, hiriko ikastetxe publiko guztietan eguzki energia jasotzeko eta gordetzeko sistemak ezartzeko.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio berrikus ditzala eguzki instalazio termikoak, instalazioek % 100ean ondo funtzionatzen dutela bermatzeko, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak (EIEP) 2.1.3. puntuan gomendatzen duen bezala.

4. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio txosten bat egin dezala eta jendaurrean aurkez dezala, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planean (EIEP) jasotako ekintzak zein mailatan bete diren zehaztuz.

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Sebastián insta al Equipo de Gobierno a presentar en el plazo de tres seis meses un cronograma con las actuaciones previstas hasta el final de legislatura para la sustitución de los sistemas de producción de calor actuales de los centros escolares públicos de la ciudad por unos no basados en energías fósiles (gasoleo, gas, electricidad de origen no 100% renovable ...).

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a presentar en el plazo de seis meses un cronograma con las actuaciones previstas hasta el final de legislatura para la implantación de sistemas de captación y almacenamiento de energía solar en todos los centros escolares públicos de la ciudad.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a revisar el estado de las instalaciones solares térmicas actuales al objeto de garantizar el correcto funcionamiento del 100% de tales instalaciones, tal y como lo recomienda el Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES) en su punto 2.1.3.

4. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a realizar y hacer público un informe detallando el grado de cumplimiento de las actuaciones recogidas en el Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES).

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak, Miren Azkarate Villar andreak eta Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Alfonso Gurpegui Ruiz, Dª. Miren Azkarate Villar y Dª. Naiara Sampedro Perez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**30.10. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 30.10.:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** |
| **ABSTENTZIOAK: 5 – EH BILDU.** | **ABSTENCIONES: 5 – EH BILDU.** |

**30.10. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 30.10.:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **BAZTERTUA.** | **RECHAZADA.** |
| **GEHIENGOA.** | **MAYORÍA.** |
| **ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** | **VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.** |
| **AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** | **VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.** |

**30.10. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 30.10.:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **ONARTUA.** | **APROBADA.** |
| **AHO BATEZ.** | **UNANIMIDAD.** |

**30.10. GAIAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DEL ASUNTO N.º 30.10.:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:** |
| **ONARTUA.** | **APROBADA.** |
| **AHO BATEZ.** | **UNANIMIDAD.** |

---------------

**30.11. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Maldatxo kalea dela eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 16an Gune Publikoetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko abuztuan, Egia Bizirik auzo elkarteak hogeita bat bizilagunek izenpetutako eskaera bat aurkeztu zuen. Eskaerari erantsita zetozen irudiek erakusten zuten zer gaizki zeuden Maldatxo kaleko zoladura eta horma.

Azaroaren 15ean, beriro ere, Maldatxo kaleko hormaren egoera salatzen zuen idazki bat aurkeztu zen. Idazkian adierazten zenez, Udaleko Ondasunen Erregistroan, lursaila publiko bezala identifikatuta dator (04091-B2-s erregistroan) eta, hortaz, hormaren mantenimendua Udalari dagokio.

Aurkeztutako salaketa eta bizilagunen segurtasunean eragiten duen kezka ikusita, abenduko batzordeetan zinegotzi ordezkariari galdetu genion ea udal teknikariek egiaztatu duten Maldatxo kaleko hormaren egoera eta ea zer balioztapen egin zuten hartaz.

Aldi berean, galdetu genuen ea zer jarduketa egin behar diren segurtasunaren eta itxuraren aldetik horma hori egoera egokira itzultzeko, eta ea noiz egingo ziren jarduketa horiek.

Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen horma ez dagoela Udalaren lursail batean eta haren mantenimendu eta konpontze lanak frantziskotarrei dagozkiela; beste azalpenik eman gabe.

**30.11. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa a la calle Maldatxo.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción trae causa de la interpelación sustanciada el 16 de enero de 2016 ante la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

En agosto del 2016 la asociación Egia Bizirik presentó una solitud firmada por 21 vecinas y vecinos. Las imágenes adjuntas mostraban el lamentable estado del pavimento de la calle Maldatxo y del muro.

De nuevo, el pasado 15 de noviembre, se presentó un escrito de denuncia sobre el estado del muro de la calle Maldatxo. Según refería el citado escrito de denuncia, la parcela está registrada como pública (número de registro: 04091-B2-s); por tanto, el mantenimiento del muro es competencia del propio Ayuntamiento.

A la vista de la denuncia presentada y de la preocupación por la seguridad del vecindario que suscita, en las comisiones de diciembre preguntamos al concejal delegado si se había comprobado por parte del personal técnico del Ayuntamiento el estado del citado muro de la calle Maldatxo y qué valoración hacían al respecto.

También preguntamos sobre las actuaciones necesarias para devolver el citado muro al estado debido de seguridad y ornato y cuándo pensaban abordarse las mismas.

El concejal delegado respondió que el muro no era de propiedad municipal y que el mantenimiento y arreglo correspondían a los franciscanos, sin dar mayor explicación.

Hori ikusita, urtarrileko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen lursailaren publikotasuna argitzeko eta mantenimendu lanak zeini dagozkio zehazteko. Batzordean zinegotzi ordezkariak adierazi zigunez, “lan asko egin ondoren lursaila publikoa dela topatu dut eta, hortik abiatuta uler daiteke horma ere Udalarena dela”. Horrekin batera aipatu zuen teknikariak bidaliko zituela hormaren egoera zein den aztertzeko.

Ez dugu ulertzen nolatan 2016ko abuztutik datorren eskaera honi ez zaion erantzunik eman eta zergatik ez diren teknikariak bidali dagoeneko. Ulertezina da, baita ere, zinegotzi ordezkariak bost hilabete behar izatea lursail bat publikoa edo pribatua den zehazteko, jakinda Udal Ondasunen Erregistroan publiko bezala identifikatuta dagoela.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Maldatxo kaleko lursail publikoan beharrezkoak diren konponketak egin ditzala eta inguruko bizilagunen segurtasun baldintzak zain ditzala, horma egoera egokian ipiniz.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, zonalde bateko mantenimendu eta garbiketa betebeharrei uko egin baino lehen, zorrotz azter dezala lursaila publikoa edo pribatua den.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

A la vista de ello, en las comisiones de enero presentamos una interpelación para aclarar el carácter público de la parcela y concretar a quién competen las labores de mantenimiento. Según manifestó en comisión el concejal delegado, “tras numerosas gestiones, he constatado que la parcela es pública, y, en base a ello, se puede entender que el muro también es de propiedad municipal". Según añadió, enviaría personal técnico a aclarar cuál es la situación del muro.

No entendemos cómo no se ha respondido a esa petición desde agosto de 2016 y por qué no se ha enviado todavía al personal técnico. Además, resulta difícil de entender que la Concejalía Delegada precise de cinco meses para concretar si una parcela es pública o privada, a sabiendas de que en el Registro Municipal de Bienes aparece identificada como pública.

Por todo lo anteriormente expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que realice las necesarias labores de reparación en la parcela pública de la calle Maldatxo y a que, en atención a las condiciones de seguridad de las personas habitantes de la zona, reponga el muro a una situación adecuada.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que antes de negarse a las obligaciones de mantener y adecentar una zona, analice exhaustivamente si la parcela es de propiedad pública o privada.

En San Sebastián, a 19 de enero de 2017

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.12. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, gure hirian diren etxebizitza arazoak konpontzeko neurriak direla eta.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, gure hirian diren etxebizitza arazoak konpontzeko neurriak direla eta. Mozioa joan den urtarrilaren 11n Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Askotan eztabaidatu izan dira gure hiriak duen arazo handienetako bati buruz udal taldeek aurkeztu dituzten ekimenak: populazioaren sektore handi bati ezinezkoa zaiola edo arazo handiak dituela etxebizitza lortzeko, bai eta etxebizitzari eusteko ere.

Etxebizitza produktuarekin egiten den espekulazio handia, lan baldintzen prekarizazioa, langabezia, etxebizitzen garestitasuna eta kreditu erakundeek ezarritako

**30.12. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre distintas medidas en relación a la problemática de la vivienda en nuestra ciudad.**

“Ricardo Burutaran Ferre, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL sobre distintas medidas en relación a la problemática de la vivienda en nuestra ciudad. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 11 de enero.

JUSTIFICACIÓN

Han sido numerosas las ocasiones en que se han debatido distintas iniciativas de los grupos municipales en torno a uno de los problemas fundamentales de nuestra ciudad: el de la imposibilidad, o enorme dificultad, de amplios sectores de nuestra población para acceder a la vivienda, así como para mantener la misma.

La alta especulación del producto residencial, la precarización laboral, la ausencia de trabajo, la carestía de las mismas, las condiciones impuestas por las entidades crediticias son, entre otras

balditzak dira, beste batzuen artean, populazioaren sektore handi batek etxebizitza eskubidea gauzatu ezin izatea eragiten dutenak edo etxebizitza eskuratu eta gero hari eutsi ezinik ibiltzea dakartenak.

Alde horretatik, 2015eko irailean, mozio bat onartu zen etxegabetzeei, pobreziari eta ezberdinkeriari aurka egiteko dekalogoa betetzeari begira. Hala kontrol mozioan nola dekalogoan hainbat neurri aipatzen dira, esate baterako, etxebizitza hutsen inbentarioa egitea, ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan diren familiak babesteko programa bat abiaraztea, etxegabetzeak eta irtenarazteak gelditzeko baliabideak jartzea eta finantza edo administrazio erakundeekin bitartekaritza egitea etxegabetzeak geldiarazteko.

Etxebizitza izaten jarraitzeko aukerari eragiten dioten edo eragin diezaioketen gaien artean dago familia askori bankuek mailegu hipotekarioetan jarritako baldintzen bidez –zenbait kasutan legearen gainetik– ezarritako zama. Horrekin lotuta, hala Auzitegi Gorenak 2013ko maiatzaren 9an emandako epaiak, nola, berrikiago, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren ebazpenak atzeraeragina ezarri dute hipoteka kontratuetako zoru klausulengatik kobratutakoa itzuli beharrari dagokionez.

Beharrezkoa da, beraz, Udalak “aholkularitza eta bitartekaritzako programak edo neurriak” abiaraztea, hartutako erabakien ildoarekin eta filosofiarekin bat.

Horren haritik, interpelazio bat egin genion gobernu taldeari, jakiteko udal gobernuak zer arrazoirengatik ez dituen ezarri edo ez den ezartzen ari etxebizitza eskubidea eraginkortasunez baliatzearekin lotutako arazo

muchas, algunas de las causas que motivan que un importante sector de la población no pueda acceder a hacer efectivo el derecho a la vivienda ó que, una vez accedido a la misma, tengan dificultad para mantenerla.

En éste sentido, en septiembre de 2015, se aprobó una moción a fin de dar cumplimiento al decálogo de medidas contra los desahucios, la pobreza y la desigualdad; tanto en la moción de control como en el decálogo se apuntan distintas medidas en relación a la necesidad de hacer un inventario de viviendas vacías, de poner en marcha programas para la protección de familias en riesgo de perder su vivienda habitual, de poner en marcha recursos municipales para paralizar los desahucios y desalojos, de mediación ante las entidades financieras o administrativas para parar desahucios…

Entre las cuestiones que afectan, o pueden afectar, a la posibilidad para mantener la vivienda, está la de las condiciones bancarias que están gravando -en algunos casos, incluso por encima de la ley- a numerosas familias a través de las condiciones de sus préstamos hipotecarios. En este sentido, tanto la Sentencia del Tribunal Supremo de 9 de mayo de 2013 como, más recientemente, la resolución del Tribunal de Justicia de la Unión Europea han establecido la retroactividad total en la devolución de lo cobrado por las clausulas suelo de los contratos hipotecarios, al considerar “abusiva” esta clausula hipotecaria.

Se hace preciso que, por parte del Ayuntamiento, se pongan, en la línea y la filosofía de los distintos acuerdos adoptados, “programas o medidas de asesoramiento e intermediación”.

En este sentido, y al objeto de conocer las razones por las que el Gobierno Municipal no ha implementando, o no está implementando todavía, algunas de las líneas adoptadas por el propio Pleno del Ayuntamiento para hacer frente a este

larri honi aurre egiteko Udalbatzak berak hartutako neurrietako batzuk.

grave problema, como es el relacionado con el ejercicio efectivo del derecho a la vivienda, interpelamos al equipo de gobierno.

Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak emandako azalpenak, nahiz eta asmo onekoak izan, ez ziren oso zehatzak izan eta ez dakigu Udal Gobernuak zer konpromiso edo lan ildo dituen. Gainera, onartu zuenez, “ez dute esaten zerbitzu espezifikorik jarri behar ez denik” edo “ez diote ezetzik esaten horri, baldin eta Udalbatzak hala erabakitzen badu”.

Las explicaciones dadas por parte del delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad, aunque bienintencionadas, adolecieron de un nivel de concreción suficiente con respecto a los compromisos o líneas de trabajo a seguir por parte del Gobierno Municipal; admitiendo que “no dice que no hay que montar un servicio específico” o “que no se niega a ello si el Pleno lo decide”.

Horiek hala direla, zinegotzi honek beharrezkotzat jotzen du KONTROL MOZIO hau egitea:

Por todo ello, el concejal que suscribe considera necesario formular la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, etxegabetzeen aurka lanean ari diren gizarte plataformekin batera, indartu ditzala beren ohiko etxebizitza galtzeko arriskuan diren familiei aholkuak eta bitartekaritza emateko neurriak.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de Gobierno Municipal a que, en colaboración con las plataformas sociales que trabajan contra los desahucios, refuercen las medidas de asesoramiento e intermediación, a las familias en riesgo de perder su vivienda habitual.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari abian jar dezala, bai zuzenean, bai Gipuzkoako Abokatuen Elkargoarekin akordio bat eginez, aholkularitza eta informazio kanpaina bat, herritarrek jakin dezaten zer eskubide dituzten abusuzko hipoteka klausulak salatzeko edo ohiko etxebizitza edo bizikletua defendatzeko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de Gobierno Municipal a que, bien directamente o bien mediante acuerdo con el Colegio de Abogados de Gipuzkoa, ponga en marcha una campaña de asesoramiento e información en relación a los derechos que asisten a la ciudadanía en relación a cuestiones como la denuncia de las clausulas hipotecarias abusivas o derechos que asisten a la ciudadanía en defensa de su vivienda o domicilio habitual.

Donostia, 2017ko urtarrilaren 19a

En Donostia, a 19 de enero de 2017

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré
concejal del grupo municipal EAJ/PNV”.

Sin: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**30.12. GAIAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 30.12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**30.12. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 30.12:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.13. Kontrol mozioa, PP Taldeak egina, Atotxa Erreka dela eta.**

“Alderdi Popularreko zinegotzi Jose Maria Murguiondo Casalek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko urtarrilaren 16an izan zuen bileran Atotxarrekaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

**30.13. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a Atotxa Erreka.**

“Don José María Murguiondo Casal, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Desarrollo y Planificación Teritorial, celebrada el día 16 de Enero de 2016, relativa a Atotxa Erreka.

JUSTIFICACION

2016ko urriaren 24an, Arartekoaren idazki bat sartu zen udal honetako erregistroan, Atotxako jabeen administrazio elkarteko ordezkari baten kexaren berri ematen duena; udal informazioa eskuratzeko eskaera bati Donostiako Udalak erantzunik ez diola eman aipatzen da kexan.

Zehatzago, Atotxarrekako urbanizazio proiektuaren esleipenari eta lur mugimenduei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren baimenari buruzko informazioa eskuratzeko 2016ko abuztuaren 9ko eskaera aipatzen da, eta Udalaren aldetik erantzunik jaso ez duela. Arartekoak Udalari eskatzen dio, beste behin, eta gai horrekin lotuta, gaiari buruzko informazioa igor diezaiola, eta egindako eskaerari emandako erantzunari buruzkoa ere bai. Eta ez da lehenengo aldia Arartekoa Udalari modu horretan zuzentzen zaiona, partikular honek eskatutako informazioari eta egindako eskaerari erantzun ez diola eta.

Arartekoak, Atotxarrekarekin lotuta bakarrik, hainbat errekerimendu egin dizkio Udalari, behin eta berriz informazioa eskatzeko. Gauza bera gertatzen da Udal honetara jotzen duten bestelako eragile eta herritarrekin ere: beren interesei eragiten dien edozein konturi buruzko informazioa epe eta forma egokian eskatu, eta Udal honek entzungor egiten die.

Portaera hori ez dator bat Udal Gobernuak bere kudeaketarekin lotuta saldu nahi duen jarrerarekin; komunikabideetan hori predikatzeaz ez da aspertzen, gainera, eta gobernu programan ere badator jasota. Literaturan hauxe aurkitzen dugu: “Bestalde, gardentasunaren arloan legegintzaldi honetan markatuta dagoen ildo estrategikoaren oinarria da gardentasuna eta gobernu irekia bultzatzea, dela herritarrentzat, dela Udalean lan egiten duten pertsonentzat”.

El 24 de octubre de 2016 entra en el Registro de este Ayuntamiento un escrito del Ararteko haciéndose eco de la queja de un representante de la Asociación Administrativa de propietarios de Atotxa que alude falta de respuesta del Ayuntamiento de San Sebastián a una solicitud de acceso de información municipal.

En concreto, se hace referencia a la solicitud de 9 de agosto de 2016 de acceso a información sobre la adjudicación del proyecto de urbanización y movimientos de tierras de Atotxa- Erreka y la autorización del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco y que no ha recibido respuesta por parte de este Ayuntamiento. Solicita el Ararteko a este Ayuntamiento, una vez más, y en relación a este tema, que se le remita la información sobre esta cuestión y sobre la respuesta ofrecida respecto a la petición formulada. Y no es la primera vez que el Ararteko se dirige a este Ayuntamiento en estos términos, ante la falta de información y respuesta a las peticiones realizadas por este particular.

Sólo sobre Atotxa Erreka han llegado, ya, varios requerimientos del Ararteko a este Ayuntamiento solicitando reiteradamente información. Lo mismo sucede con otros agentes o ciudadanos que se dirigen a esta Administración requiriendo información en plazo y forma sobre cualquier cuestión que afecta a sus intereses, y que son ignorados por este Ayuntamiento.

Esta actitud no casa con la postura que el Gobierno Municipal trata de vender en relación a su gestión, que no se cansa de predicar en los medios de comunicación y que, incluso, figura en su Programa de Gobierno. Así, encontramos literatura del siguiente tenor: “La línea estratégica marcada para la presente legislatura en el ámbito de la transparencia está basada en el impulso de la transparencia y el gobierno abierto, tanto para con la ciudadanía como con las personas que trabajan en el Ayuntamiento”.

Udal Gobernuak, bere ekintzen artean, planteatzen du puntuazioaren % 100 lortzea gardentasun adierazlerik zorrotzenetan, herritarrei informazio zuzena ematea (herritarrek udal jardunaren gaineko informazioa izan dezaten), parte hartzeko bideak sustatzea, eta abar.

Este Gobierno Municipal plantea, entre sus acciones, conseguir el 100% de puntuación en los indicadores de transparecia más exigentes, ofrecer información directa a los ciudadanos (para que los ciudadanos estén informados sobre la actuación municipal), impulsar fórmulas de participación, etc.

Hala ere, hil honetako batzordean, talde honek Arartekoaren idazkiari buruz egindako interpelazioa erantzun behar izan dio Udal Gobernuak. Besteak beste, galdetzen genuen zergatik ez zaien erantzun informazioa eskatu duten alderdiei: partikularrari, Arartekoari (partikularraren salaketaren berri eman du) eta are Eusko Jaurlaritzari, hark ere informazioa eskatu baitio Udalari Atotxarrekan egindako betelan batzuen inguruan.

Sin embargo, en la Comisión de este mes, el Gobierno Municipal contestaba una interpelación realizada por este Grupo político sobre el escrito del Ararteko. Varias de las cuestiones hacían referencia a la falta de contestación a las partes demandantes de información: al particular, al Ararteko (que se ha hecho eco de la denuncia del particular) e, incluso, al Gobierno Vasco, que solicita, también, información a este Ayuntamiento sobre una cuestión relativa a rellenos de tierras realizados en Atotxa Erreka.

Zinegotzi ordezkariak batzordean baieztatu zuen Donostiako Udalak erantzun ziela Eusko Jaurlaritzari (haren idazkia joan den abenduaren 20an iritsi zen udaletxera) eta Arartekoari (haren idazkia 2016ko urriaren 24an iritsi zen hona, partikular batek abuztuan egindako salaketaren berri emateko). Hau da, esan zuen azkenekoei erantzun dietela baina ez jatorrizko eskaerari, 2016ko abuztuaren 9koari (bost hilabete eta erdi geroago). Gainera, partikular horrek berak eginak dizkio Udal honi beste informazio eskaera batzuk eta horiei ere ez zaie erantzun.

El Concejal Delegado afirmó en Comisión que el Ayuntamiento de San Sebastián había contestado tanto al Gobierno Vasco (cuyo escrito llega a esta casa el 20 de diciembre pasado) y al Ararteko (cuyo escrito llega a esta casa el 24 de octubre de 2016, haciéndose eco de la denuncia de un particular hecha en agosto). Esto es, se dice que se ha contestado las más recientes pero no la solicitud original, del 9 de agosto de 2016 (cinco meses y medio después). Por cierto, el mismo particular tiene otras solicitudes de información anteriores dirigidas a este Ayuntamiento y que tampoco han sido respondidas.

Areago, zinegotz ordezkariak batzordean esan zuen partikularrari ez diotela erantzungo, erantzuna zein den badakielako. Bestalde, galdetu genuen talde politikoei bidaliko ote diguten Udal Administrazio honek ematen dituen erantzunen kopia (adierazitako informazio eskaeren gainekoak), eta zinegotzi ordezkariak erantzun zuen espedientean daudela erantzunak.

Es más, el Concejal Delegado contesta en Comisión que al particular no se le va a contestar porque ya sabe la contestación. Preguntado por si se iba a facilitar copia de las respuestas que ofrezca esta Administración municipal (sobre las solicitudes de información planteadas) a los diversos grupos políticos, el Concejal Delegado contesta que las respuestas obran en el expediente.

Gardentasunari, informazio publikoa

La Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de

eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 19/2013 Lege izugarri interesgarriak bere xedeen artean du jarduera publikoaren gardentasuna zabaldu eta indartzea, jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta bermatzea, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onaren betebeharrak ezartzea eta horiek ez betetzearen ondoriozko ondorioak ezartzea.

Zehazki, 20. artikuluak dio Administrazioak gehienez hilabeteko epea izango duela erantzuteko, ebazpen hori emateko eskumena duen organoak eskabidea jasotzen duenetik aurrera, eta epe hori beste hilabetez luza daitekeela, baldin eta eskatzen den informazioaren bolumena edo konplexutasuna dela-eta beharrezkoa bada, betiere eskatzaileari jakinarazita.

Hirigintzako informazioaren kasuan, Arartekoak gogorarazten duen bezala, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea jasota dago Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legean, bai eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legean ere.

Udal Gobernuaren jarduna oso urrun dago gardentasunaren eta gobernu onaren inguruan araututakotik, eta udal arduradunen jarrera errotik alda dadin, talde popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari errespeta ditzatela udal administrazio honen aurrean informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzen duten herritarrak, eta epe eta forma egokian erantzun ditzatela egiten dizkieten eskaerak, legez ere hala behartuta baitaude.

Donostia, 2016ko urtarrilaren 17a

transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, de enorme interés, tiene por objeto ampliar y reforzar la transparencia de la actividad pública, regular y garantizar el derecho del acceso a la información y establecer las obligaciones de buen gobierno que deben cumplir los responsables públicos, así como las consecuencias derivadas de su incumplimiento.

Concretamente, el artículo 20 recoge el plazo máximo de un mes desde la recepción de la solicitud por el órgano competente para dar respuesta a la misma por parte de la Admninistración; plazo que puede ampliarse otro mes en caso de que el volumen o la complejidad de la información que se solicita así lo hagan necesario, y siempre previa notificación al solicitante.

En el caso de la información urbanística, y como recuerda el Ararteko el derecho de acceso a la información pública viene, también recogido, en normas tales como la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana o en la Ley de Suelo y Urbanismo.

Quedando muy lejos la actuación del Gobierno Municipal de lo que normativamente está regulado sobre la transparencia y el buen gobierno, y en aras de que la actitud de los responsables municipales cambie drásticamente, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que respeten a los ciudadanos que ejercen su derecho de acceso a la información pública ante esta Administración municipal, y respondan en tiempo y forma las solicitudes que se les plantean, como legalmente están obligados a hacerlo.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Enero de 2017

José María Murguiondo Casal,
Alderdi Popularreko zinegotzia".

José María Murguiondo Casal
Concejal del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.14. Kontrol mozioa, PP Taldeak egina, Zurriola hondartzako aldagelak direla eta.**

"Alderdi Popularreko zinegotzi Jose Maria Murguiondo Casalek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko urtarrilaren 16an izandako bileran Zurriola hondartzako aldagelez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gauza jakina da, behin hondartza sasoia amaituta, Zurriola hondartzako aldagelak ixten dituela Udalak. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, hiriko beste hondartzetan (Kontxan eta Ondarretan), bertan aldagelak zabalik egoten baitira urte guztian zehar.

Udal Gobernuak badaki, urtero, Zurriola hondartzaren erabiltzaileek eskaerak egiten dituztela aldagelak neguan ere zabalik egon daitezen. Hondartzara joaten diren edo kirolen

**30.14. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a los vestuarios de la playa de la Zurriola.**

"Don José María Murguiondo Casal, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras Y Servicios Urbanos, celebrada el día 16 de Enero de 2016, relativa a los vestuarios de la playa de la Zurriola.

JUSTIFICACION

Como sabemos, una vez acabada la temporada de playas, se procede a cerrar los vestuarios de la playa de La Zurriola por parte del Ayuntamiento. Esta situación no se da en las otras playas de la ciudad (La Concha y Ondarreta), que mantienen abiertos sus vestuarios durante todo el año.

El Gobierno Municipal es conocedor de las solicitudes que, todos los años, los usuarios de la playa de La Zurriola realizan para que se mantengan abiertas, también en invierno, las

bat —surfa, batez ere— egiten duten donostiar askok erabiltzen dituzte, eta neguan ez daukate dutxadun aldagelarik.

cabinas colectivas de este arenal, que son utilizadas por un gran número de donostiarras que acuden a la playa o que practican algún deporte-surf, principalmente- y que no disponen de un local con ducha para cambiarse.

Horri buruz galdetu genion udal gobernuari abenduko batzordean, eta hark eman zuen arrazoia izan zen –zinegotzi ordezkariaren bidez– ekaitzen ondorioz ixten dituztela aldagelak; izan ere, behin eta berriz jotzen du ekaitzak hirian eta urez gainezka uzten ditu Zurriola hondartzako aldagelak. Hori dela eta, ez dute egokitzat jotzen urria iristeaz bat hainbat herritarrek urtero-urtero egiten duten eskaera hori aintzat hartzea.

El Gobierno Municipal fue preguntado al respecto en la Comisión de diciembre pasado, y argumentaba –en boca de su Concejal Delegado- que el cierre de las cabinas responde a los rigores de los temporales que, recurrentemente, azotan la ciudad y que inundan los vestuarios de la playa de La Zurriola, y que no veían oportuno atender esta petición que muchos ciudadanos plantean cada año al llegar octubre.

Hil honetako batzordean horri buruzko interpelazioa egin genion zinegotzi ordezkariari, eta hark adierazi zuen udal gobernua aztertzen ari dela Zurriola hondartzan uda garaitik kanpo ere aldagelak izateko aukera eta zerbitzu hori emateko irtenbideak bilatzen ari dela.

Interpelado en la Comisión desarrollada este mes, el Concejal Delegado anunciaba que el Gobierno Municipal, ahora, está estudiando la posibilidad de dotar de vestuarios a la playa de La Zurriola más allá de la época estival, y que se están buscando alternativas para poder ofrecer el servicio.

Udal Gobernuak gai honen inguruan izan duen jarrera aldaketa nabarmendu nahi dugu, bai eta hondartzan uda garaitik kanpo ere zerbitzu egonkor bat emateko irtenbideak bilatu nahi izatea ere, duela urte asko ari baitira hainbat herritar hori eskatzen. Eskaera horri azkar erantzun ahal izango zaiolakoan, talde popularrak MOZIO hau aurkezten du:

Destacamos el cambio de actitud del Gobierno Municipal en relación a este tema, y que se plantee la búsqueda de alternativas para que se pueda dar un servicio estable en la playa más allá de la época estival, como demandan muchos ciudadanos desde hace años. Confiando en que se pueda dar una rápida respuesta a esta petición, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari erantzun diezaiotela Zurriola hondartzan, beste hondartzetan bezalaxe, aldagelak urte osoan izateko herritarrek behin eta berriz egiten duten eskaerari, donostiarrek eta bisitariek erabat gozatu ahal izan dezaten hondartza horretaz.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que den una respuesta a la reiterada petición ciudadana de contar con vestuarios en la playa de La Zurriola durante todo el año, al igual que en el resto de playas, para el pleno disfrute de donostiarras y visitantes.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari Zurriola hondartzako aldagelak irekitzen dituztenean kirol

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se permita el uso de la tarjeta deportiva

txartela erabiltzeko aukera izan dezatela bazkideek.

Donostia, 2016ko urtarrilaren 17a

José María Murguiondo Casal,
Alderdi Popularreko zinegotzia".

(kirol txartela) a sus abonados, una vez abiertos los vestuarios de la playa de La Zurriola.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Enero de 2017

José María Murguiondo Casal
Concejal del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Josu Ruiz Martin jaunak, Miguel Angel Diez jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Jose Ruiz Martín, D. Miguel Ángel Díez Bustos y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.15. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, zezenketen kontsulta dela eta.**

"Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 18an Pertsonen Batzordean alkateari aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko apirilean aho batez onartutako udalerriko Hiritar Kontsulten Erregelamendua oinarri hartuta, Donostia Antitaurinoa Orain plataformak, kontsulta eskaera egin ondoren, 2016ko martxorako balizko 9.000 sinadura bildu

**30.15. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la consulta sobre corridas de toros.**

"Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada a la Comisión de Servicios a las Personas del 18 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

La plataforma Donostia Antitaurina Orain, al amparo del Reglamento de Consultas Ciudadanas aprobado por unanimidad en abril de 2015, y tras presentar la correspondiente solicitud de consulta, reunió, para marzo de 2016, 9.000 firmas, que

eta aurkeztu zituen herritar-ekimeneko zezenketen inguruko kontsulta gauzatzeko. Hurrengo galderarekin:

*Ados al zaude Udalak bere titularitatekoak diren ekipamendu eta espazioak zezenketetarako ez alokatu edo uztearekin eta horretarako diru-laguntzarik ez ematearekin?*

Gerora, Hiritar Kontsulten araudia errekurritua, baliogabetua eta berriz ere errekurritua izan da. 2016 uztailaren 14an, Zezenketen Hiritar Kontsultaren deialdia onartu zen, gero auzitegiek kautelarki eten zutena. Hilabete berean Udal Legea errekurritu zuen Estatuak. 2016ko urrian Estatuari Zezenketen herri-kontsulta egiteko eskaera luzatu zitzaion; hilabete horretan kontsulta gauzatzeko bi kontratazio prozedura ere martxan jarri ziren. Eta 2017ko urtarrilean, Estatuaren aldetik kontsulta-eskaerari erantzuteko epe-luzapena igorri zaigu, martxoaren erdialdera arte.

Bistan denez, Donostian demokrazia zuzenak, oro har, eta 9.000 donostiarrek eskatutako Zezenketen Kontsultak, zehazki, eraso, oztopo eta zailtasun askori aurre egiten dihardute azken urte eta erdian, eta uste dugu Udal Gobernuak ez diola beste oztopo bat gehitu behar, aurtengo udararako Donostia Arena Gunea zezenketak egiteko alokairuarekin konprometituz. Oraindik orain, Estatuak herri-kontsulta eskaerari erantzun behar baitio eta, badagokio, kontsulta egin eta hiritarren borondatea entzuteko konpromisoa hartua baitu Udal Gobernuak.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Udal

presentó con el fin de realizar una consulta de iniciativa popular sobre las corridas de toros. La pregunta formulada era la siguiente:

*¿Está usted de acuerdo con que el Ayuntamiento no alquile ni ceda espacios ni equipamientos ni otorgue subvenciones para la realización de corridas de toros?*

Posteriormente, el Reglamento de Consultas Ciudadanas ha sido recurrido, revocado y nuevamente recurrido. El 14 de julio de 2016, se aprobó la convocatoria de consulta ciudadana sobre corridas de toros, que fue suspendida cautelarmente por los tribunales. Ese mismo mes, el Estado recurrió la Ley Municipal. En octubre de 2016, se presentó al Estado una solicitud para la celebración de la consulta popular sobre corridas de toros, y, también en octubre, se pusieron en marcha dos procedimientos de contratación para llevar a cabo dicha consulta. En enero de 2017, el Estado ha enviado una prórroga del plazo para contestar a la solicitud de consulta, retrasándolo hasta mediados de marzo.

Es evidente que, en San Sebastián, la democracia directa, en general, y, en concreto, la consulta sobre corridas de toros solicitada por 9.000 donostiarras, llevan haciendo frente, en el último año y medio, a muchos ataques, obstáculos y dificultades, y creemos que el Gobierno Municipal no debe añadir un obstáculo más, comprometiéndose a alquilar el espacio Donostia Arena para este verano. Hay que tener en cuenta que el Estado debe contestar aún a la petición de consulta popular, y, en su caso, el Gobierno Municipal se ha comprometido a realizar dicha consulta y a escuchar la voluntad de la ciudadanía.

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

Gobernuari eskatzen die oraindik ez dezatela erabilera anitzeko Donostia Arena Gunea aurtengo udaran zezenketak egiteko konprometitu, 2016ko urrian Udalak Estatuari luzatutako zezenketen kontsulta-eskaera erantzun eta, badagokio, kontsulta gauzatu arte.

solicita al alcalde y al Gobierno Municipal que todavía no comprometan el espacio polivalente de Donostia Arena para la celebración de corridas de toros este verano, hasta que el Estado conteste a la solicitud de consulta sobre las corridas de toros presentada por el Ayuntamiento en octubre de 2016 y, en su caso, se celebre la correspondiente consulta.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio zezenketen-kontsulta udara aurretik egiteko aurreikuspenezko egutegi erreal bat proposa dezala eta sustatzailea den Donostia Antitaurina Orain plataformari, udal taldeei eta herritarrei informa diezaiela.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al alcalde que proponga un calendario real de previsiones para la celebración de la consulta sobre corridas de toros antes del verano y que informe de ello a la promotora, la plataforma Donostia Antitaurina Orain, a los grupos municipales y a la ciudadanía.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 9 de enero de 2017

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Alkate-Udalburuak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Axier Jaka Goikoetxea, Alcalde-Presidente, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**30.16. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, El Perlon terrazaren egoera dela eta.**

**30.16. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la situación de la terraza "El**

**Perlón”.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin, El Perlon terrazaren egoera dela eta. Gune Publikoen Batzordeak urtarrilaren 11n azterturiko interpelazioaren ondorio da mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak, ekainaren 28an emandako ebazpenaren bidez, baimena eman zion Sociedad Balneario La Perla del Océano SL sozietateari terrazaren azalera gehienez 1.200 metro koadroraino zabaltzeko, hortik kanpo utzita terrazako igarobideak eta sarbideak, betiere baldintza batzuk betetzen badira. Baldintza horien artean daude, adibidez, baranda ondoan 3 metro zabaleko tarte bat libre uztea oinezkoak ibiltzeko, jarritako elementu guztiak desmuntagarriak izatea eta zorura josita ez egotea, eta kopurua mugatua izatea.

Abuztuaren 26an, Gipuzkoako Kosta Zerbitzuaren txosten bat sartu zen udalean zenbait lege-hauste egiten ari direla egiaztatzen duena. Hauek aipatzen ditu:

- Baranda ondoko 3 metro zabaleko tartea besaulki, mahai eta aulkiekin hartuta dagoela.
- Terraza egunero garbitzeko erabilitako ura eta hondakinak zuzenean hondartzara isurtzen dituztela.
- Sarbideak kartel, loreontzi eta abarrekin hartuta daudela (oinezkoei barandaraino joateko asmoa kentzeko moduan).
- Biltegiratzeko espazioak itxituraz inguratuta daudela.
- Baimendu gabeko elementu osagarriak jarri dituztela: manparak, baimendutako altuera gainditzen duten mahai batzuk, komun

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL sobre la situación de la terraza “El Perlón”. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Espacio Público el pasado 11 de enero.

JUSTIFICACIÓN

Mediante Resolución de la Dirección General de Sostenibilidad de Costa y del Mar de 28 de junio, se autoriza a la “Sociedad Balneario La Perla del Oceáno S.L.” un aumento de las superficies de terrazas hasta un máximo de 1.200m2, sin incluir la ordenación del tránsito y acceso a las mismas, siempre que se cumplan determinadas condiciones; entre otras, las relativas a la necesidad de dejar libre expedita una franja de 3 metros de ancho junto al barandado, para el tránsito público; la de que todos los elementos que se instalen sean desmontables y no estén anclados al suelo, la limitación de su número,...

El 26 de agosto, entra en el Ayuntamiento un informe del Servicio de Costas de Gipuzkoa que constata que se están produciendo distintos incumplimientos; señalándose los siguentes:

- Ocupación de la franja de 3 metros de ancho, junto a la barandilla, con sillones, mesas y sillas.
- Evacuación directa a la playa de las aguas y residuos procedentes de la limpieza diaria de las terrazas.
- Ocupación de pasillos de acceso con carteles, maceteros, etc (que disuaden a los transeúntes de acceder al barandado).
- Cerramientos de espacios destinados a almacén.
- Instalación de elementos auxiliares no autorizados, tales como mamparas, velador para música, mesas que sobrepasan la altura autorizada, baños químicos, etc.

kimikoak…
- Elementu batzuek eta elementu batzuen ezaugarri eta materialek bistak eragozten dituztela.
- Amaitzeko, terrazako elementu batzuk zorura josita daudela egiaztatu dute. Horrek terrazei buruzko udal ordenantza bera urratzen du, gainera.

Idazki hori abuztuan eskatu bagenuen ere, urtarrilera arte ez dugu jaso; jarduteko modu hori ez da gauza berria, baina bai oso tamalgarria, kontuan hartuta gobernu honek harro adierazten duela gardentasun arauak dituela bere jardunaren gidari.

Batzordean, Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariari interpelazioa egin genion, eta haren erantzuna ardura besteren bizkar uzteko saio bat besterik ez zen izan. Hain zuzen, arau-hauste haren erantzule maizterra egin zuen soil-soilik eta Sociedad Balneario la Perla del Océano SLri erantzukizun guztia kentzen saiatu zen. Ez zuen azaldu zergatik ez den esku hartu aipaturiko arau-hausteen berri izan bezain laster.

Hori guztia kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIOA aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari betearaz ditzala legez ezarritako baldintzak eta Kosta Zerbitzuaren abuztuaren 26ko ofizioa; har ditzala hartu beharreko neurriak baranda ondoan 3 metro zabaleko tarte bat libre uzteko jendearentzat, tresneriarik, altzaririk edo oinezkoei sartzeko asmoa kenduko dien edo sarbidea murriztuko dien bestelako elementurik gabe; ez dezatela baimendu gabeko elementu osagarririk jar; eta ez daitezela bistak eragotzi hesiak jarriz.

- Elementos y características y materiales de determinados elementos que impiden la permeabilidad de vistas, creando pantallas visuales.
- Finalmente constata que se produce un anclaje de elementos de la terraza al pavimento lo que supone además un incumplimiento de la propia Ordenanza Municipal sobre terrazas.

A pesar de haber solicitado el citado escrito en el mes agosto, no lo hemos recibido hasta el mes de enero; cuestión que, aún no siendo nueva, no es menos lamentable de un gobierno que se publicita presumiendo de que guía su actuación por las normas de la transparencia.

Interpelado en comisión el delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de ciudad, su respuesta consistió en intentar “echar balones fuera”, responsabilizando únicamente de la infracción al inquilino y pretendiendo eludir de cualquier responsabilidad por parte de la “Sociedad Balneario la Perla del Oceáno S.L.”, no dando explicación alguna de las razones por las que no se actúo con carácter inmediato tras tener conocimiento de las citadas infracciones.

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe la presente formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta la equipo de gobierno a que, en cumplimiento de las condiciones legalmente establecidas y del oficio del Servicio de Costas de 26 de agosto, haga cumplir las mismas; tome las medidas oportunas para asegurar que la franja de 3 metros de ancho junto al barandado existente permanece abierta al público general y libre de enseres o mobiliario u otros elementos que disuadan o restrinjan el acceso público de personas viandantes; que no se instalen elementos auxiliares no autorizados y que no se impida la permeabilidad de vistas creando pantallas visuales.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki esaktzen dio Udal Gobernuari har ditzala hartu beharreko neurriak terraza garbitzeko erabilitako ura eta hondakinak zuzenean hondartzara ez isurtzeko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a tomar las medidas precisas para evitar que se produzca una evacuación directa de las aguas y residuos procedente de la limpieza de las terrazas, directamente a la playa.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete eta betearaz dezala Donostian jabetza eta erabilera publikoko lurzoruak ostalaritzarako nola okupatu arautzen duen ordenantza.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a cumplir, y hacer cumplir, la Ordenanza Reguladora de las ocupaciones de suelo de dominio público y uso público para la hostelería en Donostia / San Sebastián.

Donostia, 2017ko urtarrilaren 19a

En Donostia, a 19 de enero de 2017

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Sin: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**30.17. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Lankidetza Kontseilua dela eta.**

**30.17. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el Consejo de Cooperación.**

"Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 16an Pertsonen Zerbitzuetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

"Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en la Sesión Plenaria. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas de 16 de enero de 2016.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 8an alkateak prentsa-ohar batean adierazi zuen martxan jarritako radar mugikorrarekin, 2017an, 18.000 euro eskuratzea aurreikusten zuela, eta diru hori pertsona errefuxiatuekin lan egiten duen elkarte bati bideratuko zitzaiola.

Abenduaren 15eko bileran, Lankidetza Kontseiluko kideak haserre agertu ziren prentsa bidez ezagutu zutelako erabakia. Izan ere, eragileek ezin dute ulertu zertarako dagoen Lankidetza Kontseilua, aholkularitza eskaintzea helburu duena, gero ez badira horrelako erabakiak bertako kideekin partekatzen eta adosten.

Aldi berean, kontseiluan parte hartzen zuten eragileek erabaki horren nondik norakoez galdetu zuten (zein irizpideren baitan erabaki den diru ematea, laguntza sozial bat zigor bati lotzea egokia den edo ez, non eztabaidatu den eta abar). Lankidetzako zinegotzi-ordezkariak erantzun zuen ez zuela erabaki horren berri izan aldez aurretik, ez zuela alkatearen erabakia konpartitzen eta Alkatetzatik hartutako erabakia ez zela Lankidetzako teknikariekin kontrastatu.

Udal talde honek interpelazioa aurkeztu du urtarrileko batzordeetan, Euskadiko GGKEn Koordinakundeak kontseiluan adierazitako gogoeta konpartitzen dugulako. Koordinakundean 40 urtez garapenerako lankidetzan lanean ibili diren 79 eragile daude eta haien iritzia eta irizpide teknikoa haintzat hartu beharrekoa iruditzen zaigu. Hori da, hain zuzen ere, lankidetza kontseilu bat izatearen helburua eta zentzua.

Koordinakundeko ordezkariak zioen bezala, lankidetzan ezin da dena ontzat eman dirua

JUSTIFICACIÓN

El pasado 8 de diciembre, el alcalde manifestó a través de una nota de prensa que en 2017 preveían recaudar 18.000 euros mediante la puesta en marcha del radar móvil y que esa cantidad se iba a destinar a una asociación que trabaja con personas refugiadas.

En la reunión del 15 de diciembre, los miembros del Consejo de Cooperación mostraron su enfado por esa decisión de la que tuvieron conocimiento a través de la prensa. Y es que los agentes del consejo no entienden para qué tenemos un Consejo de Cooperación, cuyo objetivo es ofrecer asesoramiento, si luego este tipo de decisiones no se comparten y acuerdan con los miembros de dicho consejo.

Igualmente, los agentes que forman parte del consejo preguntaron cuáles han sido los motivos para tomar esta decisión (en base a qué criterios se ha decidido otorgar la cantidad recaudada, si es adecuado o no vincular una ayuda social a una sanción; dónde se ha debatido la cuestión; etc.). La concejala delegada de Cooperación contestó que no tuvo conocimiento de ello previamente, que no compartía la decisión del alcalde y que dicha decisión no se contrastó con el personal técnico de Cooperación.

Este grupo municipal presentó una interpelación en las comisiones de enero, ya que compartimos la reflexión que la Coordinadora de ONGDs de Euskadi realizó en el consejo. En dicha coordinadora participan 79 agentes que llevan trabajando 40 años en materia de cooperación para el desarrollo y creemos que es necesario tener en cuenta su opinión y su criterio técnico. Este es, precisamente, el objetivo y el sentido de tener un consejo de cooperación.

Tal y como señalaba el representante de la Coordinadora, en cooperación no todo vale a

lortzearen truke, eta beste pauso bat eman behar dugu: kalitatezko garapenerako lankidetza sustatu behar da Euskal Herriko erakunde publiko zein pribatuen artean, eta gure inguruneko eraldaketa soziala bultzatu; herritarren artean elkartasunaren kultura sustatuz, desberdintasuna eta pobrezia sortzen duten egiturak aldatuz eta gure garapen eredu patriarkal eta neoliberalak pobreziarekin eta Iparra-Hegoa desberdintasunekin daukan harremanari buruzko eztabaida kritikoa bideratuz.

Baina batzordeetan ordezkariak emandako azalpenak ikusita, argi dago Udal Gobernuak ez dituela entzun, gutxiago ere aztertu, koordinakundeak esandako hitzak. Zinegotzi ordezkariak esandakoaren arabera garrantzitsuena dirua lankidetzara bideratzea da, nondik datorren edo nola kontuan izan gabe. Gauzak horrela, ezin dugu ulertu zer dela eta ez duen udal aurrekontuko diru gehiago bideratu lankidetzara eta, are gehiago, zergatik jaitsi duen Lankidetzara bideratutako aurrekontua % 0,39tik % 0,36ra.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari errespetuz tratatu ditzala Garapenerako Lankidetza Kontseiluko kideak eta lankidetzarekin lotutako gaien inguruan dituzten iritziak entzun ditzala.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari lankidetzara bideratzen dituen baliabide ekonomikoak kontseilu kideekin eztabaida ditzala erabaki tinkoak hartu baino lehen.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

cambio de dinero, y es preciso dar un paso más: es necesario promover una cooperación para el desarrollo de calidad entre las entidades públicas y privadas del País Vasco e impulsar la transformación social de nuestro entorno, fomentando la cultura de la solidaridad entre la ciudadanía, cambiando las estructuras que generan desigualdades y pobreza, dando paso a un debate crítico sobre la relación que tiene nuestro modelo de desarrollo patriarcal y neoliberal con la pobreza y las desigualdades Norte-Sur.

Sin embargo, viendo las explicaciones que la delegada ofreció en comisión, está claro que el Gobierno Municipal no ha escuchado, y mucho menos analizado, las palabras de la coordinadora. Por lo que dijo la concejala delegada, lo más importante es destinar el dinero a cooperación, sin tener en cuenta su procedencia o la forma de hacerlo. Teniendo en cuenta todo ello, no entendemos por qué motivo no se ha consignado una cantidad mayor en los presupuestos municipales para cooperación, y, aún más, por qué se ha recortado el presupuesto destinado a cooperación de 0,39 % a 0,36 %.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta esta MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que trate con respeto a los miembros del Consejo de Cooperación para el Desarrollo y que escuche la opinión que tienen sobre los temas relacionados con la cooperación.

2. El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que debata con los miembros del consejo los recursos económicos que destina a cooperación antes de tomar decisiones firmes.

En San Sebastián, a 19 de enero de 2017

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Olaia Duarte Lopez. Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y Dª. Duñike Agirrezabala Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**30.18. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak egina, Donostiako merkataritzaren eta turismo handiko eremuaren ingurukoa.**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Donostiako turismo handiko eremuari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko urtarrilaren 16ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko uztailaren 4an Madrilgo gobernuak 8/2014 Errege Dekretua argitaratu zuen, hazkunde, lehiakortasun eta

**30.18. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa al comercio y a las zonas de gran afluencia turística de San Sebastián.**

"Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, someto a la consideración del Pleno la siguiente MOCIÓN, sobre la declaración de San Sebastián como espacio de gran afluencia turística. Esta moción deriva de la interpelación presentada el 16 de enero de 2017 en la Comisión de Servicio a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 4 de julio de 2014, se publicó en el Boletín Oficial del Estado el Real Decreto Ley 8/2014, de aprobación de medidas urgentes para el

eraginkortasunerako premiazko neurriak onartzeari buruzkoa. Aldaketa nagusien artean, merkataritza ordutegiak liberalizatzea. Honen ondorioz, Donostiako Udalak turismo handiko eremu bat aitortzera derrigortuta dago.

Horregatik, 2014an Merkataritzako Aholku Kontseiluaren bilera bat deitu zen puntu bakar hau jorratzeko. Bertan, Donostiako turismo handiko eremu gisa, ondorengo urterako, Parte Zaharra izendatu zen honako muga hauekin: San Juan kalea (bakoitien aldea, eta Bretxako merkataritza gunea kanpoan utzita), Bulebarra (bikoitien aldea), Urgull mendia eta Kaiko pasealekua. Gainera, uztaila eta abuztura mugatuta.

2015ean, ordea, Gobernu Batzordeak, eremua zabaltzeaz gain (Parte Zaharra osorik hartuta eta Zurriola pasealekua gehituz), denboraldia urte osora zabaldu zuen 2016rako; Tokiko Gobernu Batzordeak aldaketa hauek 2015eko azaroaren 10ean onartu zituen. Azaroaren 9an, egun bat lehenago, Merkataritzako Aholku Batzordea elkartu zen, eta zerrendan gai hau ez zen sartu ere egin; ez zen kasu bakarra izan, Garbera zabaltzeko asmoarekin prozedura bera erabili baitu Udal Gobernuak.

2016an ere Merkataritzako Aholku Batzordeak ez du gai hau jorratu, azken bilera uztailaren 6an izan zelako eta gai hau, normalean, urte bukaeran jorratzen delako: uztailaren 6koaz geroztik, beste bilerarik egin ez duenez Merkataritzako Aholku Batzordeak, ez du turismo handiko eremua landu ere egin (honek agerian uzten du, bestalde, zinegotzi-ordezkariak ez duela oso gustuko aholku batzordearen bilerak egitea). Baina are gehiago, Gobernu Batzordeak ere ez du inongo onarpenik egin, nahiz eta komunikabideek onarpenaren eta, iazkoarekin alderatuta, aldaketa baten berri eman duten (onarpen hori sindikatuen babesarekin ere eman dela esan zuen zinegotzi-

crecimiento, la competitividad y la eficiencia. Uno de los principales cambios que introdujo dicho decreto fue la liberalización de los horarios comerciales. A consecuencia de ello, el Ayuntamiento de San Sebastián está obligado a declarar una zona de gran afluencia turística.

Por ello, en 2014, se convocó una reunión del Consejo Asesor de Comercio, para tratar este único punto. En dicha reunión, se estableció la Parte Vieja como zona de gran afluencia turística de la ciudad para los años siguientes, y se fijaron los siguientes límites: calle de San Juan (lado impares, quedando aparte el mercado de la Bretxa), Boulevard (lado pares), monte Urgull y paseo del muelle. Además, la zona sólo se consideraba como tal en julio y agosto.

Sin embargo, en 2015, la Junta de Gobierno amplió esta zona a toda la Parte Vieja y al paseo de la Zurriola y, además, la extendió a todo el año, cara a 2016; la Junta de Gobierno aprobó estas modificaciones el 10 de noviembre de 2015. Un día antes, el 9 de noviembre, se reunió el Consejo Asesor de Comercio, pero esta cuestión no fue ni siquiera recogida en el orden del día. No ha sido el único caso, puesto que el Gobierno Municipal utilizó el mismo procedimiento para ampliar Garbera.

El Consejo Asesor de Comercio tampoco ha estudiado esta cuestión en 2016, puesto que la última reunión fue el 6 de julio y este tema, normalmente, se trata a final de año. Por tanto, teniendo en cuenta que no se ha celebrado ninguna otra reunión posterior a la del 6 de julio, el Consejo Asesor de Comercio ni siquiera ha tratado el tema de la zona de gran afluencia turística (hecho que, por otro lado, deja de manifiesto que no es del agrado del concejal delegado celebrar reuniones del consejo asesor). Más aún, la Junta de Gobierno no ha aprobado nada, aunque los medios de comunicación hablan de la aprobación y de una modificación con respecto a la del año pasado (el concejal delegado ha manifestado en

ordezkariak komunikabideetan, nahiz eta gerora sindikatuek babes hori ukatu duten eta 2014ko erabakira bueltatzea eskatu duten publikoki).

los medios de comunicación que esa aprobación contó con el apoyo de los sindicatos, aunque posteriormente los sindicatos lo han negado y han solicitado públicamente que se vuelva al acuerdo adoptado en 2014).

Zinegotzi ordezkariak batzordean adierazitakoaren arabera, turismo handiko eremua aldatu ez denez, Gobernu Batzordeak ez du zertan onarpenik egin. Hori bai, Merkataritzaren Aholku Kontseiluaren inguruan ez zuen ezer esan.

Según lo señalado por el concejal delegado en comisión, no se han producido cambios en la zona de gran afluencia, por lo que no requiere de la aprobación de la Junta de Gobierno. Eso sí, no dijo nada sobre el Consejo Asesor de Comercio.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIOA hau aurkezten du:

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2018ko turismo handiko eremua onartu baino lehen, Merkataritza Aholku Kontseilua dei dezala, gai hau gai ordenean sartuta, eragileek hura lantzeko aukera izan dezaten.

Donostian, 2017ko urtarrilaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

MOCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que, antes de que apruebe la zona de gran afluencia turística de 2018, convoque al Consejo Asesor de Comercio, incluyendo este asunto en el orden del día, para que los agentes implicados puedan estudiarlo.

En San Sebastián, a 19 de enero de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Josu Ruiz Martín, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

## HERRITARREN ESKAERAK ETA GALDERAK

**31. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek aurkeztutako kexa eta eskaera etorri turistiko handiko zonaren handitzeagatik.**

“DONOSTIAKO UDALEKO UDAL GOBERNUARI ETA TALDE POLITIKOEI KEXA ETA ESKAERA TURISTA OLDE HANDIKO GUNEA HANDITZEAGATIK ETA ELA, LAB, CCOO ETA UGT SINDIKATUEK JARRITAKO MOZIOARI EMANDAKO TRATUAGATIK. ELA, LAB, CCOO ETA UGT SINDIKATUEK AZALTZEN DUGU

Hemen aipatutako sindikatuek, berriz ere, Partaidetzarako Arau Organikoaren 14. artikuluan oinarrituta, gure kexa eta desadostasuna adierazten dugula Donostiako Udalak 2016rako egin zuen turista olde handiko gunearekin (aurrerantzean TOHG). Eta Arau Organiko beraren 13. artikuluan oinarrituta, eskatzen dugu kontuan har dadila 2017ko TOHGaren birdefinizioan inplikatutako eragile guztien iritzia eta sostengu handiena duen proposamena aukeratzea.

Gure ustez, handitze horrek merkataritza marka handien interesei erantzuten die, ez du babesten merkataritza txikia eta sektoreko langileen atsedenerako eskubidearen eta familiako bizitza bateratzearen aurkakoa da. Gainera, merkatari zein kontsumitzaileen elkarteek bermatzen dute gure autonomia erkidegoak gaur egun irekiera nahikoa onartzen duela gure erkidegoko edozein zonatan edozein merkataritza eskariri erantzuteko.

Horregatik, hemen sinatu dugun guztiok zenbait jarduketa egin ditugu TOHG 2015erako adostu

## RUEGOS Y PREGUNTAS CIUDADANAS

**31. Queja y petición formulada por los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT relativa a la ampliación de la zona de gran afluencia turística.**

“AL GOBIERNO MUNICIPAL Y A LOS GRUPOS POLÍTICOS DEL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA QUEJA y PET1CION POR LA AMPLIACIÓN DE LA GRAN ZONA DE AFLUENCIA TURÍSTICA Y EL TRATO DADO A LA MOCIÓN INTERPUESTA POR L -SINDICATOS ELA, LAB, CCOO Y UGT. ELA , LAB, CCOO Y UGT EXPONEMOS

Que los sindicatos aquí mencionados, una vez mas , en base al artículo 14 de la Norma Orgánica de Participación hacemos constar nuestra queja y disconformidad con la ampliación de la zona de gran afluencia turística (en adelante ZGAT) que realizó ayuntamiento de Donostia para el año 2016, y en base al 13 de la misma Norma Orgánica, pedimos que se tenga en cuenta la opinión de todos los agentes implicados de cara a la redefinición de la ZGAT del año 2017 y se opte por la propuesta que cuente con mayor apoyo.

Consideramos que ésta ampliación únicamente responde a los intereses de grandes marcas comerciales, que no protege al pequeño comercio y que atenta contra el derecho al descanso y a la conciliación de la vida familiar de las trabajadoras del sector. Además, es un hecho avalado tanto por asociaciones de comerciantes como de consumidores, que nuestra Comunidad Autónoma hoy en día ya permite un apertura suficiente como para atender cualquier demanda Comercial en cualquier zona de nuestra Comunidad.

Es por ello que todos los aquí firmantes, hemos realizado diferentes actuaciones con el objetivo

zen baldintza beretan ezartzeko. 2015erako onartutako neurriaren eta egungo Gobernu Taldeak onartutakoaren arteko alde nagusietako bat da, zonaren hedapenaz gain (jakina), Udalak eragile sozial eta ekonomikoei emandako partaidetza maila. 2015ean hartutako erabakian, sindikatuei zein merkatariei kontsulta egin zitzaigun eta gure eskaerak kontuan hartu ziren; 2016rako hartutako erabakian, berriz, merkatarien kasuan badakigu dagoeneko hartuta zegoen erabaki baten berri eman zitzaiela, eta sindikatuei dagokienez, prentsaren bidez jakin genuen erabakiaren berri.

de que se estableciese la ZGAT en los mismos términos en los que se acordó para el año 2015. Una de las principales diferencias entre la medida aprobada para el 2015 y la que ha aprobado el actual equipo de Gobierno para el 2016, además de en la extensión de la zona (por supuesto), radica en el grado de participación otorgado por el Ayuntamiento a los distintos agentes sociales y económicos. Mientras que para la decisión adoptada en el 2015, tanto sindicatos como comerciantes fuimos consultados y nuestras peticiones tomadas en consideración; en la decisión tomada para el 2016, en el caso de los comerciantes nos consta que tan solo fueron informados de una decisión ya adoptada, y en cuanto a los sindicatos, tuvimos noticia de la decisión por la prensa.

Aurten, maiatzean, lau sindikatuek, EH Bilduren eta Irabazi Donostiaren sostenguarekin, mozio bat jarri genion Udalari gure desadostasuna helarazteko jasotako tratuagatik, problematika korporazioaren barruan eztabaidatzeko eragile sozial eta ekonomiko interesdun guztiekin eta, bitartean, TOHG 2015erako bezala mugatuta egoteko.

En mayo de este año, los cuatro sindicatos con el apoyo de EH Bildu e Irabazi Donostia, interpusimos una moción al ayuntamiento para hacer llegar nuestra disconformidad al ayuntamiento por el trato recibido, solicitar que la problemática se debata en el seno de la corporación con todos los agentes sociales y económicos interesados y, mientras tanto, se mantenga la ZGAT delimitada para el año 2015

Egindako bileretan zein jarritako mozioaren aurrean Udalaren ezezkoa biribila izan da. Joko arau minimo batzuk errespetatuko dituen partaidetzazko demokrazian oinarritutako praxi bat ez dagoela ikusita, kexa formal hau helarazi nahi dugu. HAU ESKATZEN DUGU

Tanto en las reuniones mantenidas, como ante la moción interpuesta la negativa por parte del Ayuntamiento ha sido contundente. En vista de la inexistencia de una praxis basada en la democracia participativa que respete unas mínimas reglas de juego, queremos hacer llegar la presente queja formal. PEDiMOS

1.- Partaidetzarako Arau Organikoaren 13. artikuluan oinarrituta, kontuan har dadila 2017ko TOHGaren birdefinizioan inplikatutako eragile guztien iritzia eta sostengu handiena duen proposamena aukeratzea.

1.- Que en base al artículo 13 de la Norma Orgánica de Participación, se tenga en cuenta la opinión de todos los agentes implicados de cara a la redefinición de la ZGAT del año 2017 y se opte por la propuesta que cuente con mayor apoyo.

2.- Partaidetzarako Arau Organikoaren 18. artikuluan oinarrituta, kexa eta eskaera aurrez aurre tratatzea haren egileekin, 2016ko urriko

2.- Que en base al artículo 18 de la Norma Orgánica de Participación, se tenga a bien tratar presencialmente la queja y la petición por parte

Batzordean eta Udalbatzan erantzuna izateko, garrantzi handiko gaia delako, eragina baitu sektoreko langileen eskubideetan eta hiriko plangintza ekonomiko eta sozialean.

Donostia, 2016ko uztailaren 11".

de los autores de la misma, para obtener contestación en la Comisión y Pleno municipal de octubre de 2016, al tratarse de una cuestión de gran importancia por incidir en los derechos de las trabajadoras del sector y en la planificación económico-social de la ciudad.

Donostia, a 11 de julio de 2016".

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen izenean sindikatuetako ordezkari batek eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen en este punto una representante sindical en nombre de los sindicatos ELA, LAB, CCOO y UGT y el señor D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO SEIAK ETA BOSTETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECIOCHO HORAS Y CINCO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**